



1841
ANTHONY
GUERNIC
4 PLAZA





H. 85623
F. 94243

ZRV
3385



ALDARECO

SACRAMENTU CHIT SANTUARI

ETA

MARÍA GUCIZ SANTARI

ILLAREN EGUN GUCIETACO

ICUSALDI EDO BISITAC

S. ALFONSO LIGORIOC

EGUIN ETA

GREG.^o ARRUEC

EUSQUERARA ITZULIA.



Obispo jaunaren baimenarequin.

TOLOSAN

Francisco Muguerzaren moldizteguiari
1884 garren urtian.

HITZ-ARBUKIA

Liburu au bere eguillearena da; eta norbait
tec beraren escubide gabe moldizquidatzen ba-
lu izango litzaque perseguitua legueaz erara.

HITZ-AURREA.

Iracurle maitea, ez det zuri liburuko onetan nola Jesucristo gure Jauna eguiatz ta benaz Sacramentu gucz Santuan dagoen, sinisterezco asmoric, ceren daquidan, zuc ondo sinisten dezula ori: ez dizut esan nai ere Jaun au dagoela amorezco eta erruquizco jarlecuan becela gure aldareetan, bere ondasun azquen gabeac guri eman-nayaz, ceren au asco liburuc eracusten dizuten. Nic nai nuqueana da, beguira zazula ongui eta icusi, misterio oneganao zure esquer eta ezagüera zure sinistea adiñacoac ote diran; eta Sacramentu onequico zure amorioa otza, eta zure debocioa epela dirala icusten badezu, erregutzen dizut, eguin dezazula egunero ordu laurden batean bederic Jaun sacramentatu onen aurrean egoteco asmo sendoa: eta bera dagoen elizetara ecin cinjoazqueanean, ascoco zatzu cere echean bertan, aldeendacazun elizaronz beguira belaunicatu, eta Jaun au adonatu eta bisitatzea, Icusaldi edo bisitovec eguin bear dituzu beti iru gauzataraco: 1.^a Jaungoicoac digun onguinai eta amore gueyeguiaren bidez Sacramentu onetan gurequin gueratzearquin eguin digun mesede arrigarriagatic esquerrac emateco. 2.^a Guizonac berac Sacramentu onetan eguiten diozcaten bidegabe

eta charqueriac gure adoracioquin ordantzeco
eta 5.^a Gure pecatuen barcacioa iristeco eta be-
re amorean irauteco gracia eta betico cerua
humilqui escatzeco.

Eguia da, non nai aditzen dituela Jaincoac gu-
re erregu-escariac; baña eguia da ere, Jesucris-
toe Sacramentu guez santuan graci ugariagoac
ematen ditzela, bera icustera dijoazquionai. ¡Oh
eta nola oitura galgarriac ayenatuco liraquean,
eta cembat anima betico infemuratzetic libratu-
co liraquean, baldiñ len esan ditudan gauzeta-
raco egunean aldicho bat Sacramentu onen aur-
rean eguiten duten cristau gueyago balira!
Eguiaz jayera santu au da beste jayera gucien
artean Jaungoicoaren gogocoena, eta guretzat
ongarriena. ¡Gracia eta mesede ceñ andiac San-
tuac irichi cituzten Jaunagandic, jayera onen;
bidez! ¡Cembat peccatari ondu diran bisit oyec
eguitearequin! ¿Nore daqui zuc ere Jesus sacra-
mentatuaren aurrean jartzen ceranen batean
bere serbitzu santura oso emateco asmo sendo
eraguille bat artuco ez ote dezun? Equin, bada
arretaz eta ciintzo jayera provechugari oni, eta
aspertugabe eguiten badezu, icusico dezu ira-
baci ceñ ederrac ateraco dituzun.

Jayera au errazago izan daquizun, ipintzen
dizquitzut liburucho onetan illaren egun guztie-
taraco bisit oyec. Liburu au ezta nic eguiña,
bada Sacramentu guez santua adoratzera nere
indar eta al guciaz sayatu izan banaiz ere nere

espiritu epelác ecin citzaquean eman onelaco
gogoracio eder eta hitz zorrotz eta beroac. Ber-
tute andico Obispo santu batec eguiñada Italia-
co hicuntzan: nic eusquerara itzultzea baño
eguiñ ezdet. Jaungoicoác ondo daqui, bacarric
bere gloria eta zure onagatic eldu diodala lan
oni. Jaun berari nai daquiola liburu onec gure
euseal-errietan Napolesen becelaco ónac ematea
eta an becelaco estimacioa izatea bada dembora
guciz laburraren barrenen, eta bere eguille san-
tua oraindic bici zala, amalau eguiñaldi atera
bear izan ciran.

Sacramentu guciz santuaren bisitetaco baco-
itzaren ondoren arquituco dezu oracio bat Ama
guciz santa ere bisitatzeco. Ama maite onec bi-
ciro nai duen, eta mesede eta gracia ugariaquin
guciz oparo ordañdu izan duenjayera.

Sacramentu adoragarri au bisitatzen dezun
bacoitzean esca zayozu arren Jaun andi oni,
barea dizaizquidala nere pecatuac, eta urriqui
dedilla nere anima gaisoaz, bada ni ere nere
oracio laburretan sayatuco naiz, on andi au
eguiten didatenacgatic ori bera eguitera.





ALDARECO SACRAMENTU GUCIZ SANTUARI

ETA

MARÍA GUCIZ SANTARI

ICUSALDI EDO BISITAC.

Comunio espiritual edo gogozco
comunioa cer dan.

Bisita bacoitzaren ondoren gogoz-
co comunioa eguitea guciz on andiac
dacaizquien gauza izanic, eracutsi
bear degu emen, cer dan, eta cer
eguitean dagoen, gogozco comu-
nioa, eta irabaci ceñ andiac atera-
tzen dituzten comunio au eguiten
duten animac. Gogozco comunioa,
Santo Tomasec dionez, dago Jesu-
Cristo sacramentatua barrenen ar-

tzeco gogo eta zale iracequi bat iduquitzean, eta izatez artu balitz becela, berarequin batutzean.

Gogozco comunio oyec cembat Jaungoicoac nai dituen, eta beren bidez cembat on cristau ónai eguiten dizten, berac eman cion aditzera Napolesco Santa Catalina Senaren comentua eraguin zuen bere serbitzari leyal Sor Paula Marescari, bere bicitzan esaten dan becela, aguerturic beñ batean vaso eder bi, bata cillarrezcoa eta urrezcoa bestea, esan cionean: *Urrezco ontan gordeac dauzcat Sacramentuzco zure comunioac, eta cillarrezcoan gogo edo descozcoac*. Guciz goratzen eta encargatzen dute elizaco Guraso eta Santu jaquintsúac gogozco comunio au eta argatic cristau ónac

au añ sarri eguiten dute. Jayera au
aimbeste on dacarrena izateaz ga-
ñera, gucziz erraz eguiten dana da.
Orregatic esan oi zuen Gurutzeco
Juana doatsuac, gogozco comunioa
eguin guentzaqueala iñore icusiga-
be, barauric egon bearric gabe
eta cernai lecu, garai eta ordutan,
ceren au ez dan beste gauzaric,
ezpada amorezco acto bat eguitea
esanaz biotz biotzetic: *Nere Jesus
lantzana, sinisten det Sacramentu
orretan zaudela; beste gauza guciac
baño maiteago zaitut, eta nere bio-
tzean artu nai cinduzquet: baña Sa-
cramentuz eciñ artu zaitudan ez-
quero, atoz deseez bederic nere bio-
tzera; eta izatez artu bacindudan
becela maite zaitut, eta naizen gu-
cia zurequin bat eguiten naiz: arren*

*iñoiz ere zugandic aldeguin ezteza-
dala. Edo laburrago: Sinisien det,
nere Jesus maitea, zu or Sacramen-
tuan zaudela: maite zaitut, eta nere
biotzean artu nai cinduzquet, atoz
bada, zurequin batu nadiñ: ez ar-
ren nigandic aldeguin.*

Sacramentu guciz santuari eguiten
zaizcan icusaldietaco bacoitzaren
aurretic eguin bear dan

ORACIOA.

Guganaco amorez sutu eta guci
ori erruquiz beteric, icusterā da-
tozquitzun gucien beguira gau ta
egun, beti Sacramentu adoragarri
orretan zauden Jesus maitea; si-
nisten det or Aldareco Sacramen-
tuan zaudela; aldedan humiltasu-

nic andienaz adoratzen zaitut, eta
ematen dizquitzut milla ta gueya-
go esquer, eguin dizquidatzun on
eta mesede guciacgatic, batez ere
Sacramentu orretan eman dizqui-
datzulaco zure Gorputz, odol, ani-
ma eta Jaungoicotasuna: eman dida-
zulaco nere Bitartecotzat cere Ama
maite Maria beti garbia, eta orain
zu lecu santu onetan adoratzera
ecarri nazulaco. Adoratzen det
zure Biotz chit amoretsua, eta orañ
iru gauzagatic adonatu nai det:
1.^a Sacramentu orretan ematen di-
dazun ondasun paregabeagatic es-
querrac emateco: 2.^a Zure etsayac
Sacramentu orretan eguiten dizqui-
tzuten bidegabe eta charqueriac ne-
re esquerraquin ordañzeco; eta
3.^a Sacramentu orretan adoratza-

Heric gabe eta desprecioz estaliric
zauden munduco lecu gucietan ado-
ratu nai cinduzquealaco. Nere [Je-
sus laztana, biotz guciaz maite
zaitut: damu det zu aibeste bider
ofenditua. Eguiten det zure escu
eta laguntasunarequin zu ez berriz
ofenditzeo asmo sendoa: bereala-
tic abiatuco naiz zu alic onguien
serbitzen: zure escuetan ipintzen
ditut nere nai, gogo, zale eta nai-
cen eta dezaquedan gucia. Gaur-
danic eguizu nizaz nai dezun gu-
cia. Nic nai dedan eta escatzen di-
zudana da, bacarric züganaco amo-
rio santua, zue nai dezuna nic le-
ti eguitea, eta azqueneraño zure
adisquidetasunean irautea. Erre-
gutzen dizut purgatorioco animac-
gatic, batez ere Sacramentu guciz

santu orri eta Maria chit santari
jayera andiena izan dioten ayecga-
tic, nola ta peccatari guciagatic.
Azquenic nere Salvatzalle maitea
zure biotz amorezcoarequin batu
nai nituzque nere gogo, zale eta
deseo guciac, eta onela escañtzen
diozcat guciac zure Ait Eternoari,
dembora berean escatuaz, ontzat ar-
ditzala zuri dizun omoreagatic.

I BISITA.

Qua nun daucazun, anima Jainco-
coya, ondasun guztien iturria, Jesus
aldareco Sacramentuan, nun esaten
digun: *Betor nigana egarri dana.*
¡O eta gracia ceñ andiac San-
tuac atera dituzten Sacramentu
adoragarriaren iturri onetatic, nun

Jesus amorezcoac bere pasioco irabaciac añ oparo ematen dituan, aditzera eman zuen becela Isaias Profetac, esanaz: *Pocic joango cerate Salbaltzallearen iturrietara uraren billa.* (Isai. cap. 12) Aita Avila beneragarriaren icasle andi, Feriaco Condesa, Santa Clararen ordenan moja sartuta, Sacramentuaren aurrean eguiten cituen egonaldi guciz luceacgatic Sacramentuaren esposa deitzen zan are, beñ batean galdeturic ¿ea cer eguiten zuen an aimbeste demboran? Eranzun zuen: *Pocic egongo nitzaque beti an eternidade gucian.* ¿An eztago bada ceruco doatsuen betico gloria, eta janari izangodan, Juangoicoaren izatea? ¡Ah! eta ¿cer eguingo degu? diozute iñoiz, Jaun sacra-

mentuaren aurrean ¿Cer? Jaun au
 amatu, eta alabatu, beroni esquér-
 rac eman, eta beardana escatu,
 ¿Cer eguiten du beartsu batec abe-
 rats baten aurrean? ¿Eri batec me-
 dicuaren aurrean cer? eta cer¿
 egarri danac iturri baten ondoan?

¡O nere Jesus laztana, nere ani-
 maren bicitz, uste ondasun eta
 amore bacarra! ¡O ceñ garesti irten
 citzazun or Sacramentu orretan gu-
 requin gueratzea! Ondo ciñaquien
 nolaco esquer beltzarequin gui-
 zonac eranzungo cizuten; alabaña
 gure gaiztaqueria baño andiagoa
 zan guri ciñigun onguinai eta amo-
 re sutua. Bai amore andi orrec,
 eta guc guere amoreaz eranzuteco
 cenducan egarri biciaac guciari ga-
 ñez eraguin cion.

Atoz bada Jauna, atoz, sar zai-
 te nere biotzaren erdi erdian, eta
 ichi zazu atéa betico. beste inor
 ere sar estediñ amorearen apurric
 ere arizera, ceren bacarric zuri
 guztia eman nai dizudan. Nere
 Erosle maitea, hitz eguiozu zure
 esana aditzeco beti prest dagoen
 biotz oni: aguin zayozu, Jauna,
 bada bertatic obeditu nai dizut;
 eta baldiñ inoiz edo berriz obe-
 ditzen ezpadizut bear becela, cas-
 tiga nazazu, onela oarturic, zue nai
 dezun gucia eguiteco prest jarri
 nadiñ. Ez dezadala nai izan zu ez-
 pada, beste ecer, ez billatu ere zu
 serbitzeaz, Sacramentu adoragar-
 ri orretan ascotan icusteaz, eta Co-
 munio sagraduan sarri artzeaz oste-
 ronzecco beste atsegiñ contenturic.

Nai duenac billa bitza beste onda-
sunac, bada nic zure amorezco abe-
rastasuna besteric bear ezdet, au-
da, zure aldarearen aurrean beti
escatuco dedana. Aztueraci nazazu
nere buruaz ere, zure ontasun neur-
rigabeaz ezpada oroitu ez nadiñ.
Aingueru santuac, ez naiz zuen
izate goratuaren añ zale, nola ta-
nere Jaungoicoganaco zuen amo-
rearen. Eracus zadazute nola ser-
bitu eta maitatuco dedan. *Orañ
gogozco comunioa, eta ondoren:*

MARIA GUCIZ SANTARI

I BISITA.

QDoncella manchagabea eta Jaun-
goicoaren Ama guciz garbia! Zu
Santu guciac baño gorago jasoa ce-

ran becela, cera, zure Semearen
urrena, becatarien esperanza eta
justuen poz-atseguina. Zure bidez
eguin zan Jaungoicoarequin gure
arteco paquea. ¡O Aingueruen Er-
reguina! ar gaitzazu zure mantu-
pean, urricál zaite guzaz; eta zu-
re serbitzura eman, eta zu alaba-
tzera sayatzen gueran ezquero,
ezagu gaitzazu cere servitzaritzat
eta ez arren utzi Luciferri gu be-
requin infernura eramaten. ¡O Don-
cella manchagabea! Zure estalpe-
ra gatoz, eta argatic uste eta con-
fianza osoaz escatzen dizugu, bi-
guñ dezazula cere erreguaquin gure
pecatuacgatic añ aserre daguen
zure Semea, gure etsai demonioa-
ren escupean utzi ez gaitzan.

Bisita bacoitzaren ondoren Maria
guciz santari eguin bear zayon

ORACIOA.

=

Doncella garbi manchagabe eta
nere Ama Maria guciz santa! Zugana
nere Salbatzallearen Ama, mundu-
co Erreguiña, becatarien bitarte-
co, igueslecu eta esperanzagana
becela nator gaur ni gucien bear-
tsuen au. Adoratzen zaitut, jeh
Erreguin andia! eta esquer humillac
dizquitzut ematen, orañdaño eguin
dizquidatzun on eta laguntasun gu-
ciacgatic añ mereci nuan infernutic
libratu nazulaco. Maite zaitut, Ama
maitagarria, eta zuri dizudan amo-
reagatic berealatic artzen det beti

zu serbitzeco, eta beste guciac ere
serbi zaitzaten al guciac eguiteco
asmo sendoa. Zugan daucat, nere
Jaun Jesucristoren urrena, nere
uste gucia. Cere serbitzaritzat ar-
tu, eta gorde nazazu cere mantu-
pean; eta Jaungoicoarequico aimbes-
te dezaquezun ezquero, gorde naza-
zu tentacio gucietatic, eta irichi za-
dazu azqueneraño guciac escura-
tzeco indarra. Indazu nere Jesus
maiteaganaco amore eguiazcoa, eta
zu bitarteco zaitudala, irichi uste
det heriotz on bat. O ene Ama
maitea, cere Semeari diozun amore
andiagatic escatzen dizut, lagun
zadazula befi, baña asco gueyago
nere heriotzeco estura larrian: ez
arren cere escutic utzi, zu alaba-
tzen eta zuc eguindaco ónac can-

tatzen betico ceruan icusi nazazu-
nerano. Amen.

II BISITA

Aita Jaun Eusebio Nieremberg
jaungoicocoyac dio ecen, izanic o-
guia gure janarien bearrena eta gor-
deta luzaroan irauten duena Jesucris-
toc oguiaren antz-irudien bean gue-
ratu nai izan zuela lurrean, berà
Comunio sagraduan artzen duten
animai janari izan cequien ezecic,
aldarean gordeta beti gure artean
egoteco ere, nolaco naitasunaz be-
guiratzen digun, era miragarri
onetan guri aguertuaz. Eta San
Paulec dio, Jesucristoc mendeco

baten antza artuaz bere burua
 ecereztu zuela. Baña ¿cer esango
 degu guc icusiric nola oguiaren
 antza artuta egun gucietan gure
 aldareetan dagoen? ¡ Oh ! eztago
 Jesusec bere adisquidetasunean da-
 goen anima bati dion amorearen
 anditasuna aguer dezaquean min-
 gañic, die Alcantaraco San Pedroc;
 eta orregatic esposo gozo onec
 mundu onetatic bere Ait Eternoa-
 gana joan bear zuenean, gugandic
 aldeguinta arzaz aztu ez guinde-
 cen, eta beti bera gogoan erabilli
 guentzan, nai izan cigun utzi Sa-
 cramentu guciz santu au, bertan
 bere amorearen señale seguru eta
 gogoangarritzat berà gueratuaz,

¡O nere Jesus! bearrean dauden
 gucien escariac aditzeco zauden ez-

quero hostia santu orretan, enzun
 itzazu orañ becatarien esquergabe-
 enaren erreguac. Zu ofenditzeaz
 eguin nuen gaiztaqueri izugarria
 ezaguturic, emen naucazu eguiaz
 damutu eta zure oñetan auzpeztuta.
 Barca zaizquidatzu arren nere be-
 catu guciac. ¡Ah eta iñoiz ere ofen-
 ditu ezpacindudan! Orañ bada, zure
 ontasun neurrigabea zure aurrean
 ezagutu, eta guciz indartua senti
 naiz zu maitatu eta serbitzeco. Baña
 cerorrec laguntzen ezpadidazu, ni
 nerez ecertaco ez naiz. Aguer za-
 yezu, ¡oh Jaungoico andia! ceruco
 guciai zure escu, indar eta urrical-
 tasun azquengabea, becatari andi
 onequin zure maitatzalle eguiazco
 bat eguiñaz. Zue gucia dezazuque,
 eguizu, bada, arren au. Osa zazu;

Jauna, zu gucz asco, edolaric len ofenditu zaitudan aimbat maitatzeco falta zadana. Maite zaituc, ene Jesus, maite zaitut gauza gucien gañean; maiteago zaitut nere bicia baño, zu nere Jaungoico, nere amore eta ondasun gucia. *Orañ gogozco comunioa.*

MARIA GUCIZ SANTARI

II BISITA.

Q mundu gucico Erreguiñ eta gure Ama Andrea! Zu cera Aita Eternoa-requico gure lenengo bitartecoa, Jesucristoren urrena. Zu cera galdu-gordean dabiltzanen amparo eta portu segurua: munduaren poza, gaizqui daudenen osasuna, naigabez daudenen alaitasuna eta peccatarien

gordelecua. ¡Oh Doncella graciaz
betea! Argui zazu nere adimentua,
asca zazu nere mingaña, canta dit-
zadan zure anditasúnac, batez ere
zuc ala merecita, Aingueruàc eguin
cizun agur gozo hura. Adoratzen
zaitut, ó mundu guciaren paque,
poz eta salbacioa; adoratzen zaitut
atseguin contentuzco paradisoa,
graciazco iturria, Jaungoicoarequico
gure bitartecoa

III BISITA.

Qnà emen gure Jesus, gugatic be-
re. bicia emateari. guchi iritziz becela
hill ezquero ere Sacramentu gucz
santuan gurequin gueratu nai izan

zuená, esanaz gure artean dituela bere atseguin-contentuac.

¡O guizónac! deadar eguiten du Santa Teresac, ¿badezute bere poz atseguinac zuen artean dituela dion Jaungoico bat ofenditzeco ausardia? Jesusec gure artean egotean dauzca bere consuelóac, eta guc ¿ezditugu iduquico Jesusequin egotean? ¡Ah! honra ceñ anditzat iduquitzen duten guizónac Erregue baten jaureguian sarbidea izatea: oná bada emen Erregue gucien Erreguearen jaureguia: au da Jesucristorequin batean egoten guerán echea. Diozcagun milla ta gueyago esquer, eta hitzeguin zayogun naitasun eta uste oso batequin diotsagula: ona nun naucazun, nere Salbatzalle eta Jaungoicoa, zu nere amorez gau ta egun

zauden aldare orren aurrean. Zu
 cera ondasun gucien iturria, gaitz
 gucien sendagarria eta beartsu gu-
 cien ondasuna. Ona nun daucazun
 bada cere óñetan becatari gucien
 beartsu eta heriena zure urricalta-
 sun esque: Jauna, cupi zaite nizaz.
 Eguiaz andia da nere ecereza; ba-
 ña icusiric nola Sacramentu orretan
 jeisten ceran egunero cerutic lur-
 rera nere oneraco, ezdet etsi nai.
 Adoratzan, alabatzen eta maitatzen
 zaitut; eta baldin nic cerbait esca-
 tzea nai badezu, escatzen dizut,
 gueyagoren gueyago ofendi etzait-
 zadala, eta eman dizadazula nere
 indar guciaz zu maitatzeco gracia.
 Maite zaitut, Jauna, anima guciaz;
 maite zaitut nere eguiñal guciaz;
 au eguiaz eta benaz esan dezadala,

orañ eta beti secula gucien seculen.
Doncella gucziz garbia, nere bi-
tarteco Santúac, ceruco Aingueru
eta doatsu guciac, lagun zadazute
nere Jaungoico chit maitagarria
maitatzen. *Gogozco Comunioa*

MARIA GUCIZ SANTARI

III BISITA.

Qene Ama atseguina! Zuc Jaun-
goicoagandic dedan atseguin-con-
tentuen andiena, nere naigabe pena
gucien gozatzallea, nere animaco
illun-abarren arguitzallea, nere bi-
dageetan laguntzallea, nere beldur-
tasunetan indarra, nere premien es-
taltzallea, nere gaitzen sendatza

llea, eta nere estuasun gucietan
poz éta consueloa zaitudan orrec:
zuc, perill gucietan nere gordele-
cua, eta Jesucristoren urrena nere
salbacioaren uste eta esperanza go-
zoa zaitudan orrec, adi itzazu nere
erreguac; eta guri aimeste nai di-
gun Jaungoicoaren Ama becela,
erruqui zaite nizaz. Indazu arren
escatzen dizudan gucia. ¡O biotz
beraa! ¡O erruquitsua! ¡oh María
Doncella gozoa!

IV BISITA

Munduco adisquidéac añ atse-
guin oi dute alcarrequin egotea, non
egun osoetaco beren hitzquetai la-
bur iritziz egon oi diran. Beraz

balidin Jesus sacramentatuaren aurrean egoten bereala aspertzen baguera, Jaun au guchi maite degulaco señalea da. Jesus Sacramentatuaren aurrean arqutu zuten Santuac lurtean ere cerua. Santa Teresac hill ta guero bere moja bati aguertu, eta esan cion: *Guc ceruan gaudenoc, eia zuec lurtean bici ceratenac gucioc berdiñ eta bat izan bear quiñaque garbitasun eta amorean guc gozatuz eta zuec neque-penac eramanz: eta guc Jaungoicuaren arpeguia icusiaz ceruan equiten deguna bera equin bear dezute zuec lurtean Sacramentu santuaren aurrean.*

¡O gugatic cere bicia gurutzean eman cenduen Bildots garbi manchagabea! Oroi zaite nola ni ere zuc aibeste oñace eta heriotz añ

—23—

gogorraren costurá erositaco ani-
metatic bat naicen; bada ceran gu-
ci orí niri eman, ta nere amorez
aldarean ofrendatuaz egun oro ema-
ten zatzaizquidan ezquero, izan
zaite beti betiraco nereá, eta ni
izan nadilla zurea. Zure escuetan
uzten naiz, naicen guci au, nizaz
nai gucia daguizun: orra bada, ori
nere nai edo gogoa, eta lotu zazu
zure amorezco locarri biguñaquin,
bacarric zuc nai dezuna beti eguin
dezan. Gaurdanic eztet bici nai,
nic gogo dedana eguiteco, eta bai
zure gogoco dan gucia eguiteco.
Quen, Jauna, quen zazu nigandic
zure gogoco ez dan gucia. Mugui
nazazu zuri obeditzecoá beste go-
goetaric, eta zu servitzecoá beste
zale ta deseoric ez izatera. Maite

zaitut joh nere salbatzallea! nere
biotz gucitic; maite zaitut, ceren
nic maite izatea nai dezun; maite
zaitut, ceren ecin gueyagoraño mai-
tagarria ceran. Zuc mereci adiña
ez maitatzea det damu. Pocic hilco
nitzaque zure amarez; ontzat ar za-
dazu nere deseo au, eta indazu zu-
re amorea. *Gogozco comunioa.*

MARIA GUCIZ SANTARI

IV BISITA.

¡**Q** nere Ama maitea! Zu, gure
estalpea ceran becela, eguin nazazu
cerorrec ceruan daucazun zorionta-
sunaz zurequin batera gozatzearen

diña. Bai, nere Erreguiñ, nere gor-
delecu, nere bicitza, nere laguntza
nere amparo, nere poz eta esperan-
za: eramán nazazu cerequin ceru-
ronz. Badaquit, guciz ondo irichi
deguidazuqueala nere heriotzeco
orduan Jaungoicoaren adisquideta-
sunean egoten lagunduco didan
gracia bici eta eraguille bat. ¡O
Maria! bitarteco guciz andia cera
pecatariac salbatzeco; eztezu one-
taraco beste bitartecoren bearric
ere, ceren bicitz eguiazcoaren Ama
ceran.

V BISITA

Nere Jaungoico, nere Jaun eta Jabe

bacarra! ¡Nore biur litzaquean bere
 sentidu guciac mingañ, Sacramentu
 orretan aguertzen diguzun ongui-
 nayaren indarra goratu, eta bera-
 gatic esquer ugaríac zuri emateco!
 Esan liteque, Jauna, gueyeguizcoa
 dala guizónai diezun amorea; bada
 bérac zu maitatzearren eman ciñien
 Sacramentu orretan, eman al gu-
 cia. ¡Ay nere Jesus gucziz maita-
 garria! iguzu zuganaco naitasun
 sendo icio bat, alabaña bidegabe-
 queri guczizcoa litzaque aimbeste
 maite gaituen Jaungoico bat añ gu-
 chi maitatzea. Ceregana gaitzazu
 cere amorearen locarri gozoaquin.
 ¡O ontasun ondogabea! Zuc añ mai-
 te dituzu guizónac: aimbeste on
 eguiten dieztezu bérac maita zai-
 tzaten, eta alaz guciac ere guchic

eguiaz maite zaituzte. ¡Oh Adanen
seme-alaben esquergabequeri itsu-
sia! Baña ay, Jauna, nerau izan
naiz esquergabe gucien andiena.
Ordea orañdaño ala izan banaiz
ere, emendic aurrera izango ez
naiz, ez. Nere al guciaz bacarric
zu maitatzeco asmo sendoa daucat.
Zuc ori aguintzen didazu, zuc ori
mereci dezu; bada zuc nai dezuna
eguin nai det. Indazu ó nere Jaun-
goico laztana, zure gogoco dana
eguiteco gracia. Uste det ala eguin-
go didazula, eta eguita escatzen
dizut, zure Pasio santuaren iraba-
cíacgatic. Eman guiozcatzu lurreco
ondasúnac orien zale danari: bacar-
ric zure amorearen aberastasuna da
nic nai eta billatzen dedana. Maite
zaitut, nere Jesus, maite zaitut,

ontasun neurrigabea. Zu cera nere ondasun gucia, nere poz-atseguin gucia, nere amore gucia.

Gogozco comunioa.

MARIA GUCIZ SANTARI

V BISITA.

=

! **Q** mundu gucio Erreguiña, aimbeste pecatu eguiñic, aguertu bear guera gucioc gure Jesus maitearen aurrean! ¿Nore gozatuco du bere aserrea? Jaun onec añ biciro maitezaituen ez uero, eta zuc aimbeste nai diguzun ezquero, eztago ó Ama maitea, zuc bezañ ongui ori eguiñ lezaqueanic. Zabal itzazu arren zure biotzaren entzuguiñac gure ne-

gar eta erreguac aditzeco. Zure es-
 talpe ségurura gatoz: goza zazu
 zure Semearen aserrea, eta biur
 gaitzazu bere adisquidetasunera:
 eztiozu peccatariari gorrotoric, eta
 baldiñ ongui damututa zuganatu,
 eta zure laguntza escatzen badizu,
 eztezu bialtzen ceregandic: librat-
 zen dezu ernegaciotic; indartzen
 dezu, eta laguntzen diozu uste eta
 esperanza artzen. Ez gaitzatzu ba-
 da cere escutic utzi, eta lagun za-
 guzu gure Juezarequin paqueac
 eguin ditzaguneraño.

VI BISITA.

Jesucristoc dio *non ere baciotzac*

*daucan bere gordairua, an daucala
 bere biotza.* Orregatic dauzcate
 Santuac béren biótzat Jaungoicoari
 amorezco Sacramentu onetan itsa-
 tsiric, ceren Jesucristoganaco amo-
 rea baicic ecertan ez daucaten.
 ¡Niganaco onguinaiz gau ta egun
 Sacramentu orretan zauden Jaun
 maitagarria! icio zazu nere biotza,
 bacarric zu maita zaitzadan, ba-
 carric zugar pensa dezadan, eta
 bacarric zugar nere ustea iduqui
 dezadan. Ala daguizula, Jauna, zu-
 re Pasioaren irabaciagatic. ¡Ah ne-
 re Jesus Sacramentatua! ¡Cembat
 bide zure amoreac somatu dituen,
 guc maita zaitzagun! ¡O Jaungoi-
 coaren Semea! Etzan asco diña zu-
 re amore sutuarentzat gugatic gui-
 zon eguiñic gurutzean hiltzea; bai-

cic gañera Sacramentu orretan gureratu nai izan cenduen gure lagun, gure janari eta betico gloriaren señale eta prenda seguru izan cindecen. Aguertu ciñan gure artean, bai gambela batean, aur chiqui eguiñic; bai lantegui humill batean beartsu bat becela; bai gurutze batean iltzez josita, gaitzquille bat becela, eta azquenic aguertzen cerra egun oro gure aldareen gañean oguiaren antz-irudien estalquipean. Esan zadazu, Jauna, ¿cer gueyago asma cenzaquean zu maitatzera gu beartzeco? ¡O ontasun azquengabea! ¿Noiz asico naiz zure amore biguñ eta piñ orri bear becela eranzuten? ¡Ah, Jauna! Zu maitatzeco ezpada bici nai ez det. ¿Certaco det bicia, nigatic hill zan Salbatzallea mai-

tatzen igaro ezenean? ¡Cer beste-
ric maita nezaque, ezpazaitut mai-
tatzen zu, guciz eder, guciz atse-
guiñ, guciz on eta guciz maitagar-
ria ceran ori? Bici bedi nere anima;
baña bacarric zu maitatzeco: irace-
qui bedi zure amorean, amore au
gogoratze bacoitzean; eta gambela,
gurutzea eta Sacramentuaren ice-
nac aditze gucian, sutu bedi zuga-
tic gauz andiac eguiteco eta sufrit-
zeco deseotan. ¡O nere Jesus! ¡ceñ
gauz andiac nere amorez eguin eta
sufritu dituzun! *Gogozco Comnnioa.*

MARIA GUCIZ SANTARI

VI BISITA.

Zugan jó Doncella guciz bedeinca-
tua! arqutu zuen Salbatzalleac be-
re atsedenlecua. Zuri utzi cizquit-
zun, ecer berecigabe, bere onda-
sun guciac. Orregatic honratzen
du mundu guciac zure sabel garbia
Jaungoicoaren bicilecua becela ba-
da munduaren salbacioa an asi, eta
eguin zan Jaungoicoarequin guizo-
nen arteco paquea. Zu cera ó Jaun-
goicoaren Ama andia, zure garbi-
tasuna loitzera peccataric iñoiz ere
escuric sartugabeco baratza ichitu
hura. Zu cera Eliza santua apaint-
zen duten lore guciac Jaincoac ipi-

ñi cituen lora-baratza eder hura,
eta lore oyen artean zure humilta-
sunaren biola, zure garbitasunaren
lirioa eta zure caridadearen arrosa.
¿Geñ zure parecoric, ó graciaren
eta edertasunaren Ama? Zu cera
Jaungoicoaren Paradisoa: zugandic
irten zan araco lur gucia busti eta
frutu ugariac ematen ipiñi zuen ur
bicizco iturri hura. Ondasun eta
mesede guciac guganatzeco ur-bide
osasungarri hura zu izatearequin
cembat on eguin diozun munduari!

VII BISITA.

=

Bere ardiacgatic bicia eman zuen
Arzai amoretsu onec etzuen gugan-
dic aldeguin nai hill ta guero ere.

Emen nago, dio, neue ardi maiteac,
 emen nago beti zuequin: zuecgatic
 gueratu nitzan lurrean Sacramentu
 onetan: emen arquituco nazue nai
 dezuten gucian emen egonaz zuei
 laguntzeco eta zuec alaitzeco. Ce-
 ruco Esposóac etzuen utzi nai izan
 bacarric luzaro bere Esposa Eliza,
 dio Alcantaraco san Pedroc; eta
 orregatic gueratu zan bera Sacra-
 mentu onetan, Esposa oni utzi al
 ceguioquean lagunic ónena utziaz.

¡Ah nere Jaun eta Salbatzalle
 maitagarria! Ona nun natorquizun
 zu aldare orretan bisitatzera: baña
 zuc amore paregabe andiagoaz or-
 dañtzen didazu bisit au, Comunio
 santuan nere animara zatocenean.
 Orduan, cerori aguertzeaz gañera
 eguiten cera nere janari: eguiten

cera guci orí nerequin bat, eta eguiatz esan deguizuquet: *Nere Jesus ona, orañ guci orí nereaz zaitut:* bada Jauna, zu guci orí niri ematen zatzaizquidan ezquero, gauza bidezcoa da ni ere guci au zuri ematea. ¡O Jaungoico amoretsua! ¡O nere animaren amoreta! ¡Noiz izango ote naiz guzti au zurea, hitzetan eze cic eguiñetan ere? Zuc eguin dezazuque au. Zure odolaren irabacien bidez mesede au irichi, eta nere heriotza baño len guci au zurea izango naicen uste eta esperanza eman zadazu. Zuc gucién erreguac enzuten dituzu; enzun itzazu bada, orañ ciñez eta benaz maitatu nai zaituen onen escariac. Bai; nere al guciatz maitatu nai zaitut, eta aguintzen dizquidatzun gauza gu-

cietan obeditu nai dizut, ez beste irabaci, consuelo eta ordañ-sarigatic, ezpada zu maitatuaz serbitzeagatic, zure gogoco izateagatic, eta aimbeste pintasun zor diozcadan zure biotz guciz amoretsu orri atseguin eguiteagatic. Nere irabacia, Jauna, bicitz onetan zu guciz maitatu, eta ceruan beti zu icusi ta gozatzeta izango da. ¡O Aita Eternoaren Seme laztana! óri, ar itzazu ceretzat nere libertadea, nere nai edo borondatea, eta nere gauza guciac neronequin batera, eta zu izan zaite nere. Zu maite zaitut eta billatzen zaitut; zure ondoren nabill; bacarric zu nai zaitut, zu bacarric nai zaitut, zu nai zaitut bacarric.

MARIA GUCIZ SANTARI

VII BISITA.

¡**C**eruco Erreguiña! zuzaz hitze-
 guiten da, esaten danean: *Ceñ da*
egun-sentia becela aguertu eta illar-
guia bezañ eder, eguzquia becela
esleitua, aguertzen dan au? Zu egun
sentico argui ederra becela etorri
ciñan mundura, cere bertuteen ar-
gui miragarriaz Justiciazco eguz-
qui Jaungoicozcoaren etorrera pres-
tatzera. ¡Oh zu munduan aguertu
ciñan eguna! Eguiaz esanliteque
egun hura salbacioco eta graciazco
eguna zala. Ederra cera illarguia
becela; ceren izar gucien artean
eguzquiaren antz gueyago duen

ceru-arguiric eztagoen becela, eztago creaturen artean zu baño Jaungoicoaren antzecoagoric. Eguzquiac ematen dion arguitasunaz arguitzen du illarguiac gaua, eta zuc cere bertuteen arguitasun ederraz arguitzen dituzu gure illuntasúnac. Baña illarguia baño ascoz ederragoa cera, ceren zugar eztan arquitzen, illarguian becela, itzal eta mancharic. Cerá, eguzquia becela, guciai eraguiña, zu ceralaco guc icusten degun eguzquia eguin zuen Jaungoico beraren antz andienecoa: Hura izan zan guizon gucien artean esleitua, zu emacume gucien artean autua.

VIII BISITA

=

Sacramentu guciz santuan Jesus icustera dijoan norinai, Esposa sagraduari Escritura santuan esaten diona bera esaten dio Jaun onec: *Jaiqui zaite eta atoz laster, ene maitea, ene ederra atoz laster.*» (Cant. 2.) Ni bisitatzen nazun anima, jaiqui zaite, pecatuaren lozorrotic, zu graciaz betetzeco emen nagota. Ea, zabilta, eta atoz nigana: ez icaratu nere anditasunagatic, bada humillatua nago Sacramentu onetan, zuri beldurra quendu, eta confianza emateco. Ene maitea, gaurdanic etzera nere etsai, eta bai nere adisquide; bada zuc maite nazu, nic ere bai zu: nere ederra.

nere graciac edertu zaitu, atoz nigana, laztan nazazu, eta esca zadazu nai gucia, uste eta confianz andiaz.

Santa Teresac dio, ceruco Erregue au bere anditasuna oguiaren antz-irudipean estaliric dagoela Sacramentuan, confianz andiangoarequin joan gaitean bere Biotz jaungoicozcoagana. Goacen bada Jesusgana confianz eta amoreric andienaz, eguin gaitean berarequin bat, eta esca zaizcagun mesede asco. ¡O Aita Eternoaren Seme guizon eguiñ, eta nere amorez Sacramentu orretan zaudena! ¿Cer poza, nolaco atseguin contentua barrundaco ez-tet orañ, nere anima añ maite duen Jaungoicoaren ontasun eta anditasun neurrigabearen aurrean nagoe-

la jaquiñic? Jaungoicoa maite dezuten animac, non nai arqui zaitetzela, naiz ceruan, eta naiz lur-rean, maita zazute al guciac nigatic Jaun au. Nere Ama maite Maria gu-ciz santa, lagun zadazu Jaungoicoa maitatzen. Eta zu, Jaun maitagar-ria, bacarric zu maitatu nai zaitut. Eguin zaite nere nai edo borondate guciaren jabe: zuretzat nere adi-mentu gucia, bacarric zure ontasu-nean pensa dezan; zuretzat nere gorputza, zure gogoco dana egui-ten lagun dizadan; eta zuretzat nere anima, dan gucia zurea izan dediñ. ¡Oh eta guizon guciac eza-gutzen balute cembat nai diezun nere Jesus maitea, guciac beti zu honratzen eta serbitzen bici ditean zuc nai eta mereci becela! Nic

beintzat aurrerontzean zure edertasun ondogabeaganaco amorean suturic bici nai det: sayatuco naiz al guciatz zuc naizuna eguitera; eta zure gogoco deritzadan ecerere eguitea utzico ez det, cernai neque pena eta naigaberen costura izanarren, eta nere gauza guciac eta oyequin bicia bera, galduco baditut ere. Zori onecoa ni, baldiñ beste gauza guciac galduric, zu, nere Jaungoico, nere ondasun, nere amore eta nere gucia irabazten bacindut. *Go-
gozco Comunioa.*

MARIA GUCIZ SANTARI

VIII BISITA.

Oh Maria gozo, Maria andi, Maria guciz on eta beti maitagarria! Zure icena esan edo aditzen dan bacoitzean iciotzen da biotza zure amorean; eta zu eguiaz maite zaituztenai, zuzaz gogoratzen ez aldira, datorque zu maiteago izateco zalea. O ceruco Erreguiña, sendo zazu gure argaltasuna: lagun zaguzu cere bitartecotasunaz zu eguiaz eta biciro maitatzen. ¿Norc zuc baño obeto hitzeguin lizayoque gure alde Jesucristo gure Jaunari, beti berarequin zauden ezquero? Hitzeguiozu, bada, hitzeguiozu ar-

ren, Ama maitea, bada zure Se-
meac beti enzuten zaitu, eta eman-
go dizu guretzat escatzen diozun
gucia.

IX BISITA.

Aita Alvarez beneragarriac icusi
zuen beñ nola Jesus cegoen Sacra-
mentu santuan escúac betean ceuz-
can ondasunac nori emango ote
ciozcan billa. Senaco Santa Cata-
lina comulgatzera cijoan bacoit-
zean, aur bat bere amaren bularra
artzera bezañ estu eta lasterca
joan oi zan. ¡O Aita Eternoaren Se-
me bacar guciz maitatsua! Ezagut-
zen det eztala zu bezañ gauza

maitagarriric; beragatic maitatu
 nai cinduzquet zuc mereci aña; edo
 beintzat anima batec maita al zait-
 zaquean gucia. Ondo daquit, ezte-
 dala mereci, zuc ni maite izatea,
 ezta eliz onetan zure aldean egotea
 ere, ceren zure amoreaganaco es-
 quergabe desleyal bat izan naicen,
 baña badaquit, cerori zaudela nere
 amore esque ere. Aditzen nago nola
 esaten didazun: *Nere Semea, indazu*
zure biotza. Maiteco dezu cere biotz
guciaz zure Jaun eta Jaungoicoa.
 Orañdaño gorde badidazu bicia, eta
 nere pecatúacgatic mereci nuen in-
 fernura bota ezpanazu, nere gaizta-
 queria ezagaturic, oso zugana biur-
 nadiñ, eguin dezu. Bada: Jauna,
 nic zu maite izatea nai dezun ez-
 quero, ona nun naucazun: zure es-

cuetan jartzen naiz, ó Jaungoico
 on, guci ori ontasun eta amorea
 cerana. Izan zaite zu gaurdanic
 nere Erregue eta nere biotzaren
 jabe, Biotz au escatzen didazu, eta
 nic pocic eman nai dizut: otza da,
 eta chit gogortua; baña zuc artzen
 badidazu, bereala berotu, biguñdu
 eta onduco dezu. On zazu bada,
 Jauna, on zazu arren, orañdaño
 bezañ esquergabea izan nai ez det:
 ezta añ guichi maitatu ere añ maite
 nauen eta ecin gueyagoraño maitatu
 bear nuquean zure ontasun bazter-
 gabea. Indazu arren orañdaño mai-
 tatu etzaitudan aimbát maitatzeco
 amorea. *Gogozco comunioa.*

MARIA GUCIZ SANTARI

IX BISITA.

Adoratzen zaitut, ¡ó Doncella Maria! Zu cera Jesucristoren urrena, cristauen esperanza. Enzun itzazu biotzetic maite zaituen, besteric ez becela honratzen zaituen eta Jaungoicoaren urrena bere salbacioa zugandic uste duen pecatari onen erregúac. Zuri, Jaungoicoaren urrena zor dizut nere bicia, eta zu bitarteco zaitudala, berriz ere jarri uste det zure Semearen adisquidetasunean. Lagun zadazu arren nere becatúen azpitic irteten: ayena itzazu nere adimentuco illuntasúnac: atera itzazu nere biotzetic zale ta

deseo eragabe guciac, deseguiñ
itzazu nere etsayen tentacio eta
burutacioac, eta zucen nazazu beti-
co zori ona iristeco bear becela
vicico naicen eran.

X BISITA

Q mundutar zoroac! dio S. Agus-
tiñec, ¿nora zoazte zuen biotzeco
soseguaeren billa? Atozte Jesusen-
gana, bada bacarric berac eman
leguizuquee zuec nai cenduqueen
paquea. Anima nerea, beintzat zu
etzaitte izan burujauci choro orieta-
coa: Jaungoicoa bacarric billa zazu;
billa zazu ondasun guciac beregan
dauzcan ondasuna; esan guiozu cer

nai dezun, bada zu enzuteco, poz-
tutzeco, eta bear dezuna zuri ema-
teco dago aldare orretan. Santa
Teresac esan oi zuen, nai duen
guciàc hitzeguiten eztuela lurreco
Erregue batequiñ, eta cembaitec
gueyenaz iristen duena, Erregue
oni beste norbaiten bidez hitzegui-
tea izan oi dala; baña jó ceruco
Erregue andia! zurequin hitzegui-
teco ezta bitarteco bearric, ceren
Sacramentu orretan beti prest zau-
den gure escariac aditzeco. Lurreco
Erregueac bacarric noizean beñ
eman oi dute beren aguindupecoen
escariac aditzeco lecua; baña zuc
Sacramentu orretan ala gauez nola
egunez, nai dan gucian gucioc adit-
zen gaituzu. ¡O amorezco Sacramen-
tua, non cerori ematen zatzaizquigun

comunio santuaren bidez, eta non
arquitzen ceran beti gure aldareen
gañean gure erregu-escariac adit-
zeco! eracarri itzatzu ceregana cere
amorearen gozotasunaz, zure onta-
sun neurrigabeaz zoraturic zure
gogoco dana eguitea beste egarriric
ezduten biotz oyec: tira zazu cere-
ganontz orañ zu maitatzen, eta
beti zure gogoco dana eguiten bici
nai luque an nere biotz gaisoa ere.
Gaurdanic zure escuetan uzten ditut
nere ontasun, esperanza, gogo ta
zale guciac: nere anima ta nere
gorputza: eguizu nizaz zuc nai de-
zuna: eztet nai zuc eguiten didazu-
naz esparic, jaquiñic, nere oneraco
eguiten duela gucia zure biotz
amoretsuac: zuc nai dezuna da nic
ere nai eta naico dedana orañ eta

beti. Eguizu nigan eta nizaz derit-
 zazun gucia, bada zure nayarequin
 bat eguiten naiz, ceren ondo daqui-
 dan, gucíz on, guciz santu, guciz
 eder eta guciz maitagarria dala.
 ¡O nere Jaungoicoaren borondatea!
 ¡ceñ gogoco zaitudan! Zurequin bat
 eguiñ, eta laztanduric bici eta hill
 nai det; zure atseguña da nere
 atseguña eta zuc gogo dezuna nic
 izatea nai det. Nere Jaungoicoa,
 nere Jaungoicoa, lagun zadazu:
 aurreronzean bici eraci nazazu ba-
 carric zuretzat, bacarric zure on-
 tasun ondogabea maitetzeco. Hill
 nadi ni zure amoreagatic, zu niga-
 tic hill ciñan ezquero. Gorroto diet
 zure borondatea utzi eta nere
 eguin nuen egun ayei. Maite zaitut,
 ó nere Jaungoicoaren borondate

santua, Jaungoicoa bera bezaimbat,
ceren Jaungoico bera ceran: biotz
biotzetic maite zaitut eta naicen
guci au zuri ematen naitzazu. *Go-
gozco Comunioa.*

MARIA GUCIZ SANTARI

X BISITA.

Agur Maria, graciaz betea, Jau-
na da zurequin. Agur, atseguin con-
tentuen jatorria, bada zure bidez
zure Semeac gure condenaciooc
sentencia urratu, eta bendiciozcora
aldatu zuen. Agur, ó Jaungoicoaren
gloriaren jarlecu, eta ceruco Erre-
guearen eche sagradua. Zu cera Je-

sucristogan Jaungoicoarequin guizónen arteco paquea. Agur, ó gure poz atseguinaren Ama; eguiatz zu cera bedeincatua, ceren bacarric zu izan ciñan emacume gucien artean gure Eguillearen Ama izatea merecitu cenduena. Zori onecoa deitzen dizute guciac jó Maria! Zugan ipintzen badet nere ustea, irichico det nere salbadoraco bear dedan gucia. Zuc gordetzen nazuneraño ezdet ceren beldur izan, bada zure deboto eguiatzcoen contra ecer ez dezaque gure etsayac.

XI BISITA.

—

Ez dezagun aldeguin albait gure

Arzai amoretsu Jesusen ondotic, esaten zuen Santa Teresac, ceren, nola béren arzayaren ondoan dabilzan ardi ayec obeto beguiratuac, zaituac eta maneatuac izaten baitiran, ala guc ere mesede andiagoac artuco ditugun Jesusi Sacramentu orretan, alderatzen gatzaitzan bacoitzean. ¡Ah nere Erosle Sacramentatua! Ona nun naucazun cere ondoan: eztizut escatzen beste mesederic, ezpada zu serbitzeco gogo bici bat, eta zuganaco amorean irauteco gracia.

Milla ta gueyago esquer eta alabanza zuri, ¡ó fede santua! zuc alabaña eracusten didazu, eztagoela Aldareco Sacramentu jaungoicozcoan, ceruco ogui orretan oguiric, ezpada Jesucristo nere Jaun gucia.

eta dagoela nere amorez. Nere Jaun eta ondasun bacarra, ondo sinisten det, zu Sacramentu orretan zaudela, eta gorputzaren beguiatz icusten ezpazaitut ere, fedearen arguitasunaz ezagutzen zaitut Hostia consagratuan ceru-lúrretaco Erreguetzat, eta munduaren Salbatzaletzat. ¡Ah nere Jesus gozoa! nere uste eta esperanza, nere salbacioa, nere indarra, eta nere poz-atseguina ceran becela, izan zaite nere gogoracio, zale eta deseo gucien gai bacar ere: atseguinago det zuc orañ dezun, eta beti izango dezun zori on esan albaño andiangoaz, naiz mundu onetan eta naiz bestean neronec izan al ditzaquedan on guciaz baño. Zure zoriona azqueengabea dala jaquitea da nere atseguinen

andiena. Izan zaite zu nere anima-
ren Jabe bakar; zuri ematen dizut
dan gucia, betico zurea izan dediñ.
Nere nai, nere sentidu, nere al-
izate eta indarrac, zure amoreari
uzten diozcat guziac, eta zuri atse-
guin eguiten eta gloria ematen ez-
pada mundu onetan jardutea nai
ezdet. Au izan zan mundu onetan
zure bicitza, jó Jesusen lenengo
maitatzalle eta Ama guciz santal
Lagun zadazu bada gaurdanic ba-
carric Jaungoicoarentzat bicitzen.
Gogozco Comunioa.

MARIA GUCIZ SANTARI

XI BISITA.

i **Q** Ama erruquitsua! goza zazu
 zure Semearen aserrea. Zu zauzca
 mundu guciac gucion laguntzallet-
 zat ceruaren goyen orretan. Lagun
 zaguzu bada arren, ó doncella gu-
 ciz santa, zure erreguaquin, mun-
 duco ondasun guciac baño maite-
 garriago diran erreguaquin, gure
 pecatuac barcatzera Jaungoicoa be-
 rà beartzen duten, eta graci guciz
 ugariac iristen dizquiguten erregu-
 aquin, gure etsayac urrutiratu, eta
 orien asmo galgarriac ecerezturic
 beren eguiñal gaizto guciac azpi-
 ratzen dituzten erregu oriequin
 Jaunaren aurrean.

XII BISITA.

Jesus maite duena, Jesusequin dago, eta Jesus arequin. San Felipe Neric, hiltzen cegoela, Sacramentu santua eramán ciotenean, deadar eguin zuen: *ona emen nere amoreá; ona nere amoreá emen.* Guc ere esan dezagun, bada, Jesus Sacramentatuaren aurrean: *Ona emen nere amoreá, ona emen nere pensa-bide eta arazo gncien gai bacarra.* ¡Ah nere Jaun eta Jaungoicoa! Zuc esana da cere Evangelioan, zu maite zaituena zuc ere maiteco dezula, eta beragana etorríco cerala bicitzera; bada nic maiteago zaitut ondasun guciac baño, zuc ere maite

zan nazazu, Jauna, orañ ceren
 ascoz nayago dedan zure maite
 izan, munduco Erregue gucien ba-
 ño: atoz, Jauna, eta ipiñi zazu zure
 bicilecua nere animaco eche po-
 brean, nigandic iñoiz ere aldeguin-
 go eztezun eran, edo, obeto esate-
 co, nic zugandic beñere aldeguingo
 eztedan guisan. Zu. Jauna, etzera
 iñoiz ere irteten zure creaturagan-
 dic, baldin berac pecatuaren bidez
 botatzen ezpazaitu; eta nola lenago
 aimbeste bider bota baizaitudan ne-
 regandic, beldur naiz berriz ere
 ezbear au guerta daquidan. ¡Ah!
 arren ez bedi guertatu munduan
 onelaco gaiztaqueri izugarri, eta
 esquer belz itsusiric, nola litza-
 quean, nic zure ontasunagandic
 aimbeste mesede eta on artu, eta

nere animatic zu berriz botatzea.
 Baña, ¡ay eta berriz ere au guerta
 litequeala! Betor lenago, Jauna,
 zuc ala nai badezu, heriotza, zure-
 quin batuta hill, eta guero zurequin
 batean bici nadiñ secula gucietan.
 Bai, nere Jesus, au nai eta espera-
 tzen det. Maita zaitut, bada, nic,
 Jauna, eta maite izan nazazu beti.
 ¡Ah nere Erredimitzalle maitagar-
 ria! nic beti maiteco zaitut eta zuc
 beti maiteco nazu: beti beti alcar
 maiteco degulaco ustean nago. *Go-
 gozco Comunioa.*

MARIA GUCIZ SANTARI

XII BISITA.

—

¡**Q** nere Erreguiña eta nere Jaungoicoaren Ama! Humiltasunic andienaz zure aurrean auspeztu, eta escatzen dizut, irichi zadazula nere pecatuen barcacioa, eta nere bici gucian eguin ditudan gaiztaqueri gucietatic garbitzeco gracia, amore garbi baten bidez nere Jaungoicoarequin eta zurequin baturic, hura nere Jaungoicoa becela, eta zu nere Jaungoicoaren Ama becela; zure Semea nere Eroslea becela, eta zu nere erospenaren laguntzallea becela serbitzeco; bada gu diabruaren escupetic ateratzeco bear zana

arc pagatu bazuen, zure sabel gar-
bian artutaco gorputzarequin paga-
tu zuen.

XIII BISITA

Orrera beguira egongo naiz, eta
or ipiñico det nere biotza egun gu-
cietan (3 Reg. q.) Cere ona nai de-
zun anima, adi zazu Jesusec gau ta
egun gurequin egoteco ipiñi duen
Sacramentu orretan eguiten dizun
promes zoragarria. ¡Ah nere Jauna!
¡Nombait etzan asco zu Sacramen-
tu orretan gueratzea egunaz, norc
adoratu, norc hitzeguin izan cen-
tzaquean garayan, baicic gañera,
nai izan cenduen gueratu gauaz,

guizónac elizatic irten, eta zu bacarric utzi, eta béren echetara joan oi diran sasoyan ere!!! Baña iguertzen dizut: guri diguzun onguinayac etzizun utzi gu puntu batean ere bacarric uzten. ¡Ah nere Salbatzalle gucziz maitagarria! bacarric zure amorearen pintasun onec beartu bear lituzque guizon guciac beti edo al gucian elizan egotera, eta andic irtetean ere béren biótzac eta gogo guciac an uztera, alabaña au eta gueyago mereci du gugandic, gure premiatic icusi, eta estaltzeco beti gure beguira aldarean dagoen Jaungoico guizon-eguiñac.

Bai, nere Jesus, aurreronzean eguin nai dizut orretan atseguin: bertatic ematen dizquitzut nere nay

eta gogo guciac. ¡O Jaungoico baten anditasun baztergabea! Zuc Sacramentu orretan gueratu nai izan cenduen, gure artean egoteagatic ezeccic, ceran guci ori anima leyalai emateagatic ere. Baña ay, Jauna, ¿nor benturatuco da zure mayera alderatu, eta zure araguaia jatera? Baña bestera ¿norc aldeguin lezaque zure gombit jaungoicozco onetatic? Zu oguiaren antz-irudien estalquipean gordeta zaude Sacramentu orretan, gure barrenen sartu, eta gure biotzen jabetzeco: guc zu artutzea da zuc nai cenduqueana, gurequin batu zaitean. Atoz, bada, atoz, nere Jesus, nere barrenen artu nai cinduquet biciro, nere biotz eta borondatearen Jaun eta Jabe eguin zaitean. Nere alde-

tic danez, eguin beguiote toqui zure amoreari atseguin contentu, borondate eta nigan arquitzen dan guciac. ¡O nere Jaun amoretsu lazta-na! Erreina zazu nigan; eraguin zazu nai dezun gucia: deseguin zazu nigan zurea eztan gucia. Ez dezala berriz itsutu, arren, munduco creaturaganaco amoreac comunio sagraduan zu arturic, zure Anditasun jaungoicozcoz betea dagoen nere anima. Maite zaitut, nere Jaungoicoa, maite zaitut, eta beti maite izan nai zaitut. *Gogozco Comuuioa.*

MARIA GUCIZ SANTARI

XIII BISITA.

¡**Q** Maria gozoa! ondo daquit zu cerala creatura gucien noble, goratu garbi, on, justu eta maitagarriena. ¡O eta baldin mundu guciac ezagutzen eta amatzen bacindu zuc mereci becela! Nic beintzat maite izan nai cinduzquet; baña ezagutzen det zuc mereci bezañ maite etzaitudala. Irichi zadazu, bada, gaurdanic amore eguiazco bero eta irauncor batequin zu maitatzeco gracia. Baldin eguiaz maite bazaitut, salbatuco naiz, ceren au dan salbatzeco siñaleen ónenetatic bat, eta bacarric ceruraco autuac dau-

denai Jaungoicoac ematen dien gracia bereci bat. Erregu zazu, bada, ó Maria, erregu zazu nigatic, nere Jaunaren adisquidetasuna iñoiz ere galtzeko beldurgabe eta secula gucietan bera eta zu maitatzen ceruan icusi nadineraño.

XIV BISITA.

Au da betico nere descansua: emen izango det nere bici lecua; auqueratu nuania. (Psalm. 131.)
 Jaun maitagarria! Zuc gure artean aytu badezu zure vici lecua, Sacramentu adoragarri orretan jarriaz, eta guri diguzun onguinayac arqui eraguin badizu emen cere atsedeen lecua, gauza zucen eta guciz bidez

coa da gure biotzac ere amorearen bidez beti zurequin bicitzea, eta beren atseguin contentu guciac zurequin arquitea. ¡Zori onecoac zuec, Jesus Sacramentatuaren aldean egotea beste descantsuric munduan arkitzen ez dezuten animac! ¡Zori onecoa nitzaque ni ere, Jauna, baldiñ gaurdanic zure Biotz biguñ orrequin batu, eta beti zu serbitzeco, alabatzeco, eta zuri atseguin eguiteco contu andi bat iduquitzea beste pocic arkitzen ezpanu.

¡Ah nere Jesus gozoa! ¡Nola galdu ditut aimbeste urte zu maitetugabe! ¡Zori gaiztoco urteac! gorroto dizuet. ¡O nere Jaungoicoaren eraman neurrigabea! alabatzen eta adoratzzen zaitut, ceren añ esquer-gabea izan naicelariac ere aimbeste

urtean icheden didazun. Zuc, nere Jesus, icheden didazu; baña ¿certa-
 co ote? Zure eraman andi eta amo-
 reac beartuta, noizbait zugana biur
 nadiñ. Bada gueroraco utzi nai ez
 det: ez det izan nai gueyago zuga-
 naco esquer gaiztocola. Arrazoi da
 aurreronz guelditzen zadan dembo-
 ra gucia, guchi edo asco izan de-
 dilla, bertatic zuri ematea. Uste
 det, Jauna, lagunduco didazula oso
 zurea izaten. Aimbeste nai izan ba-
 didazu zugandic igues ibilli naice-
 nean, eta zure amorea despreciatu
 dedanean, ¿utzico nazu orañ zu
 billatzen zaitudanean eta eguiaz
 maite izan nai zaitudanean? Ez det
 uste onelacoric zure urricaltasun
 baztergabeagandic: indazu bada zu
 maitatzeco gracia ¡ó amore neurri-

gabea zor zatzun Jaungoicoa! maite zaitut biotz biotzetic; maite zaitut gauza guciac baño gueyago nere burua eta nere bicia baño maiteago zaitut. Guciz damu det zu ofenditu izana jó ontasun azquengabea! barca zadazu arren, eta barcacioarequin batera indazu bicitz onetan nere eguiñal guciac, eta bestean secula gucietan zu maitatzeco gracia. Aguer zazu munduan, jó gucia dezazuquean Jaungoicoa! mirari andi au, nola ere litzaquean nere anima bezañ esquergabe bat zure maitatzalle eguiazcora biurtzea. Eguizu au arren zure merecimentu ondogabeacgatic. Ala nai nuque, eta ala eguiteco gogua daucat nere bici gucian. Gogo ta zale an zuc ematen dizquidatzun ezque-

ro betoz onela eguiteco indarrac.
Gogozco Comunioa.

MARIA GUCIZ SANTARI

XIV BISITA.

Geru-lurretan Jaungoicoac eman
cizun escu andi guciracoagatic es-
catzen dizugu Virgiña guciz santa,
erruqui zaitela guzaz. Irichi za-
guzu lembaitlen Jaungoicoac, zure
sabelean guizon eguinta, irabaci
cigun zori ontasun hura. Ar itzazu
arren ecertan gure erregúac. Zuc
escatzen badiozu au cere Semeari,
bertatic adituco zaitu. Asco da zuc
ciñez ta benaz gure salbacioa nai
izatea, guc, salbatzeco bear dan

gucia zure Semearen merecimentuen bidez eguiteco. Orañ bada, Ama maitea, ¿norc esan norañocoa dan guri diguzun urricaltasuna? Eta baldiñ zu erruquitzen ezpacera guzaz, izanic zu erruquizco Ama, ¿cer izango da guzaz, zure Semea gucioc juzcatzera datorrenean?

XV BISITA

Aita Francisco Olimpio benegarriac esan oi zuen, eztala munduan Jaungoicoaren amorezco sua guizónen biotzetan biciroago iciotzen duen gauzaric, nola ta Aldareco Sacramentu santua. Orregatic aguer tu citzayon Senaco Santa Catalina-

ri Jauna jaungoicozco sugar biciac
 mundu gucitic zabaltzen cituen
 amorezco su andi baten antzean,
 gueratuaz Santa arrituric pensat-
 zen, nola guizónac bici al citez-
 quean amorez sutugabe sutegui
 jaungoicozco onen erdian. ¡Ay nere
 Jesus! icio nazazu zure amorean.
 Etzadazu utzi pensatzen, nai iza-
 ten, deseaten edo billatzen zuzaz
 osteronzeco beste ondasunic. ¡Zori
 onecoa ni, baldin su jaungoicozco o-
 nec arrapatzen banindu! ¡milla bider
 zori onecoa, baldin nere urtéac iga-
 roaz dijoacen becela, lurreco zale
 eta deseio eragabe guciac ere aituz
 balijoazquit! ¡O nere Jesus! bada
 niri didazun amoreagatic guci ori
 sacrificatua, guci ori ecereztua
 icusten zaitut Aldare orrëtan; gau-

za guciz bidezcoa da zu amorezco
 ofrenda eguiñic nigatic escañtzen
 ceran becela, ni ere zure serbitzu-
 ra oso ematea. Bai, nere Jaungoico
 eta Jabe bacarra. Bertatic escañt-
 zen dizquitzut nere anima, nere nai
 eta gogoa, nere bicia eta naicen
 eta dezaquedan gucia. Nere ofren-
 da labur au jó Aita Eternoa! zure
 Seme eta nere Salbatzalle Jesucris-
 toc gurutzean eguin cizun eta
 egun oro aimbeste bider Aldarean
 eguiten dizun sacrificio edo ofren-
 daric andienarequin batera eguin
 nai nizuque: ontzat ar zadazu,
 Jauna, ofrenda au nere erredimitza-
 lle jaungoicozcoaren merecimen-
 tuacgatic, eta indazu nere sacrifi-
 cio au egunoro herritzeco, eta zure
 amoreagatic eta serbitsuagatic ne-

re burua sacrificatuaz hiltzeco gracia. Aimbeste martiri santuri eman ceñien zure amoreagatic hiltzeco graci hura nai nuque nic ere: baña onembeste mereci ezpadet, guchienaz utzi zadazu, beintzat zuri nere bicia gogo osoaz escañtzen, zuc bialtzen didazun heriotz hura onez artuaz. Jauna, eguin bear didazu arren mesede au: zu honratu eta zuri atseguin eguiteco gogoarequin hill nai det; eta berealatic uzten dizut nere bicia, esqueñiaz, dan becelacoa dala, nere heriotza. *Go-
gozco Comunioa.*

MARIA GUCIZ SANTARI

XV BISITA.

Lagun zaguzu, jó Ama urricalt-sua! gure pecatu andiacgatic atzera-tugabe. Gogora zazu nola gure E-guillea eguin zan guizon zure sabel garbian, ez peccatariac condena citecen, ezpada salba citecen. Bacar-ric cere honra eta gloriaraco eguiñ izan baciña Jaungoicoaren Ama, be-ar bada ezan citequean, guchi cijoa-quizula peccatariac salbatzean edo condenatzean; baña zure salbacioa-gatic eta gureagatic jantzi zan Jaungoicoa zure araguiz. ¿Ger ba-lioco liguque escubidez eta gloriáz añ betea zu egoteac, zure zorion-

tasun orretan guc parteric ez izatera? Lagun zadazu, bada, eta gorde gaitzazu. Zure laguntzaren ceñbear gueran, ongui daquizu. Zugana gatoz: Jaungoicoari nai ez daquiola gu condenatzea, ezpada beticotasun gucian zure Seme Jesucristo serbitzea eta maitatzea.

XVI BISITA

¡**O**h eta baldin beti Sacramentu guciz santuagana baletoz guizónac beren gaitzen sendagarriaren billa! Ez liraque izango diran bezañ doacabeac. Jeremiasec negarrez cion: *¡Ez ote da Galad-en uquendu edo balsamoric, edo ez ote da emen me-*

dicuric: (Jer. 8.) Galaad da Arabiaco mendi bat, usai gozozco uquenduz betea, eta Beda benegarriac dion becela, gure gaitz gucien sendagayac Sacramentu guciz santuan prestaturic dauzcan Jesucristo adirazten duena: ¡O Adanen uméac! dirudi bada gure Salbatza lleac diola: ¡Cergatic espatzen cerate ceron gaitzaz, iduquiric Sacramentu onetan zuen medicua eta naigabe gucien sendagarria? Atozte nigana munduco neque-pénen azpian zauten gucioc, eta nic arinduco dizquitzuet zuen naigabe eta nequeac. ¡Ay nere Jauna! esan bear dizut Lazaroren arrebarequin: *be-
guira, ona non dagoen gaisso zuc
maite dezun hura.* Ni naiz, Jauna
zuc maite dezun gaissoa: nere peca-

tu izugarriac eguindaco zauriz be-
tea daucat nere anima, eta zugana,
ó nere medicu Jaungoicozcoa, zu-
gana nator nere osasunaren billa.
Zuc nai badezu, sendatuco nazu:
*senda nazazu, bada, arren ceren
zure contra pecatu eguin dedan.*

Ceregana nazazu, nere Jesus
maitea, cere amorearen gozotasu-
naz: nayago det zure biotzarequin
batua egon, mundu guciaren jabe
izan baño, Ezdet nai mundu onetan
beste ecer, ezpada zu maitatzea.
Utsa edo gucziz guchi da nic eman
al neguizuquedana; baña munduco
erreinu gucien jabe éguin al banedi
bacarric guciac zure amoreagatic
uzteco naico nituzque. Berealatic
uzten dizut, Jauna, naicen gucia,
dedan, eta dezaquedan gucia; ai-

deac, adisquideac, atseguin-conten-
tu eta espirituco consuelotarañoco
gucia. Zure escuetan uzten ditut
nere libertadea, nere nai eta gogo
guciac. Maite zaitut, ondasun neur-
rigabea, nere burua baño maiteago
zaitut, eta beticotasun gucian mai-
teco zaitudala, uste det. *Gogozco
Comunioa.*

MARIA GUCIZ SANTARI

XVI BISITA.

Q Doncella guciz santa! lagun
zayezu zure laguntza esque daude-
nai: beguira zaguzu ó Ama biotz
beraa. ¿Aztu ote cindezque guzaz

Jaungoicoaren Ama ceralaco? Ez or-
relacoric. Ondo daquizu cembat
labañ-arriren artian bici gueran,
eta egoera ceñ negargarrían zure
serbitzariac arkitzen diran. Zure
urricaltasun andia becelaco bati
eztagoquio, bada, gure miseri an-
diaz aztutzea. Atzera zazu cere es-
cu indartsuaz gure etsayen arrabi
amorratua: bada zuc biciro lagun-
tzen badiguzu, iñoiz ere azpiratu-
co ez gaituzte, cerren gucia deza-
quean Jaun arc escubide guciz an-
dia eman cizun ceru-lurretan, eta
cembat altsuago, aibat andiagoa
da zure uraicaltasuna.

XVII BISITA.

Alcar maite dutenac ezdute ar-
 quitzen ecertan poz atseguñagoric
 alcarrequin egotean baño. Baldin
 Jesucristo gucz maité badegu, e-
 men gaude bere aurrean. Sacramen-
 tu onetan Jesucristoc icusten gaitu,
 aditzen gaitu, eta ¿guc cerbait e-
 sango eztiogu? Poztu gaitéan orañ
 bere laguntasunarequin, atseguin
 zagun beraren gloriáz, eta aim-
 beste animac Sacramentu onetan
 dioten amore sutu arzaz. Guticia
 dezagun guciac Jesus Sacramenta-
 tua maitatzea, eta béren biótzac
 Jaun oni esqueñtzea: beintzat, guc
 eman zayozcagun gure gogo eta


deseo guciac, gure deseio eta amore
bacar gaurdanic Jesus izango dan
eran.

Aita Salesio, Sacramentu gucziz
santuaz hitzeguiten aditzean, poz-
atseguñez cordegabetua gueratu oi-
zan: bera bisitatzeaz eciñ asper-
tu zan; eta naiz atera deitzen zute-
nean, edo naiz celdara itzultzen
zanean, Jesus maiteari bere icusal-
dia eguiteco derecha galtzen et-
zuen; alatan nun, icusaldi orí eguin-
gabeco orduric egun gucian igaro-
tzen ez al citzayon; eta gueroenean
Sacramentu onen eguia gordeaz fe-
degabeen atzaparretan martiri hilt-
zea merecitu zuen. ¡Ah nic ere izan
al baneza, Jesus maitagarria, guri
diguzun amorearen anditasuna adi-
razteco ipiñi cenduen Sacramentu

onen eguiatasuna on-eguiteagatic
 hiltzeco dicha! Baña, nere Jauna,
 Sacramentu onetan aibeste mirari
 eguiten dituzun ezquero, orañ bes-
 te berri bat eguizu: eracar naza-
 zu oso zugana: indazu nere gogo
 guciatz zu maitatzeco indarra: nai-
 zunari eman guiozcatzu munduco
 ondasúnac, bada nic guciac uzten
 ditut: zure amorea da nic nai eta
 guciz deseo dedana. Au da orañ
 escatzen eta beti escatuco dizuda-
 na. Maite zaitut, ene Jesus, indazu
 zuganaco amorea, eta ecer gueya-
 go escatuco ez dizut. *Gogozco Co-
 munióa.*

MARIA GUCIZ SANTARI

XVII BISITA.

¡ Jaungoicoaren Ama! badaquit guciz biguña cerala, eta amore er-ruquitsu batez maite gaituzula: ¿cembat bider gozaten eztezu gure Juezaren aserrea, guc mereci ditugun cigorradac guera eraciaz? Zure escuetan daude Jaungoicoaren urricaltasunen ondasun guciac ¡Ay béren pecatuaz damuturic zugana datocen errucarríac salbatzeco, eta zuc daucazun gloriaz gozatzera eramateco era eta derechic beñere galtzen eztezun Ama maitea! lagun zaguzu beti or cerutic, bada Jaungoicoaren arpeguia icusteaz eta

Jaungoicoaz gozatzeaz osteroncean izan al guentzaquean gloriaric andiena, secula gucietan zu icustea eta maitatzea, eta zure estalpean egotea da iñolaz ere. Enzun itzazu orañ gure erregúac, escatzen diozun gucia emanaz zure Semeac honratu nai zaituan ezquero.

XVIII BISITA.

Jesusristo magestadezco tronu batean jarrita aguertuco da egunen batean Josafat deritzan celayan; baña orañ amorezco tronu batean jarria dago Sacramentu santuan. Baldin Erregue bat arzaicho bati dion naitasuna aguertzeco etorrico


balitzayo oni bere echolara an bicitzera, ¿ceñ esquer beltzecoa ez litzaque izango arzai au, gucziz sarritan icusico ezpalu Erreguea, jaquiñic berarequin egoteagatic etorri zayola echol artan bicitzera? ¡Ay nere Jesus! ondo daquit niri didazun amorez etorri cerala Aldareco Sacramentu gucziz santuan egotera; ondo nai nuque bada, al baneza, gau ta egun beti zure aurrean emen egon; bada Ainguerúac bérac jó nere Jauna! arrituric badaude emen guri diguzun onguinavaz, gucziz justu ta bidezcoa da, zu nere amorez aldare orretan icusiric, ni ere zuri atseguñ eguitera sayatzea, niri aguertzen didazun amore eta ontasuna zure aurrean goratuaz, emen egotearequin bederic. *Alaba-*

tuco zaitut Ainguerien aurrean; joango naiz zure eche santura zu adortzera, eta zure icen santuari eskerac ematera zure urricaltasun eta eguiagatic. (Psalm. 137.) ¡O Jaun Sacramentatua! ¡ó aingueruen oguia! ¡ó janari jaungoicozcoa! maite zaitut; baña ez zu eta ez ni asetzen guera nere amcreaz; maite zaitut, bai, baña chit guchi: zuc ezagutzera eman zadazu nic maite dedan ondasun baztergabearen edertasuna, Nere biotzac lurreco naitasun guciac erabat utzi, eta toqui eguin bizayo bacarric zuganaco amore jaungoicozcoari. Zure ontasun zoragarriaz itsu nadiñ, eta nere animarequin bat eguin zaitean jesten cera zu egun oro cerutic gure aldareen gañera: arrazoi andia da, bada, nic

ere maitatzecoa, adoratzecoa eta zuri atseguin eguitecoia beste arreta eta quezcaric ez iduquitzea. Maitezaitut nere anima guciaz, eta nere gogo guciaquin: eta baldin amore au ordaindu nai badidazu, Jauna, indazu amore gueyago, zure amorean gueyago berotuco nauen, eta zu beti serbitzera, serbitu nai izatera, eta zuri obeditzera beti bear-tuco nauen amorearen berotasun gueyago. *Gogozco Comuuioa.*

MARIA GUCIZ SANTARI

XVIII BISITA.

!  gure Erreguiña! Jaungoicoac

gracia guciac ematen dizquitzu.
Graciaz betea deitzen cera, ceren
Espiritu Santuaren obratz sortu zan
zure sabel garbian zure Semea. En-
tzun itzazu, bada, jó Ama maitea!
gure erregúac, eta oroi zaite gu-
zaz. Isur itzazu gure gañera zure
ondasunac, eta iguizcutzu zuc añ
ugari dituzun graci orietatic. Gra-
ciaz betea deitzen dizu Ainguervuac
bere agurrarequin batera: zori one-
coa deitzen dizu mundu guciac; eta
guc chiqui eta andi, gucioc esango
dizugu: agur jó graciaz betea! Jau-
na da zurequin, erregu zazu guga-
tic, jó Jaungoicoaren Ama, gure
Erreguñ eta Ama Andrea.

XIX BISITA.

Eztago gauz atseguinagoric, nor bere adisquideen andienarequin egotea baño: eta jez da izango guretzat esan al baño atseguingarriago negarrezco bicilecu onetan guc degun adisquideric leyalenarequin, ondasun gucia ematen dizquigunarequin, gueyeguirano maite gaituenarequin eta orregatic beti gure artean dagoenarequin egotea? Or hitzeguin deguioquegu, cernai ordutan zabal guiniozaque gure biotza, aguer guiniozcaque gure premia, eta esca guiniozaque bere gracia: hitzeguin guentzaque ceruco Erreguearequin, amorezco confianz oso-

az Sacramentu onetan. Zori onecoa izan zan nosqui José, araco (Escrítura Sagraduac dion becela), Jaungoicoa jechi citzayonean bere presondeguira, bera graciaren bidez consolatzera; baña ascoz zori obe-coac guera gu, ceren laceriaz betetaco mundu onetan Jaungoico guizon-eguiña bera beti gure artean daucagun, guganaco aimbeste onguinai eta erruquiz beteric. ¿Cer poz atseguña preso dagoen gajo baten-tzat izango ezta, berarequin hitzeguitera, bera alaitzera, berari laguntzera, eta andic laster ateraco duen uste eta esperanza ematera sarritan dijoaquion adisquide bat iduquitzea? Ona bada emen gure adisquideen ónena, Jesucristo, bada berac Sacramentu onetan alait-

zen eta indartzen gaitu, esanaz:
 emen nago zuenganaco amorez:
 beste beargaigabe bacarric zuec
 poztutzeagatic, zuei laguntzeagatic,
 nator cerutic zuen presondegui o-
 netara: hitzeguidazute, batu zai-
 tezte nere borondateareguin eta et-
 zaituzte necatuco zuen neque-pé-
 nac, eta guero etorrigo cerate nere
 erreinura, eta an eguingo zaituet
 ecin gueyagoraño doatsu. ¡O Jaun-
 goicoa! ¡ó amore esan al baño an-
 diagoa! Zuc diguzun amorea, gure-
 quiñ egoteagatic zu gure aldaree-
 tara gesterañocoa dan ezquero, ber-
 tatic baliatu nai det zure mesedeaz.
 Eguin det zu maiz icusteco asmo
 sendoa, zure aurrean egoteaz, ce-
 ruan Santuac doatsu eguiten dituen
 aurre zoragarri orretan egoteaz, al


gucia gozà dezadan. ¡Ay beti egon al banedi emen zure anditasun jaungoicozcoaren aurrean zu adoratzan eta maitatzen! Nere naguitasunez, edo munduco arazóac dirala bide bisitatzen etzaitudanean, eracar nazazu contura. Indazu beti emen zure ondoan egoteco zale eta eresi andi bat. ¡Ah nere Jesus amoretsua! ¡Ay betí maite izan bacin-dudan! Alere orañ nere pocic andiena da, oraindic ceruan ezecic lurrean ere zu amatzeco dembora badedala, icustea: bada ala eguin nai det. Maitatu nai zaitut eguiatz, nere ondasunen andien, nere amore, nere aberastasun eta nere gauza guciac cerana, maitatu nai zaitut nere al eta indar guciatz. *Go-
gozco Comunioa.*

MARIA GUCIZ SANTARI

XIX BISITA.

Eracar nazazu ceregana, ó Maria Doncella, zure usai gozozco lurrunen ondoren ibilli nardia. Eracar nazazu, bada nere pecatuen carga pisuac eta nere etsayen gaiztaqueriac galerazten didate zureganatzea. Zu cera jaquintasun eguiazcoa eracusten dezuna: zu peccatariai gracia iristen diezuna, ceren beren bitartecoa ceran. Zu cera, azque nic, honratzen zaituztenai gloria esqueñtzen diezuna, zu ceralaco Jaungoicoaren Tesoro aberats eta bere ondasunen zabaltzallea.

—99—
XX BISITA



Egunen batean izango da, Daviden echean Jerusalem tarrentzat, agortzen eztan iturriabat; peccataria an garbi dediñ. (Zac. 13.) Jesucristo Sacramentuan da guztientzat beti idiquia dagoen iturria, egun oro eguiten ditugun peccatuen loi gucietatic gure animac nai degunean garbitzeco. Utseguiteren batean erortzen gueranean, jah sendagarri ceñ egoquia dan Sacramentu orretara joatea! Bai, ene Jesus, beti ori eguiteco asmoa daucat, eta aimbat gogozago, cembat ere daquian iturri onetaco úrac garbitu ezecic, arguitzen ere nautela; gañera ema-

ten didatela ez berriz erorteco eta nere griña macúrrec escuratzeco indarra, eta berotzen eta muguitzen nautela zu maitatzera. Badaquít onetaraco zaudela nere bisiten beguira, eta maite zaituztenen bisitac gracia guciz ugariaquin pagatzen dituzula. ¡Ah nere Jesus! erruqui zaite peccatari andi onezaz: garbi nazazu gaur eguin ditudan utseguite gucietatic: damu det oyequin zu ofenditua: indazu berriz ez erorteco gracia; eta icio zazu nere animan zu gogotic maitatzeco zale ta deseo bici bat. ¡O ceñ legoquean beti zure ondoan, Santa Teresaren demboraco zure serbitzari leyc María Diaz becela, ceñabaita, Avilaco Obispo Jaunac eliza bateco tribunan bicitzeco baimena eman, eta an egon oi

zan beti, Sarramentu gucziz santua-
ren aurrean, confesatzera eta co-
mulgatzera cijoanean, baicic iñoiz
ere andic aldeguingabe. Aita Fran-
cisco de Jesus, Sacramentu gucziz
santua cegoen elicen baten ondotic
cijoanean, ecin igaro oi zan aurrere-
ra, Jauna icustera sartugabe; eta
esan oi zuen, lotsagabequeri andia
zala adisquide bat bestearen atadi-
tic, bera icustera edo berari agur
bat eguitera bederic sartugabe iga-
rotzea; baña bera onembestez ase
oi etzan, baicic an egon oi zan al
zuen gucian beti bere Jesus Sacra-
mentatu maitearen aurrean. ¡Ah ne-
re ondasun bacar neurrigabea! Ba-
daquit nic ama zaitzadan ipiñi cen-
duela Sacramentu ori, eta zaudela
Aldare orretan; eta onetaraco eman

didazula, zu ama zaitzaquean biotz bat. ¿Cergatic etzaitut bada maite nic, esquergabe onec, edo cergatic añ guchi maite zaitut? Ez, ezta ondo orrelaco ontasun maitagarria guchi eta azaletic maitatzea. Zu izanic azquen eta ondogabeco Jaungoico bat, eta ni lurreco ar ecerez bat; ecer asco ez litzaque ni orañ zugatic hiltzea, nigatic hill, nigatic Sacramentu orretan gueratu, eta nere amorez egunoro gure aldareen gañean sacrificatzen ceran orregatic bicia galtzea. Guciz maite izatea mereci dezu, Jauna, eta nic guciz maite izan nai zaitut. Lagun zadazu bada nere deseo on au betetzen: lagun zadazu zu maitatzen, zure gogoco dan eta nic eguitea nai dezun gucia eguiten. *Gogozco Communioa.*

MARIA GUCIZ SANTARI

XX BISITA.

i **Q** Doncella gucziz gozatsua! Zuc
 arquitu cenduen eguiaz gracia Jaun-
 goicoaren beguietan, ceren izan
 ciñan jatorrizco pecatuaren loiric-
 gabe sortua, Espiritu Santuz betea,
 eta beraren mirariz Jaungoicoaren
 Semea cere sabel garbian artu cen-
 duena. Graci guci oyec eman cit-
 zaizquizun, zuretzat ez ecic guret-
 zat ere, gure naigabe eta estura
 gucietan guri laguntzeco. Eguiaz
 ala eguiten dezu, jó Ama maitea!
 bada laguntzen diezu justuai, Jaun-
 goicoarequin ondo egoten lagun-
 duaz, eta gaiztoai oyec Jaunare

urricaltasuna escatzera muguiera-
 ciaz, eta urricaltasun au artzeco
 prestatuaz: laguntzen diezu hiltzen
 daudenai, estura triste artan de-
 monioaren engañuetatic gordeaz,
 eta laguntzen diezu hillondoan, be-
 ren animac artu, eta ceruco gloria-
 ra eramana. ¡O Maria guciz urri-
 caltsua! Zorionecoa zu serbitzen
 zaituena, eta bere uste gucia zuga
 ipintzen duana.

XXI BISITA

=

Mundua requin batera eguin zuen
 Jaungoicoac lurreco paradisuaren
 erdian ibai andi, edo ur garbizco
 iturri bat, baratz artaco landare

ta belarrac busti eta errepre-
 zeco (Gen. 2.) Eraberean ipiñi du,
 dio S. Juan Grisostomoc, eliz e-
 guiazcoaren paradisoan ere Sacra-
 mentu guciz Santuaren iturria, gure
 animac busti eta prescatuaz, bertu-
 tezco lore edérrac eta santidadezco
 frutu ugariac eman ditzaten. San-
 tuac orregatic etortzen ciran beti
 mundu onetan, Sacramentu jaun-
 goicozcoaren iturri onetara al zuten
 lasterren, egarri dan basauntzaren
 guisa, arquiteaz, emen béren gozo-
 tasun, poz eta atseguin contentu
 gucia. Aita Baltasar Alvarez, cer-
 nai beargaitan jardun cedilla, eciñ
 egon zan bere beguiac jaso, eta
 Sacramentu santua cegoen lecuronz
 beguiratugabe: guciz sarri eguiten
 ciozcan bere icusaldiac, eta iñoiz

gaw osoac igaro oi cituen icusaldi
 oyetan. Negar eguiten zuen icusi-
 ric nola, lurreco ondasun ecerez,
 galcor, eta egun guchiren buruan
 utsera biurtzen dan bat ozta eman
 lezaquean guizon bat honratzeco,
 munduco andizquien echeac gendez
 beteric egon oi diran; emen lurrean
 gueron artean amorezco tronu ba-
 tean jarriric, eta cabugabeco on-
 dasunez beteric bici dan Erregueen
 Erreguearen echea ascotan inõrga-
 be dagoen bitartean, eta negarrez
 esaten zuen: guczco dicha zala er-
 ligiosoena, bada béren echetic ir-
 tengabe bisita dezaqueela Jaun andi
 au, Sacramentu santuan, egunaz
 becela gauaz, gogo duten cernai
 ordutan.

¡Ah nere Jesus maitetsua! ni añ

esquergabea, ta zure amorearen iz-
piric mereci eztedana banaiz ere,
orrelaco naitasunaz deitzen nazun
ezquero, orañ etsi nai ez det nere
argaltasunari eta eguin ditudan
aimbeste peccaturi beguiratuta ere,
daquidalaco, zuc nornai peccatari
ondu dezazuqueala: ondu nazazu,
bada, ni peccatari gucien andien au:
sustraitic atera zaizquidatzu zure
gogoco ez diran amoreac; zuc nai
ez dituzun zale ta deseoa, eta zu-
re serbitzuraco eztiran gogoracio
eta asmoac. Bacarric zure gogoco
dana eguin nai det, nere Jesus,
nere amore, nere ondasun eta nere
gucia; bacarric zuri eman nai dizut
at seguiñ; bacarric zuc mereci dezu
nere amore; eta bacarric zuri nai
bear dizut nere biotz gucitic. Ur-

rutira nazazu zu ez beste gauza
 gucietatic, eta eguin zaite nerequin
 bat; baña secular zugandic aparta-
 tuco ez naicen eran, mundu onetan
 eta ez bestean. *Gogozco Co-
 munioa.*

MARIA GUCIZ SANTARI

XXI BISITA.

Emen natorquizu ni, jó guztien
 aoan urricaltsua ceran Ama! ¿Uca
 deguiequezu zuc peccatariai aimbes-
 te Jaungoicoac nai duen. eta beti
 pocic artzen duen zure bitartecota-
 suna? Ez bedi gueyago hitzeguin
 zure urricaltasunaz, ó Doncella san-

ta, dio San Bernardoc, baldin bere premia, estura edo naigabeetan deitu dizunen bat zuc aditu ta lagundugabe iñoiz ere gueratu izan bada. Eztidazu bada niri ere ucatuco zure laguntza, uste oso batequin escatzen dizudan ezquero. Ez, seguru nago neronec baño oraindic biciroago nigatic erregutuco dezulacoan; eta neronec esca al nitzaquean baño mesede eta on andiangoac Jaungoicoagandic irichico dizquidatzulacoan. ¡O Ama biotz beraa! ¡Munduguciac zugan arquitzen duen ontasun andi orrec uca leguiquet bere laguntza condenatzeco daucadan peligru andi onetan? ¡O Maria gozoa! oso zurea naiz, lagun zadazu nere anima gaissoa salbatzen.

XXII BISITA.

Esposa sagradua bere maitearen
billa cebillen, eta ecin topaturic,
arquitzen cituen guciai galdetzen
cien: *¿suertez icusi dezute nere ani-
mac maite duena? (Cant. 3.)* Or-
duan Jesus etzegoen munduan; ba-
ña baldiñ bera maite duen animac
billatu nai badu orañ, or arquituco
du beti Sacramentu guciz santuan.
Aita Avila maisu beneragarriac
esan oi zuen, etzala gogocoago
citzayon elizaric, Sacramentu gu-
ciz santua cegoena baño.

¡O amore neurrigabea mereci
duen, nere Jaungoicoaren amore
ondogabea! ¿Nola beeratu nai izan

dezu guizonaquin hitzeguiteagatic,
 eta oyen biotzaquin batutzeagatic
 oguiaren antz-irudien estalquipean
 gorderic egoteraño? ¡O Jaungoico
 guizon eguiña! gueyeguizcoa izan
 ciñan cere burua beeratzen, ceren
 gueyeguizcoa dan guri diguzun on-
 guinaya. ¿Nola nere biotz guciatz
 eta anima guciatz maiteco etzaitut
 jaquiñic nere anima ceretzeagatic
 eguin dituzun gueyeguiac? Maite
 zaitut nere eguiñal guciatz, eta ala
 nayago det zure atseguña, nere
 irabaci eta poz atseguin guciac ba-
 ño, zuri atseguin eguitea da nere
 poza, Jesus nere Jaungoico, nere a-
 more eta nere ondasun bacarra. Piz-
 tu zazu nere biotzean beti zure Sa-
 cramentuaren aurrean egoteco, Co-
 munion sagraduan zu maiz artzeco

eta beti zurequin egoteco zale eta
 deseoa andi bat. Zu, Jauna, beti dei-
 ca zagozquit aldare orretatic; eta
 esquer beltzeco nazcagarri bat
 izango nitzaque, baldin zure dei
 gozo atseguinai aranzungo ezpanie.
 ¡O nere Jesus! quen zadazu arras
 lurreco gauzacganaco gogo eta zale
 gucia, bada bacarric, zu nere Egui-
 llea, deseatu eta maitatu nai zaitut.
 Maite zaitut nere Jaungoicoaren on-
 tasun maitagarria, eta zuzaz oste-
 ron z ez tet nai beste ecer. Gaurda-
 nic oñperatuco ditut nere gogo,
 atseguin, eta zale guciac, bada
 gauza gucietan zuc gogo dezuna
 eguitea bacarric da nic nai dedana.
 Ontzat ar zadazu, ¡ó nere Jesus! zu
 amatu nai cinduzquean pecatari ba-
 ten deseoa au: lagun zadazu cere

graciarequin; eta oraindano ala zor-
rigaiztoan infernuaren mendean e-
gon naicen becela, eguin nazazu
aureronzean zure amorearen serbi-
tzari leyal. *Gogozco Comunioa.*

MARIA GUCIZ SANTARI

XXII BISITA.

=

¡**Q** Jaungoicoaren Ama! zure urri-
caltasunac eztu seculan desprecia-
tu bere pecatuaz damaturic zugana-
tu dan pecatariric. ¿Baña cer? ¿en-
gañatzen ote da Eliza santua zuri
bere bitartecoa eta pecatarien gor-
delecua deitzean? ¡Ah! ezteguiotela
nere pecatúac ipiñi beñere eragoz-

penic zure urricaltasunari, pecatari gaisoentzat estalpe segurua dan urricaltasun orri. Ez bedi guertatatu arren Jaungoicoaren Ama batec, misericordiazco iturria bergandic jayo zan Ama batec, bergana dijoan pecatari bati bere urricaltasuna ucatzea. Jaungoicoarequin guizónen arteco bitartecotasuna eguitea da zure beargaya; nere pecatu guciac ere gañez eraguin ecin dioten zure urricaltasun andi orrec mugui zaitza, bada, niri laguntzera, ayezaz biciro damutua nagoen ezquero.

XXIII BISITA.

Gristauac equin oi die bidaje luce,
necagarri eta peligru andicoai,
gure Salbatsalle maitea jayo zan,
Jaun onec bere Pasioa padecitu
zuen, eta bera hill zan lecu santu
ayec icustea beste eguinquizunga-
be. ¡O nola orien jayerac gure za-
bartasuna aguertzen duen! bada as-
cotan gueratzen guera gueron eche-
tic bertan daucagun elizan bici dan
Jauna bisitatugabe. Erromesac gu-
ciz estimatzen dute, dio san Pauli-
noc, Jesus jayo zan gambelatic edo
bera sartuta egon zan obitic ecar-
tzen duten lur piscabat: bada ¿no-
laco berotasunaz, cembaterañoco

zale eta deseoz joan bear ez guera
 Jesus bera eguiaz eta izatez dagoen
 Sacramentu guciz santua icustera,
 onetaraco alaco neque-arriscuric
 igaro bearric eztaucagun ezquero?
 Sacramentu guciz santuaganaco
 amore andia Jaungoicoac eman cion
 persona erligioso batec bere carta
 batean beste gauz ascoren artean
 dió: «Icusia daucat, Sacramentu
 «guciz santuagandic datorquidala
 «nere on gucia. Eta orregatic ni
 «oso eman eta ofrendatu natzayo
 «Jesus Sacramentatuari. Conta al
 «baño gueyago ondasun icusten di-
 «tut emangabe, ceren joaten eztan
 «Sacramentu jaungoicozco onetara
 «oyen billan. Ezagutzen det ceñ
 «andia dan Sacramentu onetan be-
 «re graciac emateco Jaungoicoac

«duen zale eta deseoa. ¡O Misterio
«santua! ¡O Hostia sagradua! ¿Cer-
«beste gaucetan aguertzen du Jaun-
«goicuac bere al eta escua hosti o-
«netan becela, bada emen arquit-
«zen da Jaungoicoac gugatic eguin
«duan gucia? Ez inbidiaric izan ce-
«ruco doatsúai, ceren emen lurrean
«gueroquin daucagun, amorezco
«aimbeste mirarirequin, ayec ce-
«ruan daucaten Jaungoicoa berà.
«Saya zaite al guciaz zurequin hit-
«zeguiten duten guciai Sacramentu
«oneganaco gogo andi bat ematera.
«Nic hitzeguiten det onela, ceren
«Sacramentu onec beraganaco amo-
«rean zoratuta naucan, eta ceren
«aimbeste amore mereci duen Sa-
«cramentuaz hitzeguingabe eciñ
«egon naicen. Nic eztaquit cer

«eguin, Jesus sacramentatuagatic.»
Onela azquentzen du bere carta.

¡O Ainguerúac! Zuec amore gozoz
erretzen zaute gure Jaunaren in-
guruan, eta ala ere ez zuecgatic,
baicic nigatic nai izan zuan gue-
ratu Sacramentu orretan ceruco
Erregue onec: utzi zadazute bada,
ó Aingueru amoretsuac, ni ere Sa-
cramentu orreganaco amorean icio-
tzen, edo ta iracequi nazazute zuen
amorezco su orretan, onela gucioc
alcarrequin sutu gaitean. ¡O nere
Jesus! ezagüeraci zadazu zuc gui-
zonai diezun amorearen anditasu-
na, orrelaingo amorea icusita, egu-
netic egunera gueitu daquidan zu
maitatzeco gogo ta zalea. Maite
zaitut, ó Jaungoico maitagarria,

bacarric zuri atseguin eguiteagatic
maitatu nai zaitut beti. *Gogozco*
Comunioa.

MARIA GUCIZ SANTARI

XXIII BISITA.

=

Oroi zaitte, ¡ó Maria guciz urrical-
tsua! eztala secular munduan aditu,
zure amparoa billatu duen inor des-
preciatu dezula. ¡O maria! erregu
zazu guciocgatic, eta erregu zazu
nigatic ere, baba besteac baño pe-
catariagoa naicen becela, zure bi-
tartecotasunaren bearrago naiz.

XXIV BISITA.

Zu cera eguiaz Jaungoico escutatu (Luc. 45.) Jaungoicoari bere amoreac eraguiten diozcan gaucetatik batean ere ez dirà añ ongui eguitaritzen hitz oyec, nola Sacramentu gucziz santuaren misterio adorgarri onetan, non gure Jaungoicoa oso escutaturic arkitzen dan. Guizon eguin zanean, Jaungoicoaren Seme beticoa, bere Jaungoicotasuna ezcutatu, eta guizon eguiñic aguertu zan munduan: guero Sacramentu gucziz santuan gurequin gerratu zanean, bere guizatasuna ere ezcutatu zuen, eta bacarric oguiaren antz-irudia icusten degu, onela

obeto aguertzeco, dio san Bernar-
 doc, guri digun amore gueyeguia.
 Nere Salbatzalle maitea, guri di-
 guzun onembesterañoco amore au-
 icusita, neregandic irteten naiz,
 eta cer esan eztaquit. Zuc guri di-
 guzun onguinayez cere anditasuna
 estali, eta gordetzen dezu cere glo-
 ria Sacramentu orretan: eta gure
 aldareetan zauden artean eztezula
 dirudi beste eguinquizunic, ezpada
 guizónac maitatzea, eta diezun a-
 more sutua oyei aguertzzea; ¿baña
 bérac, ó Jaungoicoaren Seme mai-
 tea, nola eranzungo dizute?

¡O Jesus! ¡ó guizonen amorean
 gueyeguiraño igarotzen ceran Je-
 sus maitea! (utzi zadazu onela hit-
 zeguiten,) zure honra baño ayen
 ona lenago billatzen dezun bitar-

tean, ¿ez ote ciñaquien cembat des-
 precio eramán bearco ciñituen Sa-
 cramentu jaungoicozco orretan?
 Icusten det, eta nic baño obeto ce-
 rorrec daquizu, ascoc eta ascoc, zu
 ez adoratzear gañera, etzaituztela
 Jaungoicotzat ezagutzen Sacramen-
 tu orretan. Badaquit nola beste as-
 co irichi izan diran Hostia Sagradu-
 ac osticopean zapaltzera, eta lurre-
 ra, urtara eta surtara botatzeraño
 ere. Icusten det gañera, ¡O nere
 Jaungoicoa! nola cristauetatic ere ez
 guchi, orrembeste desprecio béren
 adoracioaquin ordañtzera eguiñal
 guciatz sayatu bearrean, datocela
 elizara, edo béren moldacaitzque-
 riaquin gueyago ta gueyago zu
 ofenditzera, edota uzten zaituztela
 bacarric, beguiratu ere gabe, asco-

tan ez argui eta ez bear bearreco
 apaingarriric daucan aldare orre-
 tan. ¡Ay eta zure amorea eta zure
 biotz biguña aimbesteraño ostico-
 petuac eta ofendituac izan diran
 lecu desdichatu ayec nere negar-
 raz, eta nere odolaz ere, garbi al-
 banitza, nere Jesus gozoa! Baña au
 ecin dedan ezquero, eguiten det
 beñic beñ, gaur eguiten dedan be-
 cela, zu ascotan icusiaz adoratzeco
 asmo sendoa. esquer gaiztoco gui-
 zónac Misterio miragarri orretan
 eguiten dizquitzen desprecioen
 alderaco. Ontzat ar zadazu, ó Aita
 eternoa, guizon gucien ezcerezenen
 onec, zure Seme Sacramentatuari.
 eguiten zaizcan aimbeste charquer¹
 eta bidegabe ordañtzeco, gaur egui-
 ten dizun ofrenda labor au: ar za-

zu Jesucristoc gurutzearen gañean eman cizun, eta egun oro Sacramentu santuan ematen dizun, honra andi arequin batera. ¡Ay nere Jesus! Baldin creatura guciac Sacramentu orretan zu guciz maitatzea nere escu balego, ¡ah cer pocic eguingo nuquean, cer nai neque trabajuren costuz ere.


Gogozco

Comunioa.

MARIA GUCIZ SANTARI

XXIV BISITA.

=

¡ Ama maitagarria! Zuc lagundu nai ciñieque peccatariai: ona nun naucazun bada zugana natorren peccatari andi au. Lagun zadazu laster

eta biciro: zure misericordia goratuagotzeco izan bedi, milla infernu mereci lituzquean pecatari bat Jesucristogan salbatzea. Gucizco indarra du zure Semearentzat zure bitartecotasunac, eta beragatic chit ondo irichi deguizquidatzuque nic añ bearrac ditudan bertute ayec. Eguizu bada au Jesusi diozun amoreagatic. ¡O Maria chit garbia! beti aitortuco det San Bernardorequin. zu cerala Jaungoicoagan, eta Jaungoicoaren urrena nere uste eta confianz andiena.

XXV BISITA.

San Pauloc Jesucristoren obedien-

cia goratzeco, dio: heriotzeraño obeditu ciola Aita Eternoari: baña Sacramentu Santuan areagoa da bere obediencia; ceren emen bere Aita Eternoari ezecic, guizónai ere obeditzen dien; ez bacarric heriotzeraño, baicic mundua mundu dameraño. Guizon bati obeditzeagatic cerutic jachi, eta jartzen da Aldarearen gañean, guizónac nai bezañ laster. An dago bera berez iñora muguitugabe: gueratzen da ipintzen duten lecuan, naiz custodi batean aguirian, edota Sagrario batean ichiric. An dijoa nora nai daramatela, naiz calez-cale, naiz echez-eeche. Naiz peccataria izan, naiz justua, nori nai uzten zayo Comunio santuan artzen. Munduan bicitu zan artean obidetzen ciela,

dio San Lucasec, Maria guciz santarequin San Joseri; baña Sacramentu onetan munduan cembat Apaiz, aibeste creaturai obeditzen die.

Gaur zurequin hitzeguin nai nunque, jó Jesusen Biotz chit amoretsua! nondic irten baiciran Sacramentu guciac, baña batez ere comunioco adoragarri onen iturria. Zuc cere Aita Eternoari Sacramentu orretan ematen diozun bezaimbat gloria eman nai nizuque. Ongui daquit, nola orañ ere, nigatic cere bicia gurutzean eman cenduenean cidazun amore berarequin maite nazun. Argui itzazu, ó biotz jaungoicozcoa! ezagutzen etzaituzten guciac. Atera itzazu purgatoriotic cere irabaciaquin, gaurdanic betico


zure esposa diran anima gaisóac,
 edota arin zaizquietzu béren pénac,
 Adorätzen, alabatzen eta maitatzen
 zaitut, gaur ordu onetan, zu mai-
 tatzen ceru-lúrretan ari zaizquitzun
 anima guciaquin batera. Garbi za-
 zu, ó biotz guciz garbia, nere bio-
 tza, creaturaganaco amore eragabe-
 coetatic, eta bete zazu cere amore
 santuz. Eguin zaite, ó biotz chit
 gozoa, nere biotz guciaren jabe,
 aurreroncean gucia oso zurea izan-
 go dan eran. Josi itzazu, ó biotz
 guciz santua, nere biotzean zue
 nere amorez aimbeste urtean lur-
 rean eramán cinduen naigabe pena
 ayec, bicitz onetaco neque tabaju
 eta eramánquizun guciac zure amo-
 rez paciencian eramán ditzadan.
 Eguin nazazu, ó Jesusen biotz gu-

ciz humilla, ni ere biotzez humill.
 Indazu, ó Jesusen biotz chit mal-
 soa, zure malsotasuna, eta atera
 zadazu nere biotzetic zure gogoco
 eztan gucia, biur nazazu oso cere-
 gana, zuc nai dezuna ezpada nai
 eta deseatu eztezadan. Bici nazazu,
 azquenic, bacarric zuri o' editzeco,
 bacarric zu maitatzeco, bacarric
 zuri atseguin eguiteco. Ezagutzen
 det, gucziz asco zor dizudala eta
 chit beartua naucazula. ¡Ay Jauna!
 guchi, gucziz guchi eguingo nuque,
 guci au zure amorez urtuta hilco
 banitz ere. *Gogozco Comunioa.*

MARIA GUCIZ SANTARI

XXV BISITA.

=

¡ nere Erreguiñ amoretsua! Zu
 cera Jaungoicoaren Tesoroa: zure
 escuetatic artzen ditugu Jaunac e-
 guin nai dizquigun urricaltasun gu-
 cíac; zuc esaten didazu, cerorrec
 dauzcatzula zu maite zaituztenac
 aberasteco ondasúnac. Aberastu it-
 zazu, bada, graziaz, zu billatzen
 zaituzten guciac. Eguia da ene Ama
 laztana, pecatari andi bat naicela;
 baña bai zu guciz maite izan nai
 cinduzquedala ere. Urricalzaite ba-
 da nizaz: ez nazazu arren ceregan-
 dic bota: lagun zadazu bicitzan eta

heriotzan, egunen batean zu icus-
tera cerura joan nadiñ.

XXVI BISITA

Poztu zaitezte, ó Sion-tarrac, eta
alaba zazute Jauna, ceren Israelco
Andi eta Santua zuen artean dagoen
(Isai. 12.) ¡O nere Jaungoicoa! ¡Cer
consueloa ez guenduque bear, cem-
baterañoco amoreac artu bear ez
luque gure biotza, jaquiñic nola,
Santu gucien Santu, Jaungoico
eguiazcoa bera; bera icuste utsez
ceruco Santuac doatsu eguiten di-
tuen hura; amorea berà dan hura
emen gure artean, gure elicen bar-
rumbean, gure auzoan bertan bici

dan Aldareco Sacramentu santuan!
 Sacramentu au amorezco Sacramen-
 tua ezecic, da amorea bera ere edo
 bere creaturai dien amore neurri-
 gabeagatic, amorea deritzan Jaun-
 goicoa bera. (1) Baña zure espac
 aditzen nagoquizu, ó nere Jesus
 Sacramentatua. Diozu etorri ciña-
 la, mundu onetan, gure oneraco
 gurequin bicitzera, eta guc gure
 artean artu nai izan etzaitugula (2)
 Arazoi dezu, Jauna; ni naiz bisita-
 tu eregabe bacarric utzi izan zai-
 tuzten esquergabe orietatic bat.
 Castiga nazazu deritzazun becela;
 baña ez arren zu icustea galeraci
 leguiquedan castiguren batequin:
 ez, nere Jauna, bada gaurdanic zu-

(1) Deus charitas est. I. Joann. 4. 8.

(2) Hospes eram, et non collegisti me.

cendu eta erremediatu nai det orañ-
 daño aguertu dizudan esquer beltz
 eta zabartasuna. Gaurtic eguiten
 det zu ascotan icusteaz gañera,
 icusaldi oyetan alic gueyen zure-
 quin egoteco asmoa ere. ¡O Salba-
 tzalle guciz biotz beraa! lagun zada-
 zu arren leyal izaten; eta beste gu-
 cíaí ere neronec ala eguiñaz, zu
 ascotan bisitatzea eracusten. Adi-
 tzen nagoquio Aita Eternoari nola
 dion: *Au da nere atsegin contentu*
guciac beragan ditudan nere Seme
maitea. Bada baldin Jaungoico ba-
 tec zugan arkitzen baditu bere at-
 segiñ contentu guciac ¿eztet ar-
 quituco nic ere nere poz atsegin
 gucia negarrezco bicilecu onetan
 zurequin egotean? ¡O Jaungoicoaren
 amorezco carobi bicia! erre eta des-

eguin zaizquidatzu lurreco gauzac-
ganaco zale ta deseo guciac, ceren
bacarric oyec desleyaldu, eta nere
Salbatzalle gozoagandic aparteraci
nazaqueen. Eta orañdaño aimbeste
on eguin dizquidatzun ezquero, e-
guindazu gañera orañ escatzen di-
zudan au ere: atera zazu nere bio-
tzetic zurea eztan beste cernai
amore, zure escu jaungoicozcoetan
jartzen naiz; eta gaurdanic dauca-
dan bici gucia, Sacramentu guciz
santuaren amoreari escañtzen diot.
Zu, nere Jesus sacramentatua, zu
izan bear cera nere eguiñal eta
amore gucien gai bacar, bicitzan
becela heriotzan ere. Indazu arren
nere bicitzaren azquen-orduan Zu
bideraco janaritzat artzeco gracia.
eta guero eramán nazazu zorioneco


—155—
zurre erreinura; ala guerta dedilla,
nic uste dedan becela. *Gogozco*
Comunioa.

MARIA GUCIZ SANTARI

XXVI BISITA.

¡**Q** Maria guciz gozoa! esan bear
dizut orañ San Bernardorequin; zu
cera misericordiaren Erreguiña eta
¿ceñ dira misericordiaren men-
decoac, ezpada beraren añ bear
gueran triste oec? Zu misericor-
diaren Erreguiña, eta ni pecatari
gucien bearrecoena: Beraz zu mise-
ricordiaren Erreguiña bacera, eta
ni pecatari gucien andiena eta bera-
gatic zure mendecoric deguiazcoe-

na banaiz, niri beste guciai baño obeto beguiratu bear didazu. ¡O nere bitarteco andiena! zuc ondo daquizu ceñ bearrean arquitzen naicen: gorde nazazu eta urrical zaite nizaz.



XXVII BISITA.



Blizac Sacramentu santuaren honran cantatzen du: *Eztago bere Jaungoicoac añ aldean dauzcatzien erriric, nola daucagun guc gure Jaungoico ona. Fedegabeac berác, gure Jaungoicoaren amorezco lanac aditzean, esaten zuten: ¡O ceñ ona dan cristaien Jaungoicoa, ceñ ona dan! Eta eguiaz, fedegabe ayec*

béren gogoeraco Jaungoicotzacoac
 eguiten bacituzten ere, eciñ asma-
 tu izan zuten eguiten Jaungoico bat
 guizónenganaco añ amoretsua, nola
 dan gure Jaungoico ona, norc bere
 adoratzalleai dien onguinaya aguer-
 tzeco, eta oyec bere graciaz bete-
 tzeco, eguin zuen amorezco mirari
 bat añ miragarria, nola dan, berá
 betico gure lagun izatea, eta puntu
 batean ere gugandic eciñ aldeguin
 balezaque becela, gau eta egun gu-
 re Aldareetan gordeta egotea. ¡Ay
 nere Jesuz gozoa! ondo daquit gure
 artean, gure ondoan egoteco cen-
 duen zale eta deseo bicia betetzear-
 ren eguin cenduela zure mirari gu-
 cien andiena; baña ¿cergatic ote
 dijoaz, Jauna, guizónac zugandic
 igues? ¿Eta nola bici al ditezque

zugandic urruti aimbeste dembo-
 ran, zu añ guchitan icusiaz? zure
 aurrean egotez añ laster gogaitu
 eta aspertzen dira, non, iñoiz iga-
 rotzen duten ordu laurden bacoitza
 eun urte iruditzen zayen. ¡O nere
 Jesusen eramana! eta ¡ceñ andia ce-
 ran! Ordea badaquit, Jauna, cerga-
 tic: ez beste gauzagatic, ezpada
 guizonai diezun amorea guciz andia
 dalaco, eta aimbeste esquergaberen
 artean beti egotera onec beartzen
 zaituelaco. ¡O gañeraco beste gau-
 za gucietan becela, amorean ere
 azquengabea ceran nere Jaungoi-
 coa! Arren ez nadilla izan aurreron-
 zean, orañdaño becela, esquergabe
 orietacoa. Indazu zor dizudan aim-
 bateco amore bat. Izanda garaya
 (zori gaiztoco garaya!), ni ere zure

aurrean egotez laster aspertzen nitzana, maite etzindudalaco, edo ta gucziz guchi maite cindudalaco: banna, zure graciaren laguntzarequin iristen banaiz bear becela zu maitatzera, orduan, nere Jesus sacramentatua, gau ta egun zure óñetan egotez aspertuco ez naiz. ¡O Aita Eternoa! zure Semea bera esqueñtzen dizut, eta onen merecimentuacgatic escatzen dizut Sacramentu santuaganaco amore bat añbici eta eraguillea, non bera dagoen cernai elicen ondotic igarotzen naicen bacoitzean Sacramentu adoragarri au gogoratu, eta bera-
ren aurrean cerbait dembora eguiteco deseo eta zale andi bat iduqui dezadan. *Gogozco Comunioa.*


MARIA GUCIZ SANTARI

XXVII BISITA.

Agur ceruco apaingarri eder eta
 lurreco amparoa. Agur ceruco Er-
 regueren Ama, milla bider zorio-
 necoa. Zuc daucazu, zure Semea-
 ren urrena, gauza gucien gañeco
 escu eta aguintea. Chiqui eta andi,
 aberats eta beartsu, lénac eta orañ-
 goac, guciac humillatzen dira zure
 aurrean: mundu gucia auzpeztzen
 da zure óñetan: zure icena aditzea-
 requin izutzen dira demonioac: zu-
 re argui errañua aguertzen ez al
 da, deseguiten dira illuntasun gu-
 ciac; eta ozta zuc aguintzen dezu,
 zabal zabal eguiten dira ceruco a-

téac. ¡O zure Seme Jesucristoren
urrena cristauen uste eta esperanza!
¡O Erreguiñ urricaltsua, bicitzaren
gozotasuna! Negarrezco bici lecu o-
netan deserrituric, deica nagoquizu
suspirioz: lagun zadazu, Ama mai-
tea, nere neque-penetan: gorde na-
zazu nere etsi-aldietan, eta deserri-
onen ondoren aguer zadazu zure
sabeleco frutu bedeincatu Jesucris-
to, dembora gucien demboretan er-
reinatuaz bici dana.

XXVIII BISITA



Jaungoicoac bere Semea eman di-
gunez gueroz, ¿cergatic izango
guera beldur, esaten digu San Pau-

loc, escatzen diozcagun beste gau-
 zetatic cernai uca deguigun? Guc
 badaquigu, Jesucristori ematen dic-
 la Aita Eternoac duen gucia. Gora
 zagun, bada, gure Jaungoico maita-
 garriaren ontasun, urricaltasu eta
 escu luce oparoa, ceren Aldareco
 Sacramentuan Jesucristo emanaz,
 bere doai eta ondusun guciaz abe-
 rastu nai izan gaituen. ¡O mundua-
 ren Salbatzallea! ¡O Jaungoicoaren
 Seme Guizon-eguiña! Orañ esan
 dezaquet, zu nerea eta oso nerea
 zaitudala, nic nai badet. Baña,
 ¿esan nezaque dembora berean ni
 oso zurea naicela, eta zuretzat nai-
 zela, zuc naicenduqueaneraño?
 (Ai nere Jauna! ez bedi icusi gue-
 yago onelaco esquer beltz itsusiric
 nere aldetic. Baliteque nic nai gu-

cian zu nere izatea, eta zuc nai de-
 zunean ni zure ez izatea? Gaur
 bertan escañtzen naitzazu oso zure
 serbitzura. Escañtzen dizquitzut
 nere bicia, nere nai guciac, nere
 pensamentuac, eta eguñten ditudan
 gauza guciac: uzten ditut erabat
 creatura guciac, eta jartzen naiz
 oso zuc gogo dezun gucira. Icio na-
 zazu zure amorearen sugar bicia-
 quin. Eztet nai berriz creaturac
 izan dezan toquiric nere biotzean.
 Nic maite etzindudanean ere, zuc
 aguertzen cizquidatzun amorearen
 seña léac aditzera ematen didate o-
 rañ, zugana oso biurtu naicenean,
 eta zu maite zaitudanean, zuc ar-
 tuc nazulaco uste eta espeanza
 gucz gozoa.


¡Aita Eternoa! esqueñtzen dizqui-

tzut zure Seme Jesus maitearen
 biotz sagraduaren bertute, naitasun
 eta lan guciac: ar itzazu nere ice-
 nean, eta berac emanta neréac ere
 orobat diran bere merecimentuac-
 gatic, indaizquidatzu Jesusec niga-
 tic escatzen dizquitzun graci ayec:
 Jesusen merecimentu oyequin ema-
 ten dizquitzut eguin dizquidatzun
 aimbeste urricaltasungatic zor diz-
 quitzudan esquérrac: oyequin ate-
 ratzen dizquitzut nere pecatuen
 zórrac: oyen bidez uste ditut zu-
 gandic gracia guciac: barcacioa,
 onean irautea, cerua, eta, guciacz
 gañ, zure amore eguiazcoaren doai
 paregabea. Ondo daquit, neronec
 galeraci diedala ondasun guci oyei
 nigana etortzen: baña au ere ce-
 rorrec zucendu bear dezu, eta ala

eguin dezazula, escatzen dizut Je-
 sucristori diozun amoreagatic; ba-
 da berac esaten digu, bere icenean
 escatzen dizugun cernai gauza e-
 mango diguzula: nic ez det nai
 besteric, ezpada zu maitatzea, nai-
 cen guci au oso zuri ematea, eta
 gueyagoren gueyago, orañdaño be-
 cela, zuganaco esquergabe ez iza-
 tea. Enzun nazazu, Jauna, indazu,
 escatzen dizudana. Gaurco eguna
 izan bedi ni arras, eta secula ez
 aldeguiteco, zugana biurtzen nai-
 cen eguna. Maite zaitut, nere Jaun-
 goicca; maite zaitut, ontasun az-
 quengabea, maite zaitut nere amo-
 re, nere atsedan lecu, nere onda-
 sun. nere vicitza eta nere gauza
 guciac cerana. *Gogozco comunioa.*

MARIA GUCIZ SANTARI

XXVIII BISITA.

¡ Maria! jeta ceñ ederra deritzadan Eliza santuac, eta zure serbitzariac ematen dizuten icen zoragarri *Mater amabilis* hura! Eguiaz zu cera creatura gucien artean nobleen, goratuen, garbien, ederren, biotz samurren, santuen eta maitagarriena. ¡O eta baldin, zuc mereci becela, guciac ezagutzen eta maitatzen bacinduzquee! Au da, nere Erreguiñ maitagarria; nic nai eta opa dizudana: bai, guciz maitez izan nai cinduzquet, baña nic nerez ecin dedan amore au bera ere zuc irichi ceguidazuque Jaunagandic.

Irichi zadazu, bada, arren, Ama
lantzana. Gaurdanic ematen naitzayo
zure serbitzuari, eta zure serbitza-
rien beroenetaco bat izateari.

XXX BISITA.

Ni naiz atean deica. (Apocalip. 3)
¡Cere ardien amorez gurutzeco al-
dare-gañean beñ bicia ematea gu-
chi iritziz, mundua mundu danera-
ño beti gurequin egoteagatic gure
elizetaco aldareen gañean gueratu
nai izan cenduen Arzai amoretsua!
¡Ay nic banequi zurequin egote zo-
ragarriaz gozaten zure Esposa:
santuac becela, esaten zuenean
araco aimbeste deseaten nuen aren

itzalpean eseri nitzan (Cant. 2.)
 ¡Ah, eguiaz maite bacindut, nere
 Sacramentu miragarria, orduan bai
 egon naico nuqueala gau ta egun
 Custodia baten oñean, eta an oguiar-
 ren antz-irudien estalquien azpian
 ezcutaturic, baña beti cerequin
 daucazun Anditasun jaungoicozcoa-
 ren ondoan nere descantsu gucia
 arquituta, bertan topatuco nituz-
 queala zu biciro maitatzen zaituz-
 ten animac gozatzen dituzten atse-
 guin-contentu ayec! ¡O Jauna! ce-
 regana nazazu cere edertasun zo-
 ragarriaren locarriaquin, eta Sa-
 cramentu orretan aguertzen dida-
 zun amore paregabearen indarrez.
 Bai, nere Salbatzallea, orduan utzi-
 co ditut munduco creatúrac eta at-
 seguin-contentu guciac, eta corrica


etorrigo naiz zure Sacramentu orregana. ¡O bertutezco frutu ceñ edérrac ematen diozcaten Jaungoicoari nere Jesus Sacramentatuaren aurrean maiz eta astiro egoten diran zorioneco anima ayec! Baña ni lotza naiz zure magestade jaungoicozcoaren aurrera bertutearen cutsuric eragabe aguertzeaz. Cerorrec, nere Jesus ona, aguindu cenduen: *etzitecela escutsic edo cerbaitgabe etorri zu adoratzera aldarera cetocenac.* (Exod. 23.) ¿Cer eguingo det bada? ¿zu bisitatzera ez joan? Ay nere Jeses maitagarria! baña au ezta zuc naizuna. Etorrico naitzazu bada ecergabe, eta naicen bezañ bear-tsu, eta cerorrec emango dizquidatzu nigandic nai cinduzquean ofrenda bérac ere. Icusten det, zu-

re maitatzalleac ordañsaritzeco ez-
 ecic, peccatariaquin Aita Eternoa-
 ren bitarteco izateco, eta bearreco-
 ac ondasunez betetzeco ere gueratu
 ciñala Sacramentu jaungoicozco or-
 retan. Ea bada, Jauna, asi zaite
 gaur nerequin: enzun nazazu; er-
 ruqui zaite nizaz, consola zazu zu-
 re creatura gaiso beartsu au. Maite
 zaitut, ¡ó nere biotzaren jabea!
 ¡ó guizónen maitatzalle eguiazcoa!
 ¡ó cere ardien Arzai amorosoa!
 emen natorquizu gaur zure amo-
 rearen egonlecu orretara, eta ez-
 daucadalaco zuri escañtzeco beste
 gauzaric, ipintzen dizut aurrean
 nere biotz ecerez au, gucia zure
 amore eta borondateari ofrendatua
 guera dediñ. Biotz onequin maita
 zaitzaquet, eta beronequin maitatu

nai zaitut, maita al zaitzaquedan
gucia: eguin nazazu cerequin bat,
eta utzi eraci zaizquidatzu lurreco
gauza gucienganaco gutici eta de-
seoac, nere beargayen andiena zu
serbitu eta amatzea izango dan
eran. Maite zaitut, nere Jesus Sa-
cramentatua, nere biotz guciaz,
nere bici guciaz, nere anima gu-
ciaz. *Gogozco Comunioa.*

MARIA GUCIZ SANTARI

XXIX BISITA.

¡ nere Erreguiña! zuri deitzen
zatzu zure estalpea billatzen duten
peccatari gucien bitartecoa! bada

Ama maitea, zure mantupera dato-
 cen peccatari guciac gordetzea dan
 ezquero zure beargaya, ena nun
 daucazun gaur peccatari bat Villa-
 nuevaco Santo Tomasequin esaten
 dizuna: *ea bada gure bitartecoa,*
eguizu cere beargaya; ar zazu cere
gañ ni gordetzea. Eguia da peccata-
ri andi bat izan naicela luzaroan:
baña, Ama urricaltsua, onezquero
gaizquia eguiña dago, eta orañ zuc
balio deguidazuque; guci z damutua
nago; baldin zuc esaten badiozu Je-
susi, barca dizadala, barcatuco dit
eta salbatuco naiz.

XXX BISITA.

Gergatic estaltzen dezu cere arpe-

guia? (Job. 14.) Beldur andia ematen cion Job santuari, Jaungoicoac bere arpeguia estaltzen ciola, icusteac. Baña Jesucristoc bere Anditasuna Aldareco Sacramentu santuan ezcutatzeac, beldurraren lecuán confianza eta amore andi bat eman bear dizquigu. Bada ceruco Erregue onec aguertuco balitu bere gloriaren arguitasúnac gure aldarreetan, ¿nor benturatuco litzaque beragana joan, eta bere zale eta deseoaac Jaun oni aguertzera? ¡Ay nere Jesus! zu Sacramentu orretan estaltzen cera oguiaren antz-irudien estalquipean, guizónac maiteago izan zaitzaten, eta billatu nai zaituzten cernai ordutan arqui zaitzaten. Arrazoi andiaz esaten zuen Profetac; deadar eguin cezatela

mundu gucitic, guizónac, eta esan
cezatela nolacoa dan gure Jaungoi-
co onac aguertzen digun amore eta
onguinai gueyeguia. (1)

¡O creatura gucien biotzac bear
cinduzquean nere Jesusen Biotz gu-
cic maitagarri, guci ori amore gar-
bizco sugar bicietan beti icioa zau-
dena! ¡O su bicia! oso erre nazazu,
eta bicitza berri bat indazu, amo-
rezco eta graciazco bicitza bat.
Eguin nazazu cere borondateare-
quin bat, iñoiz ere apartatuco ez
naicen eran. ¡O animen gordelecu
izateco beti zabalic zauden Biotza!
cere barrumbean ar nazazu. ¡O
munduco pecatuacgatic gurutzea-
ren gañean añ atormentatua izan


(1) *Notas facite in Populis ad inventiones
ejus (Isai. 12.)*

ciñan Biotza! indazu nere pecatu
gucien damu eguiazcoa. Ondo da-
quit, nigatic gurutzean hill ciña-
nean ciñituen amorezco naitasun
béraquin zaudela Sacramentu orre-
tan, eta orregatic nai cenduqueala
biciro ni zurequin batutzea. ¡Bali-
teque, bada, oraindic ere nic zuri
gogor eguin, eta zure zale-amoreac
nai dutenera ez jartzea? ¡O nere
Jesus maitea! Zure merecimentuac-
gatic arrapatu, lotu, eta zure Bio-
tzarequin batu nazazu. Gaur egui-
ten det, zure graciaren laguntzare-
quin zuri alic onguien atseguin
eguiteco asmo sendoa. Bai, berta-
tic osticopetu nai ditut au galeraci
leguiquidaten munduaren beguiru-
ne, gaitzeraco griña eta oneraco
beatztopa guciac. Indazu, Jauna,

onetaraco, eta gaurdanic nere pen-
samentu, hitz, obra eta naicuntza
guciac zure nai arequin bat egui-
teco bear dedan laguntza. ¡O Jaun-
goicoaren amore! atera zazu sus-
traitic nere biotzean ditequean,
creaturaganaco cernai amore era-
gabeco. ¡O Maria! nere esperanza,
zuc gucia dezazuque Jaungoicoa-
gandic: irichi zadazu nere Jesusen-
ganaco amore gabi bero bat: la-
gun zadazu bera nere heriotzeraño
ondo eta biciro maitatzen; ala
guerta didilla, guertatuco dala us-
te dedan becela. *Gogozco Comu-
nioa.*

MARIA GUCIZ SANTARI

XXX BISITA.

¡ Ama biotz-biguña! Zu cera,
San Buenaventurac dion becela,
umezurtzen Ama. Pecatuaren bidez
Aita Jaungoicoa galdu duten peca-
tari errucarriac dira umezurtzac.
Zugana nator, bada, ó ¡Ama biotz
beraa! nic galdu det nere Aita, gal-
duaz pecatuarequin beraren adis-
quidetasuna; baña biciro maite na-
zun Ama zaitudan becela, zuc la-
gun zadazuque zorigaitz andi one-
tan. Guciz poztutzen nau III.^{en}Ino-
cencioc, cionean. ¿Nore secular zu-
ri deitu ezquero, gueratu da zuc
aditugabe? Ceñ bere pecatuaz da-

mutu, eta humillaturic zure mantupera etorri ezquero, galdu da beñere? bacarric zuganatzen ezta-na galtzen da. Ona nun natorquizon, bada, gaur, ó nere ama: urrical zaite nizaz, lagun zadazu, arren utzi ez nazazu.

XXXI BISITA.

Andia zan nosqui Jesucristoc Samariaco emacumeari aguertu cion onguinaya, bera ondo eta salbatzeagatic Sicar-co iturriaren ondoan jarri ta etorri cequion beguira aimbeste demboran egon citzayonean. Baña oraindic areagoa da Cerutic gure aldareen gañera egun oro jechita, animai deica, eta guciac be-

re amorea eracarri nayez, bera noiz icusteratuco diran beguira egotearequin guizónai aguertzen dien onguinaya. Dirudi, bera Sacramentatuta dagoen aldare gucietan diola Jaunac: guizónac, ¿Cergatic zabiltzate nigandic iguesca? ¿Cergatic etzatozte nigana añ mai-te zaituztedan ezquero eta zuen amorez añ humillatua emen nagoen ezquero? ¿Ceren beldur cerate? Ez nator orañ mundura juzcatzera, eta bai amorezco Sacramentu onetan estaliric, zuei ondasun asco eta andiac ematera, eta niganatzen diran guciac salbatzera.

Jaquizute, anima debotoac, ecen Jesucristo ceruan biciric beti gugatic bere Aita Eternoari erregutzen dagoen becela, ari dala Sacra-

mentu onetan gau ta egun beti,
guri gracia eta urricaltasun neur-
rigabeac iristeco bera dan gucia
bere Ait Erternoari ofrendatzat ez-
cañtzen. Orregatic cion jaincoci
batec, Jesus sacramentatuari hitze-
guin bear diogula confianzaz, eta
beldurgabe, adisquide batec bes-
teari hitzeguiten dion becela.

Beraz orren andia bada, Jauna,
zure ontasuna utzadazu arren zuri
nere biotz gucia zabaldu, eta uste
eta confianza osoaz esaten: ¡ó nere
Jauna! ¡ó animacgana añ itsutua
zaudena! guciz ongui ezagutzen det
guizonen zuganaco esquer gaiztoa;
zuc maite dituzu guizónac, eta bé-
rac etzaituzte maite; zuc on asco
eguiten diezu, eta béragandic bi-
degabe eta charqueriac artzen di-


tuzu: zure dei gozóac adiraci nai
 dieztezu, eta bérac aditu nai etzai-
 tuzte: cere gracia escañtzen diez-
 tezu, eta berac artu nai ez diz-
 quitzute. ¡Ay nere Jauna! ¿egua
 ote da ni ere garai batean esquer-
 gabe gaizto oyetacoa nintzala? ¡Ay
 nere Jaungoicoa! bai ala zorigaiz-
 toan; baña aurreracoan ondu nai
 det, eta ordañdu nai dizquitzut nere
 biciac diraun artean orañdaño eman
 dizquitzudan naigabéac, zuri atse-
 guñ eguiteco aldezaquedan gucia
 eguiñaz. Esazu, Jauna, cer nic
 eguitea naidezun, eta gucia eguingo
 det, batere opucogabe. Jaquiñeraci
 zadazu obedienciaren bean cer zu-
 re gogoco dan, eta bereala eguin
 go det. Nere Jaungoicoa, bertatic
 eguiten det zure gogoco deritzadan

ecer ere ez uzteco asmo sendoa,
 orretaraco galdu bear banitu ere
 aïde, adisquide, ondasun, osasun
 eta bicitzarañoco gucia: bai galdu
 bedi ordu onean gucia, zuri atse-
 guñ eguitearen alde. Zori oneco
 galera zure Biotzari atseguin egui-
 teagatic izaten dan galera. ¡O nere
 biotzeco Jaungoicoa! maite zaitut,
 ontasun paregabe, ecin gueyago-
 raño maitagarria, beste ondasun
 guciac baño maitagarriagoa. ¡Ay
 eguiñ al baneza nere biotz chiqui
 au, beti zu amatzen diarduten Ain-
 gueru iracequien biotz guciaquin
 bat! Bacarric zu maite zaitut, ba-
 carric zu maite nai zaitut, beti.
Gogozco Comunioa.



MARIA GUCIZ SANTARI


XXXI BISITA.

¡ Maria Doncella gozoa! Jaungoicoaren Ama, pecatarien bitartecoa, naigabetuen gordelecua! Enzun itzazu erruquiz zure serbitzari esquergabe onen erregu humillac, eta iduqui nazazu zuc maite dituzun, eta cere serbitzari eguiacotzat, artuta dauzcatzun ayetacotzat. Garbi zazu, ¡ó Doncella manchagabea! nere biotza pecatu gucitic, eta sar zazu oyen lecuan ceruco ondasun beticoacganaco amore garbi iracequi bat. Erregu zayozu ¡ó Doncella guciz santa! nigatic zure Semeari, orañ eta beti, eta berez-

quiro nere heriotzeco ordu estu ar-
tan, eta nere lan gucien contu es-
tua eman bearco dedan azquen jui-
cioco egun izugarri artan, zure bi-
tartecotasunez betico infernutic li-
bratu, eta zure laguntasun maita-
garriaz gozatzerá cerura joan na-
diñ. ¡O Doncella guciz garbia! Ez
arren itzuli zure beguías peccatari
triste onegandic: zure urricaltasu-
naren contura uzten ditut nere ani-
ma eta gorputza: erabilli nazazu
bide zucenetatic; goberna nazazu;
gorde nazazu gaitz, perill, eta etsai
gucietatic, eta erregu zayozu niga-
tic zure Semeari, nãre peccatuac
barcatu, eta deguidala fede bici,
esperanza sendo eta amore sutu bat,
Espiritu Santuaren graciarequin
batean, onequin eguiñ dezadan beti

bere borondate santua; nola ta,
gorde dezala bere urricaltasun an-
diagatic erri au izurri-pesto, g^rse,
guerra, lur-icara eta gañeraco bes-
te lacerietatic, eta libra nazala ni
nere aide, adisquide, onguille eta
cristau fededun guciaquin gaitz gu-
cietatic. Amen.

AZQUENA.



— 107 —

PENITENCIACO EDO CONFESIOCO
SACRAMENTUA.


EXAMIÑA EGUITECO MANERA.

*Examiña eguitéco ciñatu, Ni pecatáriá esan
eta bereala esango dezú:*

Lndazu, ó nere Jaungoicoa,
nere pecatuac icusteco argui
eta ezagüera, béren damu
eguiazco batequin, bada nic
gucíac confesatu nai nituzque,
oriec eguitera berriz biurtu-
gabe, hill nayago izanaz, ber-
riz pecatu eguitera baño len.
Onela eguiñ ezazula escatzen
dizut Jesucristo gure Jau

ren Pasio eta heriotza guciz
santuagatic, eta bere Ama
chit Santaren Dolorecgatic.
Amen.

EXAMIÑAREN AURRECO
ORACIOA.

¡ Jaungoico betico eta
pensa albaño andiagoa! Zuc,
cere escu eta jaquintasun mu-
gabagueaz gauza guciac utse-
tic eguiñ, eta zucen, leyalqui
eta bereala gordetzen duten
béren leguea beretaco bacoit-
zari ipiñi diezun orrec; ni ere
utsetic atereaz zuc eguin na-
zu, **Zu** maitatu eta serbitu

zaitzadan, eta nere hitz, obra eta pensamentu guciac onetara zucea ditzadan. Fin onetara egoena naiz, Jauna, eta Zuc ipini didazun legue au uztarri bigun eta carga arin bat da; baña nic, esquer beltz gaiztoco creatura lotsagabe onec, esan det, hitzez ezpada, eguitez, *serbitu nai etzaitul....* despreciatu det zure legue santua, eta burlatu, ofenditu eta iraindu zaitut era gaizto gorrotogarrian, alabana izan det zure aurrean bertan pecatu eguiteco ausardia. ¡ Cer lotsagabequeria, ene

— 170 —

Janugoicoa! Barca zaizquida-
tzu, Jauna, nere gaizquiac;
oríec eguiñaz damutua nago-
ta; argui itzazu nere adimen-
tu, eta memoria, diran guciac
ezagutu eta gogoratzeco; ira-
cequi zazu nere borondatea
guciac gorrotatu eta damuzco
confesio on baten bidez guciac
nere animatic campora bota-
tzeco.

Virgiña guciz Santa, ondu
nai duten peccatari gaisoen bi-
tarteco eta Ama gozoa, erregu
zazu nigatic, bada benaz ondu
eta nere peccatu guciac confe-
sioan aitortu nai ditut; gogora

zaizquidatzu diran guciac eta gorrota eraci, damu eguiazcoaz. Nere guardaco Aingueru santua, nere iceneco Santuac erregu zazute nigatic; ongui daquizute onen ceñ bear naicen confesio on bat eguiteco.

MANDAMENTUEN GAÑEAN EXAMIÑA,

LENENGO MANDAMENTUAN.

Mandamentuetan cierto eztaquienac cembat bider pecatu eguin duen, bere guisara esan bear du: *Guchi gora bera onembeste bider.*

Bici guztico pecatuac billatu nai dituenac, uso arrazoyezcotic asi bear du galde bacoitzean.

Examiña onetan galde cere buruari, Jaungoicoaren leguea eta dotriña edo jaquin bear ciran gauzac bere demboran icasi cinduen, edo ez; eta zure ume, eta contucoai eracutzi ciñiozcan, edo ez.

Fede, Esperanza eta Caridadeco actoac eguin dituzun.

Fedeco gaucen contra ecer sinistu dezun, ezagaturic fedearen contra zala: oartu ezquero orrelaco pensamentu edo dudari lecuric eman diozun. Baña nai eztuala tentacioac bururatzea, ezta duda eta ez pecatu, quentzeco eguiñala zuc eguiten badezu.

Ametzetaco gauzetan, sorguin-

queria edo orrelacotan sinistu dezun, edo orrelacoric eguin edo eraguin dezun.

Madaricaturic edo escumicaturic egon ceran.

Confesio edo Comunio gaiztoric eguin dezun, pecatúac berariaz edo lotsaz, edo bestela utziaz, damu edo proposituaren faltas, eta cembat Confesio gaizto urtean izan diran.

Penitenciac eguin edo cumplitugabe utzi dituzun eta cembat bider guchi gora bera.

Urteroco Confesioa edo Pazcoetaco Comunioa sacrilegioaz edo gaizqui eguiñaz Elizarequin cumplitzen ez da.

Sacramenturic, nola dan Ezcontza, edo besteric pecatu mortu-

lean zaudela, artu dezun.

Boto edo promesa Jaungoicoari edo Santuai eguiñic cumplitugabe cere culpaz utzi dezun.

Besteren debocioaz, bertutezco lan ejercicio edo obra ónaz, edo orietan dabiltzanaz burlaric eguin dezun.

Bigarren Mandamentuan.

=

Juramentu falsoric, edo guezurraren gañean eguin dezun: cembat guchi gora bera. Ecerecen gañean, edo eceri eztagoquiola izanarren, juramentua guezurrarequin dan gucian, beti da pecatu mortala.

Dudan edo gauza ala zan, edo ez, jaquingabe, ciertotzat Juramenturic eguin dezun.

—175—

Arduragabe, naiz guezurra naiz eguia izan, juramentuac eguiteco oitura edo costumbreric izan dezun.

Gaitz andiren bat incri eguiteco eta ori cumplitzeco asmo eta go-goaz juramentu eguin dezun.

Gaitz eguiteco intencioric ezpazan ere, beti da pecatu mortala, ceren guezurrarequin dan. Gaitz andi edo pisua da masalleco bat ematea, edo onen antzeco beste gauza cerbait eguitea edo eguin nai izatea.

Pecaturen bat ez eguiteco, edo obra onen bat eguiteco juramentu eguin, eta autsi dezun. Gauza chiquien gañean juramentua austea pecatu beniala da.

Pecatu mortalen bat eguindualacoaz bere burua alabatzea, edo eguingo duela esatea, naiz eguia,

naiz guezurra dala, beti da pecatu mortala, orren gañean juramentu eguitea; eta ori guero cumplitzea pecatu mortala.

Justiciaren aurrean juramentu falsoric eguin dezun, edo besteri eraguin diozun; eta inoren caltean zan.

Juramentuac bérenez nola diran, eta cer hitz-modu juramentu diran, edo ez diran, bacoitzari Confesore jaquintsuac ondoen esango dio.

Juramentutzat hitzen batzuec artu, edo iduqui badituzu, eta guezurraz esan, edo dudan, orrela confesatu bear dituzu: eta gueroco jaquin ondo, juramentu noiz diran.

Irugarren Mandamentuan.

Premiagabe igande edo jayetan lanic eguiñ edo eraguin dezun. Premiagabe jayetan bearra eguitea beti da pecatu. Noiz dan beniala eta noiz mortala, Confesoreac esango dizu.

Jai egunetan cere culpaz Meza utzi dezun, edo besteri enzutea galleraci diozun. Batec uste bazuen Meza izango zala, eta eguiñ al-eguiñ, ezta pecatu ez arquitea.

Meza galtzeco perillean cere culpaz egon ceran.

Bidezcoai, aur chiquidunai eta eri edo gaisoaquin daudenai Confesoreac esango die cer eguin bear duten.

Mezaren parte andian hitzquetan, batera ta bestera beguira egon ceran, edo besteri orrela eraguin diozun.

Ogueita bat urte bete ezquero Elizaco barau-egúnac gorde dituzun.

Garizuman arrautz edo esne gauzaric, Bulda artugabe jan dezun: eta artzeco asmo eta gogoa ezta asco

Primicia eta amarrenac bear becela eguin dituzun, edo oen ordezcó eman bearrai ondo erantzun diezun.

Laugarren Mandamentuan.

¶ **Q**netan uméac gurasoai zor diezate *amorea, beguiramentua ta obedi-*

encia. Beguira bada ondo. oyen
 contra gauza pisu edo anditan ut-
 seguin dezun: beguira ondo zure
 demboraco eguiñetan, hitzetan eta
 beste nolana dala, certan eta cem-
 bat bider, guchi gora bera, utse-
 guin dezun Jaungoicoaren legue
 onen contra.

Gurasoen icenean emen aditzen
 dira gurasoen ordeco guciac eta
 Nagusi Echecoandréac.

Orrelacoen testamentu eta Man-
 dac, zure contura daudela cumpli-
 tugabe utzi dituzun.

Emen gurasoac, orien ordeco,
 eta Nagusi Echecoandreac beguira-
 tu bear dute béren obligacio andiai
 nola eranzun dien: umeac edo be-
 ren contucoac nola aci dituzten, ala
 dotriñan nola oitura edo costumbre

ónetan eta Jaungoicoaren beldurrean. Edo gaitzeraco biderie, ejemplo gaizto edo escandaloric eman dien. Edo béren garayan estadua eman dien, edo ori ondo, eta peca-tugabe, artzeco bidean lagundu diezaten.

Jocuan, tabernan edo bicioetan echeraco bear zana galdu duten. edo echean bici gaiztoa eman duten.

Bostgarren Mandamentuan.

Bere buruari edo besteri heriotza edo gaitz andiric opatu dion: edo iñor hill duen, edo eritu, maquillaz jo edo beste gaitzic eguiñ edo de-seatu dion, eta cembat bider guchi gora bera.

Iñor hitzez bere arpeguian gaiz-
qui tratatu duen.

Aserre-aldi edo ocasioeric billatu
duen, edo orrelacotan arquite dan;
edo pecatu mortalean dagoala he-
riotzaco perilletan edo ocasioan
sartu dan.

Iñoren gaitz andiaz bere biot-
zean atseguin artu duen, edo iño-
ren onaz damuric izan duen.

Diosala, salva edo hitza asserrez
iñori ucatu dion.

Gorrotoric biotzean iñoren con-
tra iduqui duen.

Madaricacio edo añenecoric iño-
ri bota dion, jan-edanean, cere
osasan edo buruaren caltean, eza-
guturic, gueyeguirano igaro ceran
eta gucian cembat bider guchi gora
bera.

Aurric galtzeco edo abortoren
batean icusquizunic izan dezun.

Seigarren eta Bederatzigarren
Mandamentuan

Emen beguiratu bear da, cer pe-
catu eguin dezun, pensamentuz hi-
tzez, escuea, ibilleraz, eta obraz;
eta cer personequin, edo cer bicie-
ra edo estadutacoarequin, eta cem-
bat bider, guchi gora bera.

Esan bear diran estaduac dira:

1. Ezcongai edo libreac ciran.
2. Ezconduac edo catibu ceudenac.
3. Jaungoicoari consagratuac.
4. Zure aideac laugaraen malla-
raño: edo zuc pecatu eguin dezun
arequin bigarren graduraño. Eta
ezcondua bacera, zure guizon edo

andreamen aide zan, eta au laugarren graduraño. Besterequin pecatu eguiñ ezquero, oyec dira esan bear diran estadúac.

Pecatu gucietan esan bear diezu zure estadua: libre ciñala cembat, ezcondu ezquero cembat; onelaco pecatu ez eguiteco boto edo promesa ezquero cembat.

Lecu sagraduan onelaco pecaturic eguin dezun.

Gogoracio loyetan gozatu ceran, edo conturatu ezquero, cere artean atseguin artzen egon ceran.

Gogoz edo deseoz orretaraco lecu cere buruari eman diozun: Nic onelaco gauza edo gusto eguingo nuque urliarequin, eta esan bear da estadua, eta cembat bider guchi gora bera.

Pecaturaco iñor billatu edo tentatu dezun, isil-mandatu, erregalo, billete, edo bestez baliatu ceran.

Orrelaco bide edo pausoetan iñori lagundu diozun, edo pecatuen cstalqui, edo infernuco mandatari izan ceran.

Hitz loy lizunic esan dezun, atseguin artuaz edo besteri arreraciaz; eta bere bat da contuac esan, canta edo dantza edo carta deshonestoac eguitea. Onelaco coplaric escribitu, bialdu, artu edo iracurri dezun, etc.

Pecatu eguiñaz iñoren aurrean cere burua alabatu dezun, edo orrela bere pecatuaz alabatzeco bideric iñori eman diozun.

Pecaturic asmatu, edo eguin bacingu becela contatu dituzun,

Pecatu ez eguiñaz damu izan dezun, gucian cembat bider, guchi gora bera.

Obrazco pecatu, eta orietaraco derech eta ocasioz, gañera, beguiratu loy, escuca, musuca, edo orrelaco ibilleraric izan dezun: personen estadua, eta cembat bider, guchi gora bera.

Cere buruarequin pecatu itsusiric, anima ta gorputza l. ituaz eguin dezun, (bearduanac aditzen du eta gueyago ezta esan bear) eta onelaco loiquieriac zure gogoan iñor ceneucan, edo cer estadutacoac: cembat bider, edo cembat demboran oitura ori iduqui dezun.

Ametsetan orrelacoric iduquitzea deseatu dezun, edo ametsetan orrelacoa iduquiaz guero atseguin

izan dezun. Baña bestela amets gaiztoetan berez pecaturic ezta.

Besteren bitartecoz iñor pecatura eracarteco baliatu ceran, edo iñorequico adisquidetasuna aurrera eramateco.

Pecatuetan aurric ez izateco ecer eguin dezun: edo aurren bat cerea dezula jaquiñ eta ucatu eta galtzen utzi dezun.

Ezcontzeco hitz guezurrezcoaz, edo bestela pecaturaco iñor engañatu dezun, edo nai eta ez pecaturic eraguñ edo doncellaric orrela galdu dezun.

Ezconduac ezcontzaren zor santua, bide gabe, edo gaitzez, alcarri ucatu dioten: edo bestela Matrimonioco Sacramentuaren contra eguin duten.

Béstela mutillac mutillaquin, edo
icusi edo eraguiñaz, edo guizonac
alcarrequin; nescach edo andreac
andreaquin Sodomaco peccatari gal-
duen guisa eguiten dituzten nazca-
garrizco gauza; eta are gueyago
abereaquin orrela eguiñaz, ez dira
aztucó: bérac lan, quezca eta aran-
zaric asco confesatu artean emango
diote.

Onelaco peccatari gaissoac, ceruco
Aitac becela, confesoreac erruquiz
eta amorez beterie artu bear ditu
eta soseguz eta paciencian aditu.
Eta guero esan, eta adieraci bear
die eguiñalean, gaitz eta desdicha
oriec Jesucristoren oñetan beñ on-
do esan ezquero, betico libre dau-
dela.

Emen aviso eta erregla guciz

pozcarri bat. Cristau beldurti eta lotsatia, jaquizu Ceruco dotriña au.

Seigarrenaren contraco pecaturic diran itsusi eta icaragarrienac badira ere; naiz cere aideric urrenaquin, nola diran Aita edo Ama, seme edo alaba: naiz abere edo animalia ascorequin eguin badituzu ere zure pecatu oriec berez ez dirala heregiaco pecatuac. Jaquizu, oriec guciac zuri barcatzeco Erromara joanquizunic eztezula. Consola zaitte, tristea; orche zure errian, bulda dezula, nor nai confesore aprobatic pocic eta erraz ondo confesatu, eta absolvituco zaitu.

Jaquizu, azquenic, orrelaco zure pecatuaz arrituco eztala: badira oriec baño quezca gueyago ematen diguten pecatuac: zure oriec erraz

quentzen dira, eta seculaco aztutzen dira. Eta ala, confesoreac, erreco balute ere, edo chiquituta hilco balute ere, zuc berari confesioan esandaco pecatua, munduan dan iñori secular ecin esango dio. ¡Ay Confesore jaunac! Eguia oyec gucien biotzetan ondo josiric betico baleude ! Deabrubaren guezurrac sinistu, eta aimeste anima ala galduco ez liraque.

Baldin pecatuaren locatzean sartu eta luzaro urte ascoan amancebatu eta jarriric becela cere buruarquin edo beste ascorequin nastu eta oitura gaiztoan ondaturic egon bacera; orduan zure examiña eta contuac eguitea chit erraz da: cembat dembora iraun zuen pecatuco bide edo ocasioac, eta illean edo

astean cembat ciran bataz beste:
egun oro edo beti ciran edo nola.

Zuc cere animaren calteac, bici-
era charra, eta pecatuen perillac
ondo ezagutu, eta borondate osoaz
eta eguiazco gorrotoaz, bide orie-
tatic igues eguiteco asmo bici era-
guillea badacarzu; pecatu guciac
eta orien arantzac ondo eta sus-
traitic ateraco dira, zuc confeso-
reari esan, edo onec zuri galcetu
eta lagunduaz: eta onela zure ani-
ma, confesio oso batequin beñ beti-
co Jaunaren paque gozo eta amore
santuan gueratuco da: eta aurrera
lengo pecatu edo gauzaric ez gue-
yago nastu eta era! illi.

Zazpigarren eta amargarren
Mandamentuan.

Iñori ecer ostu edo quendu diozun: cembat, edo cer, eta cembat bider: gauza sagraduric edo lecu sagraduan.

Iñori bere haciendan calte anduric eguin diozun.

Ecer ostutzen edo calte eguiten iñori lagundu diozun: ecer estali edo orrelacoric aguindu dezun: nola ta cembat bider guchi gora bera.

Bide gaiztoetatic, edo fiñ gaiztoraco iñoren ondasunic deseatu dezun: fiñ ónetaraco eta modu onean ondasúnac deseatzea ez da pecatu mortala.

Jocoan, tratu artu-emanetan,

neurri edo pisuetan tramparic eguin dezun: cer calte eta nola eguin dezun, eta cembat bider guchi gora bera.

Daquizula iñori berea quendu, edo zor diozula, biurtu, edo erres-titucioa eguingabe egon ceran; edo Confesoreac aguindu, eta esan, nola puscaca asi, eta eguin bear dezun, eta naguitasunez eguingabe, al dezula, egon ceran. Orobat beste zorrac pagatugabe orrela utzi dituzun.


Artzeco dun bidezcoai, languilleai, mirabe edo servitzariai bere-na emateco uzcur eta atzera egon ceran, eta cer calte onetan eguin diezun.

Seme eta alaba edo umeac beren gurasoai eta serbitzariac beren na-

gusiai ecer ostu diezaten, ascotan,
puscaca edo nola, eta cembat bider
guchi gora bera.

Religioan sartzea iñori galeraci
diozun, edo conseju gaiztoaquin at-
zeratu dezun, edo orrela ecinquizu-
nac ipiñi diozcatzun.

Zortzigarren Mandamentuan.



Testimonio falsoric edo guezur-
rezco asmacioric iñori alchatu dio-
zun, edo iñoren calte andian gue-
zurric esan dezun, eta nola.

Gauza jaquiñ eta aguiricoa eztala,
iñoren pecaturic aguertu dezun edo
gauza pisuetan murmuratu dezun.

Bacoitzari bere izen on edo cre-
ditua gaizqui quendu edo galdu

eraci diozun; eta bear becela, biur-
tu diozun, edo ez.

Gauza isisll gorderic iñori aguer-
tu, edo bear etzan cartaric idiqui
dezun.

Eceri ez dagoquiola iritzi gaizto-
ric iñorentzat eguin dezun.

Azquenic, bacoitzac bere estadu
eta bicieraco eguin-bearrac ondo
jaquiñ eta beguiratu edo examiñatu
bear ditu, certan utseguin duen ja-
quiteco, eta obeto erremediatzeco.

Beste culpa asco emen eztaude-
nac, jaquiñac dira, edo guchitan oi
diranac eta berariaz utzi ditugu.
Alde onetatic ezta peligroric. Erre-
glaric seguruenena da duda dezun
gucian, pecatutic libratzeco, Confe-
sore oitu jaquintsu bati beti galde-

100
tzea, au edo ori pecatu dan, eta
cer eguin bear dan.

Onela zure concienciaren exami-
ña alic onguien eguiñ eta bereala
Jaungoicoagana biur zaite; eguin
dizun urricaltasunaz esquerrac e-
man zayozcatzu, eta zure pecatu
eta beraren ofensa gucien barcacioa
esca zayozu.

CONFESIO AURRERACO

ORACIOA.

Nere Jaungoicoa, arritua eta lot-
satua nago, eta ez det beguiac zu-
ganonz alchatzeco arpeguiric, ceren
nere gaiztaqueri izugarriac aimbes-
te ta añ pisúac diran. Orregatic
ere nola eciñ iñoiz ere zure urri-

caltasunarequin berdin balitezquean
erregutzen dizut, Jauna, entzun di-
tzazula nere erreguac, nere peca-
tuac zucen confesatu eta guciac da-
mutu, eta guciac gorrotaturic, bi-
otz guciac ostera zugana nadiñ,
iñoiz ere berriz ez aldeguiteco.

Jauna, zure contra eguin det pe-
catu; ofenditu zaitut, eta eguin di-
zut charqueria; utzi ditut gloriara-
co neuzcan escu eta derechac, eta
merecitu det infernua. . . eta gaiz-
toen dana da, au bacarric beñ izan
eztala, baicic conta al baño gueya-
gotan... ¡Ay Jauna! laborrria sart-
zen zat gogoratzean, pensamentuz-
co pecatu mortal bat bacarra izan
zala asco, Aingueru guciz ederrac
demonio beltz itsusi eta nazcagarri
eguiteco. ¿Ceñ izugarria gueratuco

zan, bada, nere anima, pensamen-
tuz, hitzez eta obraz eguin ditudan
aimbeste pecaturen ondoren? Begui-
ratzen dedanean baldin beste Ain-
gueruen artean zabaltzen balira
nere pecatuac, bacarric ni ascoco
nitzaqueala, demonio talde izugarri
bat eguiteco, eta cembat nere pe-
catuac beste aimbeste mostru itsu-
si eguiteco diña ta gueyago gaizta-
queri eta itsustasun dagoela nere
animan, izutzen naiz, nere buruac
berac zucuruzten nau.

Aingueruac pecatu eguin zute-
nean bereala demonio eguiñic gue-
ratu eta cerúen goyenetic infer-
nuen ondarreraño amilduac izan ci-
ran: eta zuc, ene Jaungoico maitea,
ichedon didazu niri, penitencia da-
guidan... ¿Noiz arte, Jauna, gaiz-

qui usatu bear det zure eramán an-
di eta ontasun ondogabeaz?

Noiz arte egon bear naiz ardu-
ragabequeri gaizto onen lozorro pi-
suan sorturic, secular peccaturic
eguin ezpanuquean becela? ¡Ay ene!
peccatu eguin nuen, eta mundu gu-
ciac baño gueyago balio duen gra-
cia galdu nuen; ceruraco neuzcan
derech eta bidéac galdú nituen, in-
fernua merecitu nuen, eta tormen-
tuen lecu artaco pena beticoen gaitz
ondorera, pauso luceguiaz aldera-
tzen noa.... ¡Ay Jauna! ori icusita
izu gorria sartu eta icaraz nago...
Baña nere negàrrac aguertzen du-
te, ceñ damu dedan, zu ofendituaz.
Munduco hacienden aberatsenaren
jabetzera, baña peccatu eguingo ba-
lu, ori gucia galtzeaz gañera urca-

be batean hiltzeco hitzean, bat deitzen balute, ¡nolacoa izangolitzaque bere damu miñ eta negarra, baldin pecatu iguin, eta haciendagabe gurratzeaz gañera heriotz lotzagarrira condenatua dala icusita! Ay ene...!
¡Cembat andiago izan bear eztu nere negar eta damuac orañ; zuc aguindutaco gloriaco escu eta derecha nere pecatuaz galdu, eta infernuetara condenatua nagoenean!

¡Ay Jauna! orañ ezagutzen det nerau izan naicela nere etsai andiena: eta pecatu eguiñaz nic nere buruari eguin diodan aibat gaitzecin beste iñorc eguin ceguidaquel... Barcacioa. Jauna, barcacioa, eguiatz ta benaz damutua nagoen ezquero. ¡Ah! edolaric bacarric ni atzitu banindu pecatuaren gaizta-

200
queriac.... Baña oquerrago dana,
eta miñago dedana da, zugana ere
luzatzen dala gaiztaqueri au, ala-
baña gaizqui tratatu zaitut. Bai,
nere Jaungoicoa, bai; pecatu egui-
teaz despreciatu zaitut, burla eguin
dizut, gurutzean josi zaitut, eta
guci au juduac baño milla bic'er
gaizquiago, bada oyec ezagutzen
etzinduzten, nic bai; eta ala ere zu
baño nayago izan det nere galgar-
ri eta oitura galduen Barrabas,
eta, ¡ó izugarria! nere gogoz eta
pocic escañi nitzan zuri bicia quen-
tzeco borrarotzat. ¡Ceruac, izu zai-
tezte!

¡Barcacioa, bada Jauna, barca-
cioa....! ¡Lastima, erruquia! Zure
oñetan auzpetzen naiz, beste Seme
galdua becela, graciatic erantzia,

eta nere oitura galdu eta pecatuen
 zarpaz estalia. ¡Ah nere Aita! ¿Cer
 da nic doacabe errucarri onec eguin
 nuena? ¿Zure contra eta zure begui
 jaungoicozcoaren aurrean eguin det
 pecatu....! Ez naiz zure semearen
 icenaz nere burua honratzearen
 diña; baña beintzat zure esclaboen
 artecotzaz iduqui nazazu.... Emen
 daucazu, Jauna, cere oñetan Mag-
 dalena bezañ pecatari andi bat, hu-
 ra becelacoa ezpanaiz ere gauza bi-
 tan: nic ari gaiztaquerian eragui-
 tean, eta arc niri damuan eragui-
 tean: baña, Jauna, uste osoan na-
 go, zuc osatuco didazula utsune
 au, zure oñetan eta zure ministro
 Confesorearenetan nere utseguite
 eta pecatuac aitortu; eta berezaz
 negar eguin dezadanean. ¡O nere

Jesus ona! Confesoreac absolucioa
ematen didan unean eguizu arren
nic an nere barrumbean aditzea
Magdalenari esan ciñozcán hitz añ
gozo eta pozcarri ayec: *Barcatuac*
zaiquitzu zure peatúac.....Zoa
paquean. Indazu, Jauna, graci au
Jesucristoren merecimentuacgatic,
Virgiña Mariaren doloreacgatic, eta
ceruco Santu eta lurreco justuen
merecimentu eta bitartecotzagatic.
Amen.

CONFESIOAREN ONDORERACO

ORACIOA,

Sendo zazu, Jauna, orañ

sacerdotearen bidez eguin de-
zuna. Ceruan ontzat emanazu,
lurraren gañean eman dan
sentencia. Paquearen berriac
eman dizquidaten hitz conso-
lagarriac eguin bezate nigan
bérac dioten gucia. Progaera-
ci zadazu graci osasungarri
onen poz atseguina, zure es-
piritu indartsuaz sendotua gue-
ratuco naicen eran. Nere bio-
tzetic ayenatutaco demonioa
niri erazo aldiric portitzenac
ematera dijoa. O Jauna, libra
nazazu; eguizu arren orañ
berritu dezun zure Cristoren
erreinuac ostera nere animan
indar artzea. Zure amoreac

bertan erreinatu, eta mundua-
requin bere gogo eta zale era-
gabeac nic oso azpiratzea.
Onen ezagüera onez ofrenda-
tueo dizut nic zure Santua-
quin batera alabanzazco hos-
tia bat.

COMUNIO AURRERACO
ORACIOA.

Esquer milla, ene Jaungoi-
co laztana, orañ eguin didazun
urricaltasunagatic. Ni bide
galduetatic nebillen, eta biur-
tu nazu osasunaren bidera:
loitua negoen, eta garbitu na-
zu: heri negoen, eta sendatu

nazu; graciarentzat hilla ne-
goen eta piztu nazu. Aingueru
santùac alaba zaitzatela, San-
tuac beti bedeinea zaitzatela,
niri barcatu didazunagatic,
eta bérac irichi deguidatela
zu ez berriz ofenditzeco indar
eta gracia. Au escatzen dizut
gañera Virgiña guciz santaren
merecimentuacgatic, zure Se-
mearen Pasio sagraduaren
balioagatic eta Zu cerorrege-
tic; secula gucien seculetan
erreguñatzen dezun orrega-
tic. Amen.

COMUNIO AURRERACO
CONSIDERACIOA.

Bicitu zazu cere sinistea,
anima nerea, eta beguira zazu
hostia sagradu artan Jesucris-
to sacramentatua. ¿Cer eguin-
go cenduque baldin ceruac
urratu, eta icusten bacendu
Eguzqui Jaungoicozco hura
bere Ait Eternoaren escui al-
dean gloriaz betea, bere amo-
rez erretzen bere aurrean
dauden conta al baño gueya-
go Aingueru eta Serafin ira-
cequie adoratzen dutela?

Icusten bacendu berá az-

quen juicioco egunean andita-
 sun eta magestadez beteta
 etorrico dan eran? !Nolaco
 amoreaz, aurra becela bere
 Ama guciz santaren besoetan
 icusten bacendu!

Ea bada, nere anima, cere
 sinistea bicitu eta irichi zaite
 beguiramentu, amore eta de-
 bocio beronezaz berá cere
 bularrean artzera; bada art-
 zera zoacena Jaun hura bera
 da, ceruan dagoan bezañ escu
 andico eta gloriáz betea: Vir-
 giña guciz santagandic jayo
 zana bera, zure amorez gu-
 rutzean hill, eta zure anima-
 ra etortzeco Sacramentu jaun-

goicozco orretan ezeutaturic
gueratu zan hura bera. Ea,
irichi zaite bera artzera Jaun
beraren escutic artzeco Apos-
toluaquin baceunde becelaco
amore eta debocioaz; eta zu-
re ezpañac bere sayets guciz
sagraduco llagan ipintzen ba-
cindu becela, biotz guciaz esa-
zu; *Nere Jesucristo Jauna-
ren Gorputzac gorde de-
zala nere anima betico bi-
citzaraco. Amen.*



COMULGATZECO DESEOAC.

¡**Q** Jaun andia! ;Nore leuz-
caqueen gogo eta zale irace-
quienaz zu artu nai izan ein-
duzten Santu gucien deseño
eta zaleac; santa Martarenac
zuri ostatu emateco; eta bere

aizparenac zure onetatic be-
ñere ez quentzeco! ;Nore
leuzcaquean zu artzeco, zuri
atseguin eguiteco eta zu ser-
bitzeco Virgiña guciz santac
iduqui cituan eresi, zale eta
deseoac! ;Nore leuzcaquean
ceruen zabaltasuna eta Sera-
finen amore iracequia! ;Nore
bertute guciac leuzcaquean,
Jauna, zu nere eche Pobre
onetara etortzera gombidat-
zeco! ;Oh ceñ zori onecoa nit-
zaquean ni baldin bicitzaren
Eguillea gracian artzen banu,
bera nere animan iduquitzeco.

!Oh ceñ aberats negoquean

ni garbi nagoala eta gracion
zu neretuta! !Atoz, Jauna,
atoz nigana, badezazuqueta;
bada nic al baneza, nigandic
seculan irtengo etziñaque!
Virgiña guciz garbi nere Ama-
andre chit bedeincatua, iñchi
zadazu graci au zure Seme
guciz maiteagandic. Basáunt-
zac úren iturriac deseatzén
dituzten becela, nere animac
deseatzén zaitu; ene Jaungoi-
coa. Nic, Jauna, au deseó det,
au nai det, eta au escatzén
det. Jan zazu ceruco Oguia,
anima nerea, eta sáya zure
zure salbacióraco on eguin
dequiza

MARIA GUCIZ SANTARI
ORACIOA,

Pecataríen bitarteco eta es-
talpe guciz gozo, eta Jesu-
cristo gure Jaunaren Ama
izatearen guciz diña cerana,
Jaungoicoaren Seme beticoa
cere errayetan artu, eta nic
orañ artu nai eta deseo dedan
Jauna bera bederatzi illa be-
tez cere sabel sagraduan idu-
quitzeo, cenducan garbita-
sun gucizeo argatic humilta-
sunic andienaz escatzen di-
zut, irichi zadazula cere Seme
guciz santuagandic bear be-
cela, eta Jaun añ andia artze-

co bear dedan beguiramentu
naitasun eta debocioaz nere
biozteco guelan artzeco gra-
cia. Eztehadala arren galdu
nic bere Pasioaren eta zu be-
guira ceundela nigatic gurut-
zean issuri zuen Odol precioso
haren frutua.

Gogora zazu, nere Aman-
drea, an icusi cenduena, eta
eman cizun beargaya; eta zu-
re araguiz jantzi zanean, eta
zure Seme eguin zanean, gu-
re Ama eta Pecatarien Ama
eguin cinduela, gure pecatuac
dirala bide mereci ezteguna,
zure bidez irichi dezagun. Ea
bada, lagun zadazu beguira

zadazu, cere mantupean gor-
de nazazu, gorputz-anímetan
garbitu, eta zúrituric, nere
Jaun Jesucristoren diñaco bi-
cilecu izan nadiñ, beraren
gloriaraco, zure honraraco
eta nere betico salbacióraco.
Amen.

ESQUERREN EMANERAZCO ACTOAC.

Milla ta gueyago esquerre-
quin alabanzac dizquitzut; ne-
re Jesucristo Jauna, ceren
peccataran bear eta gaiztoa

naicelarie, cere Gorputz eta
Odol guciz santuzco gombit
sagraduaz gozarotu nai izan
nazun. Escatzen dizut, ene
Jaungoicoa, eztaquidala izan
Comunio santu au nere cul-
paz condenacioraco bide, ez-
pada zure urricaltasun ondo-
gabeaz barcacioaren causa.
Izan dedilla nere pecatuen
barcacio: nere oitura macur-
ren galera, nere loyen garbie-
ra, nere culpen quentze, oi-
turen berritze, nere griña
eragabeen locarri, nere tenta-
cioen frenu, nere argaltasuna-
ren indargarri, eta nere mise-

rien sendagai. Izan dedilla,
nere bicitzaren berriera, nere
fedearen argui, nere esperan-
zaren arnas, nere earidadea-
ren berotasun, eta bertute gu-
cien gueigarri. Izan daquidala
azquenic, zure biguntasun eta
urricaltasun neurrigabearen
señale, zure graciaren doai
eta zure gloriaren prenda, zu-
re secula gucien seculetan
Aitarequin eta Espiritu san-
tuarequin bici ceran, eta er-
reinatzen dezun orrena Amen.

GOGOZCO COMUNIC.

¡O Jesus nere Jauna!
 Eciñ gueyagoraño si-
 nisten det Zu eguiatz
 eta izatez or Aldareco
 Sacramentu adoraga-
 rri orretan zaudela.
 ¡Ay nere Jauna! ¡Su-
 erte ceñ zorionecoa
 nuquean, baldin nere
 biotzean antu albacin-
 duquet! Uste det, Ja-
 una, Zuc, bertara eto-

rri, eta cere graciaz
beteco dezula.

Maíte zaitut, nere Je-
sus gucziz gozoa.... ¡Be-
ti maite izan etzaitu-
dala! ¡Ay secular ofen-
ditu ezpacindut, eta
charqueriric egain ez-
panizu! Nere biotzeco
Jesus gucziz gozoa, nic
nere biotzeco bicilecu
pobrean artu nai cin-
duquet.

MEZA SANTUA

DEBOCIOAZ ENZUTECO MANERA
OFRECIMENTUA.

O nere Jaungoicoa,
nic ofrendatzen dizut
Jesucristo gure Jau-
naren Gorputz eta O-
dolaren sacrificio ado-
ragarri au, Zu nere
Eguille eta Jaun andi-
entzat ezagutzen zai-
tudalaco aguiri edo
señalean; niri ez eci-

gañeraco creatura gu-
cíai ere eguin dizqui-
gutzun on eta mesede
gucien esquérac e-
mateco; nere eta beste
gucien pecatúen ordañ
saritzat; purgatorioco
animen, batez ere pre-
miatsuenen eta nic
gueyen zor diedanen
alde; eta azquenic, pe-
ccataríai ontzeco, eta
justuai onean irauteco

gracia zure erruqui
jaungoicozcoac degui-
en, zure gracion bici
eta hiltzeco.



CONFESIOAN



*Apaiza aldareratzean ciñatu, Nipe-
cataría esan, eta ondoren.*

Nere Jesucristo Jau-
na, zure Pasioa aldera-
tu citzazunean nigatic
naigabe-penez bete eta
estutua, eta guero Ge-
tsemanico baratzan A-
ingueru baten bidez
consolatua izan nai
cenduenena; indazu ar-
ren neque penaguc
onez eta pacienciaz
ramateco gracia, zure-

quin padecituaz, gue-
ro izan dezadan zure
Pasio guciz santuaren
irabacietan parte iza-
tearen poz atseguña.
Amen.

INTROITUAN.

—

¡O nere Jesus guciz
mansoa! Judas gaizto
salduaren musuaz sal-
tua, gende armatuác
preso artu eta lotua,

eta Anasen echera era-
mana izan nai cendue-
na; etzadazu arren le-
curic eman guizon ga-
izto galgarriren batec,
edo infernuco etsayac
muguieracita pecatu
eta salduqueriaric e-
guiteco lecuric, baicic
indazu gucian zure bo-
rondate santua eguite-
co gracia. Amen,

KYRIE ELEISON.



¡O nere Salbatzalle
guciz erruquitsua iru-
tan ucatu cinduan Pe-
drori begui erruquit-
suaz beguiratu eta da-
mu eguiazco negar mi-
ñac eman ciñiozcana;
beguira zadazu niri
ere begui erruquit-
suaz, nere pecatuac-
gatic zure aurrean ne-
gar eguiñ al izan de-
zadan, eta ez pensa-

mentuz, ez hitzez eta
ez obraz inoiz ere zu-
ucatzeco bear ditu-
dan graciac eta lagun-
zac irichi ditzadan.
Amen.

GLORIA IN EXCELSIS DEO-AN.

¡O nere Eguille guciz
maitagarria, nigatic
padecitzen asitzeco ja-
yo ciñan egunean Ain-
guerúac lurrean pa-

quea aditzera emanaz
Gloria cantatu cizute-
na; indazu zure amo-
rea, gambelatic asita
gurutzerano nigatic e-
raman cinduenainbes-
te neque-pénacgatic zu
amatu eta bear becela
alaba zaitzadan, eta
gañera gorputz-ani-
metaco paquea, zure-
quin eta nere urcoz-
quin batua beti egon
nadiñ. Amen.

DOMINUS VOBISCUM



¡O Aita Eternoaren ar-
 gui eder arguigarria,
 zu adora cintzaten, E-
 rregue mairuac argui-
 tu cinduena, eta niga-
 tic padecitzeco eta ce-
 re odola isurtzeco cir-
 cuncidatu nai izan
 cenduena; argui zazu
 nere anima, gucia de-
 zazuqueana becela a-
 dora zaitzadan, mor-
 ficaciozco mirra, ora-

ciozco incensua eta a-
more eguiazco urrea
esqueñi deguizquitzu-
dan, onela circuncida-
tu eta mundu onetaco
gauza guciac utzi di-
tzadan. Amen

EPISTOLAN.

¡O Maisu guciz jaquin-
tsua, Apostoluac esco-
láu cinduená, oyec
guri Erligioco eguiac

eracus cegvizquiguten
 eta orregatic ere Pila-
 tosen Tribunalera era-
 mana eta an guezur-
 rez salatua izan nai
 cenduena; eracus za-
 dazu arren guizon ga-
 izto biurrien dotriña
 guezurrezco galgarri-
 etatic urrutiratu, eta
 zure ministroen bidez
 eracusten dizq gi
 tzun eguíaac sinistl iza

eguia oyec eracusten
didatena eguiten. A-
men.

EVANGELIOAN

¡O jaquintasun ondo-
gabea, guizonai pe-
catutic urrutiratzeco
predicatu ciñiena, eta
nere amorez Herode-
sen echetic Pilatose-
na eramana izan nai
guri cenduenena, oyec

alcarrequin ongui ja-
rri, eta biac gucziz a-
disquide eguin cite-
cen: indazu arren ne-
re animaren etsayen
eraso guciac baño in-
dartsuago eguiñic, zuc
nai dezun guciraco
prest beti egoteco gra-
cia. Amen.



ay-
gi
iza

CREDOAN.



guri

¡O nere Erosle gucziz
 amorezcoa, nic zure
 fede santua icasi ne-
 zan, aimbeste eramam
 cenduenena; eta martiri
 santuai alaingo indar
 eta sendotasuna eman
 ciniena, nun ecin garai
 citequean béren irau-
 penaz tiranoen amo-
 rru gaiztoa benzay-
 zuten; indazu fede gu-
 bat, zuc eracutsil iza

duen, eta zure Eliza
santac aguertu eta si-
nisteia aguintzen digun
gucia sinisteco, eta ga-
ñera ni fede santu o-
netan bici eta hiltzea.
Amen.

OFERTORIOAN.

¡O Jesus guciz garbi,
guzperero odolzale ayec
karrugorritu, eta
guri az corroatzea nai

izan cenduenan! erantzi
nazazu, arren lurreco
gauzenganaco zale ta
deseo eragabe gucie-
tatic, nere arreta eta
gogo gucia zugan ipi-
ñi, eta gaitz eta nequ-
guciac zure Magestade
jaincozcoaren honra
eta gloriaraco boron-
date osoaz eramata y-
escañi nadiñ. Am gi
I iza

LAVATORIOAN.



o
A

er
guri

Nere Jesucristo Ja-
un Jaungoico biciaren
Semea, Pilatos aguin-
tariac garbi eta culpa-
gabetzat eman cindu-
elatic, Judu desleya-
len deadar eta oju a-
morratúac aditzeco
uzcur eta atzera egon
etziñana; indazu nic
nere animaren etsay-
en artean pecatu gu-
citic garbi bici al iza

teco, eta pensamentu
gaizto guciacgatic, ta
guizon galgarriac nai
arren inoiz ere goibel-
du eta estutugabe bi-
ci al izateco zure gra-
cia santua. Amen.

PREFACIO ETA SANTUS-EAN.

—

¡O Israelco Erregue,
Jerusalenen eguin
lenduén triunfozco sa-
rreran canta, poz era-

cutsi eta alabanz an-
diac eguin cizquitzu-
tena, eta orregatic ere
erri arc berác zu des-
preciatzea, eta guru-
tze batean hiltzera
Pilatoc condenatzea
nai izan cenduenena! e-
guizu arren nic mun-
duaren alabanza eta
atseguin-contentu gu-
cíac gorrotatu, et
precioac gogoz re eheco gu-
eacgatie, gu-

eta mortificacioaren
eta nere pecatuen pe-
nitenciaren gurutzea
eramaten nere poz eta
gloria gucia ipintzea.
Amen.

CANON ETA MEMENTUAN.

¡O gure animen Ar-
zai gucziz leyal, berac-
gatic bicia emateraño-
kendu eueyeguirira irichi
rreran, lenago cere
n conta al baño

gueyago desonra, bi-
degabe eta charqueri
eramana; erregutzen
dizut, Jauna, indazula
neque pena eta lace-
ria guciac zure amo-
rez eramateco gracia,
nere heriotzaren on-
doren zurequin atse-
den eta onela secula
gucietan bedeica zait-
zadan. Amen.

*Orain escatuco zayo Jaunari guere eheco gu-
ciacgatic, eta adisquide eta onguilleacgatic, gu-
ciac banaca gogoratuaz.*

CONSAGRACION



!O Jesus guciz gozo,
antziñaco legueco antz
irudiai azqueneco afa-
rian acaballa eman,
eta gorputz, anima, eta
jaincotasunean Apos-
toluai Sacramentu gu-
ciz santuan eman, za-
tzaizquiena; nere cul-
pai acaballa eman, eta
indazu ceruco Ogui
orren gozotasunetic
cerbait: onela Zunigan

HOSTIA GORATZEAN.



eta ni zugan bici gai-
tean. Amen.

HOSTIA GORATZEAN.

Adoratzzen zaitut, ne-
re Jaun Jesucristo,
mundu gucia erredi-
mitzeco guciz diñaco
sacrificio edo ofrenda
gurutzeco aldarean
izan ciñana.

CALIZA GORATZEAN



Nic adoratzen zaitut,
Jesucristo nere Jauna-
ren Odol preciosoa,
gurutzean isuri, eta
gure salbacióraco Ai-
ta Eternoari ofrenda-
tua.

*Emen joango da hildacoen eta batez
ere aurrez joan zaiizquigun guere
guraso, aiton, amon, eta gañeraco
aideen oroitzapena eguiñaz edo oriee
gogora ecarriaz.*

HOSTIA ETA CALIZA
GORATU ETA BEREALA.



Nere Jesucristo Ja-
 un, gurutzean escu-o-
 ñetátic josia ceundela,
 guizarraza guciagatic,
 eta batez ere orduan
 bertan gurutzeficatu
 cindutenacgatic, Ait
 Eternoari erregutu ci-
 ñiona; escatzen dizut,
 indazula zure conse-
 juaren erara nere e-
 tsayai barcatzeco, eta
 gorroto didaten, eta

—234—
gaizquia eguiten dida-
tenai on eguiteco biotz
biguñ manso bat. A-
men.

PATER NOSTER-ERACO.

¡O nere Salbatzalle
Jesucristo, gurutzean
odola cerizula zure A-
ma guciz santa cere
icasle maite san Juan-
en contura, eta san
Juan zure Aamren
contura utzi cinduená;

zure contura jartzen
 naiz ni, ayec biac al-
 carri añ estu eta biciro
 gomendatu ciñiozcan
 eran eguiñaz; añ zor-
 zatzun gauz onen or-
 dañez, amorez zure-
 quin batutzea, eta pe-
 rill eta gaitzegoquieta-
 tic libratua izatea bi
 ayen bitartecotasunez
 merecitu dezadan.

Orañ esango da soseguz Aitagurea.

SED LIBERA NOS Á MALO



¡O nere Jesus chit
 gozoa; zure anima ja-
 ungoicotasunarequin
 batata jechi zan bece-
 la linbora Guraso san-
 tuen animac andic a-
 teratzera, escatzen di-
 zut, atera zazula nere
 pecatuaren limbotic,
 anima au infernutic li-
 bratuaz, bicitzonetati
 irtetean lembaitlen jo-
 an nadiñ Guraso san-

tuquin batera zure
alabanzac glorian can-
tatzera. Amen.

HOSTIAREN PUSCATZEAN.

—

¡O jaquintasun ondo-
gabea, piztu eta Ema-
usera cijoacen cere
icasleai aguertu, eta
oguiaren puscatzean
berai ezagutzera eman
etzaizquiena, guciac
arritu, eta poz atse-
guñez beteta utziaz:

erregutzen dizut, Ja-
una, eguidazula arren
nere salbaciioraco on
izango zadan gucia
niri aguertzearen me-
sedea, zure Pizte glo-
riosoaren frutu mira-
garriaz gozatu al izan
dezadan. Amen.

PAX DOMINI.



¡O Jesus guciz glori-
oso, triunfozco cere
Piztean cere icasleai
aguertu, eta paque eta
alcartasuna beñ eta
berriz encargatu ciñi-
ena: indazu, Jauna,
nere anima bicitzaren
graciara piztutzea,
inoiz ere Zugandic ez
aldeguiteco; beti mai-
ta zaitzadan, eta az-
quen gabeco descansu

betico arzaz gozatzera
Zurequin batean ceru-
co errira igotzea me-
recitu dezadan. Amen.

AGNUS DEI ESATEAN.

Nere Jesucristo Jau-
na, zure tormentuetan
eta heriotza lotsaga-
rrian zure paciencia
miragarria icusita, as-
coc beren bularrac
colpatuaz beren peca-
tuagatic negar eguin

eta zu Jaungoicotzat
ezagutu cinduten ez-
quero, escatzen dizut,
zure Pasio eta herio-
tza gucziz santuagatit
indazula nere pecatu-
en damu bici eguiazco
bat, eta secularan be-
rriz zu ez ofenditzeco
gracia. Amen.

COMUNIOAN
TA ONDOREN.



¡O Jesus gucziz garbi,
 nere amorez arrizco
 obi berri batean ipiñia
 izatea nai izan cendu-
 ena; irugarren egune-
 an piztu, eta berro-
 guei egunez cere Apos-
 tolu maiteai cembait
 aldiz aguertu citzaiz-
 quiena cere Pizte glo-
 riosoaren aguiri eta
 pruebaric seguruenac
 berai emanaz, oyequin

oyen ondorengoai pe-
 catuac barcatzeco es-
 cua emanaz: indazu,
 nere Jaun eta Jaun-
 goicoa, zure ministro-
 ari eguindaco confesio
 on batez ni graciaren
 bicitzara piztu, garbi-
 tua gueratu, eta nere
 biotza oso berritzea,
 eta egunen batean zu-
 re esleituen artean ce-
 ruco erreinoan arqui-
 tzea. Amen.

AZQUENECO DOMINUS

BOBISCUM-EAN.

Nere Jesucristo Jauna
cere Piztuera glorio-
soa ezquero berro-
guei egúnac bete on-
doan, cere icasleen
aurrean cerura igo ci-
ñana; indazula, erre-
gutzen dizut, nere ani-
mac zure amorez lur-
reco gauza guciaz naz-
catu, eta bacarric ce-

rucóac billatzea; Zu,
ó nere Jauna, anima
cristauarentzat dicha
guciaren iturburu, eta
descansu guciaren bi-
cilecua becela dese-
tuaz.

BENDICIOAN.

Jesus amarezco, ga-
uza guciz goratuetan
pensatzen cordegabe-
tuac becela ceudene-
an cere icasleai Espi-

ritu Santua bialdu ci-
 ñiena; escatzen dizut,
 garbi zazula nere bio-
 tza gucziz barrundic,
 Espiritu jaungoicozco
 onec beraren diñaco
 bicilecu bat nere ani-
 man arquituta, bicile-
 cu au bere doai eta
 gracia jaungoicozcoaz
 apaindu, eta alaitu de-
 zan. Amen.

AZQUENECO EVANGELIOAN

¡O Jesus, animen sal-
bacioaren zaitzalle gu-
ciz iracequia! zure ja-
ungoicotasun eta gui-
zatasunaren misterio
gordeac Apostoluen
bidez mundu guciari
ezagutzera eman ciñi-
ozcana, orañ eguin
dan Mezaren sacrifi-
cio santuan beguieta-
ratzen dan becela; hu-

miltasunic andienaz
erregutzen dizut, nere
Jauna, arren eramana
nazazula betico glori-
ara, an arpeguiz arpe-
gui zu icusiaz, secula
gucietan alaba zaitza-
dan. Amen.



ESQUERREN EMANERA

—

Milla ta gueyago es-
quer dizquitzut, Jaun
gucien Jaun jaungoi-
cozcoa, Mezaren sa-
crificio adoragarri au
enzuteco lecu emate-
az, eguin dizquidat-
zun mesedeen aldera-
co. Barca zaizquida-
tzu Sacrificio orretan
eguin ditudan utsegui-
teac, eta josi zazu ne-

re biotzean zure Pasio
eta heriotza sagradu-
aren ispillu bicia, eta
indazu nere pecatuen
damu bici eraguille
bat, oriec izan ciran
ezquero zure neque
pénen causa eta bide.
Amen.

yago, eta damu det biotz gucitic zu ofendituaz, ene Jaungoicoa, zu ontasun ondogabea izanic: esqueñtzen dizut Calbarioco bidaje santu au. Zuc nigatic eguin cenduen penagarizco ibillera haren honran eta alabazan, eta irabaci nai ditut Aita Santuac jayera oni eman diozcaten barcacio edo indulgenci guciac; eta gañera erregutu nai det Aita Santuac nai dituen gauza eta premiatic: azquenic humiltasun guciac erregutzen dizut, eguin dezadala jayera santu au alatan, non mundu onetan zure urricaltasuna irichi, eta bestean betico bicitza merecico dedan. Amen.



LENENGO ESTACIOA.

*Lenengo Estacio onetan eguin dezagun contu,
Pilatosen echean gaudela, non gure Jesus
onác, burua arantza zorrotzez josirie, eta
guztia, odolduric heriotzeco sententia
artu zuen.*

Pensa ezazu, cristaua, ceñ isill
eta humill aditu zuen heriotzeco sen-
tenci añ bidegabeba Jesus garbi eta
culpagabeac, eta jaquiñ ezazu, zu-
re pecatuac izan cirala sentenci au-
firmatu zuten testigu guezurrezco-
ac, eta zure gogortasunac mugui-
tu zuela Juez gaizto hura, sentenci
au ematera. Eta au onela izanic,
cere Jaungoico laztanagana, biur-

tu eta biotzetic esan zayozu:

¡Ay nere Jesus laztana! eta ceñ iracequia dan guganaco zure amo-rea! bada esquer beltzeco creatura bategatic sufritu cinduen carcelac, cateac eta azote añ gogorrac, eta gueroenean heriotzaric lotsagarrienaren epai edo sententia: bacarric au asco da nere biotza muguitzeco, eta nere pecatu guciac gorrotoric bicienaz beguiràtzeco, alabaña oyecgatic aibeste neque igaro cinduen: bertatic gorroto diet, Jauna, nere pecatuai, bertatic damu det oriec eguiñaz, eta Calbarioco bide santu guci onetan ibillico naiz negarrez eta suspirioz, esaten: Ene Jesus, urricaltasuna, urricaltasuna ene Jesus

Jauna damu det zu ofendituaz. Erruqui zaite nizaz.

Aita gurea, Ave Maria eta Gloria.



BIGARREN ESTACIOA.

*Bigarren Estacio onetan gogora zaguñ nola
borrero odolzale ayec gure Jesus onari
gurutzeco arbola pisua bizcarrean
ipiñi cioten.*

Pensa ezazu, cristaua, nola Jesus
ona oñacez lertzen dagoelarik, laz-
tantzen zayon gurutze santuari,
eta beguira nolaco biguntasun eta
pacienciaz daramazquien guizon bi-
llau ayec ematen diozcaten golpe eta
búrlac; zu, errucarri ori, peniten-
ciaren gurutzetic iguesi zabiltzan
garayan bertan, jaquiñic zuec, ez-

tagoela gurutzegabe ceruan sart-
zeco moduric. Eguizu, bada, ne-
gar, oraindano penitenciaco bideari
izan diozun gaitziritziagatic, eta
negarrez eta suspirioz biotz guciaz
cere Jaunagana biurtu, eta esan
zayozu:

Nere Jesus, ez zuri, ezpada niri
dagoquit gurutze astun ori. ¡O nere
pecatu andi eta itsusiaz eguindaco
gurutze guciz pisua! Ea, baba, ne-
re Salbatzallea, indazu arren nere
pecatuac mereci dituzten neque eta
gurutzeac amorez eramateco indar-
ra, nere bicico egun laburretan
gurutzearequin laztanduta bici eta
hill, eta gueroenean gurutzearen
bidez ceruco gloria betico gozatze-
ra irichi nadiñ. Amen.

Aita gurea etc.

Jauna, damu det, etc.



IRUGARREN ESTACIOA.

Irugarren Estacio onetan gogora zagun, nola gure Jesus ona gurutzearequin lembicico erori zan.

Pensa ezazu, cristaua, nola gure Jesus maitea odolezco iturri bat eguiñ, eta Satanasen morroi ayec ematen cioten itomenaz indárrac aitu eta gurutzearen cargac lurre-ra ezarri zuen. Ea bada, beguira nola borrero odolguiro ayec maquilca, osticoca eta burlaca darabilden; baña ala ere eztu Jesus guciz mantsoac aoric idiquitzen, bai-

cic guztia isillic darama. Bada orañ zure arrotasun eta aserreaz damutu, eta gorrota zazu cere soberbia, eta erregu zayozu cere Jaungoicoari era onetan.

Ene Erosle maitea, ona nun daucazun zure óñetan auzpezturie lurraren gañean bici diran pecatarien desleyalena. ¡O cembat pecatu eguin dedan! ¡Cembat aldiz pecatuaren leizondarrereraño amildu naicen! Ea bada, indazu zure escu indartsua, jaiqui nadiñ. Indazu, Jauna, indazu arren laguntza, nere bici gucian iñoiz ere pecatu mortalean erori ez nadiñ, eta heriotzeco orduan nere animaren salbacioa irichi dezadan. Amen.

Aita gurea, etc.

Jauna, damu det, etc.



LAUGARREN ESTACIOA.

*Laugarren Estacio onetan gogora zangun
nola gure Erosle Jesusec bere Ama nai-
gabez betea topatu zuen.*

¡**Q**uier naigabeac Jesusen biotzac
igaro cituen! ¡Eta ceñ atsecabetua
Mariarena egongo zan bere Semea
icustean! ¿Cer gaitz eguin dizu
nere Seme Jesusec? dio Maria pe-
naz beteac. ¿Cer gaitz eguin dizu
nere Ama gajoac? dio Jesusec, Ea,
bada, utzi zazu guri naigabe añ
gucizcoac eracarri diz quigun peca-

tua. Eta zuec, peccataria, chit damu-
tuta ezayezu:

¡O Mariaren Seme jaungoicozcoa!
¡O Jesus maitearen Ama santa! Ona
non naucazuten damutu eta zuen
óñetan auzpezturic: aitor det nic
eguin nuela nere peccatuaz zuen
biotz samúrrac erdiratu cituen ez-
pata zorrotz hura. Damu det biotz
gucitic eta escatzen dizuet bioic
misericordia eta barcacioa. Miseri-
cordia, ene Jesus, misericordia:
misericordia, Maria guciz santa,
misericordia; mesericordi andi onen
bidez peccatua utzi, nere bicitzaco
egun laburretan zuen pénac gogoan
erabilli, eta guero ceruco glorian
zuec icusi zaitzatedan. Amen.

Aita gurea, etc.

Jauna, damu det, etc.



BOSTGARREN ESTACIOA.

*Bostgarren Estacio onetan gogora zagun
nola Juduac Cirineoari Jesusen gurut-
zea eramaten lagundu eraci-
cioten.*

Pensa ezazu, cristaua, zu ceralanai edo ez Jesusen gurutzea eramanzuen Cireneta hura, cerenzure biotza mundu onetaco atseguin contentu falso galcorrai gucziz itsatsia daucazun. Ea, bada, apartazazu zure biotza mundutarren atseguin falsoetatic, eta onela arin-ducodiozu Jesusi bere carga astu-

na; eta Jaungoicoac ematen dizquitzun naigabe pénai biotzez laztandu, eta eramán itzazu guciac onez, Jaungoicoari esquerrac emanaz diozula:

¡O nere Jesus gucz maitea! Esquerrac dizquitzut, neretzat merecimentuac eguiteco, eta zugatic sufritzeco eman cizquidatzun bide eta derech añ egoquiacgatic. Ea, bada eguizu, ene Jaungoicoa, mundu onetaco neque edo nequetzaco gucia onez eta paciencian eramánaz besteco ondásun beticoac nic iristea; eta emen neque eta naigabeac zurquin batera sufrituaz, ceruan Zurquin betico gloria nic merecitzea. Amen.

Aita gurea, etc.

Jauna, damu det, etc,



SEIGARREN ESTACIOA.

*Seigarren Estacio onetan gogora zagun
nola Veronica ceritzan emacume on
batec Jesucristori bere arpegui
odo idua zapi batez garbitu
cion.*

Pensa ezazu, cristaua nola Jesus maiteac lanbide onen sarian bere arpegui ederraren irudi edo imajina, zapian utzi cion; beguira zapi artan Jaungoicoaren arpegui ederragucia itsusturic; eta zure Jaunari diozun amoreagatic, eguizu cerebiotzean arpegui haren irudi edo

imagiña bici bat. Zori onecoa zu,
 baldiñ Jesusen imagiña biotzean de-
 zula hiltzen bacera! Bada, mesede
 añ gucizcoa irichi dezazun, erregu
 zayozu zure Jaunari esanaz onela:

¡Nere Salbatzalle naigabe-penaz
 betea! erregutzen dizut, josi deza-
 zula nere biotzean zure arpegui
 guciz santuaren imagiña, alatan
 nun, gau eta egun beti Zugan pen-
 satzen negoquean, zure Pasio san-
 tua beti nere beguetan dedala, ne-
 re pecatu andiaz negar eguin de-
 zadan; eta nere pecatuen damuaz
 escatzen dizudan becela, uste det
 emango didazula ceruan beticotasun
 guztian zure arpegui ederra icuste-
 co dicha. Amen.

A ita gure a, etc.

Jauna, damu det, etc.



ZAZPIGARREN ESTACIOA.

*Zazpigarren Estacio onetan gogora zagun
nola gure Erredimitzallea Jerusalem-
go ate batean gurutzearequin bi-
garrenean erori zan*

Beguirazayozu, cristaua, zure
Jaungoicoari lurra joeraciric, nola
bere etsayac eta erri guciac osti-
coca eta burlaca darabilten; eta
contura zaite zure soberbiac ezarri
duela lurrera, eta zure arrotasunac
utzi duela ain beeratua. Ea, bada,
beeratu itzazu orain bederic, zure
pensamentu arroac, eta lengo peca-

tu gucien damu eguiazcoaz, arzazu gaurguero humil izateco asmo sendoa. Jaunari esanaz.

¡O nere Erosle guciz santua, lurreratua icusten bazaitut ere, dembora berean aitor det, guztia deza-zuqueala, eta ala escatzen dizut, indazula zure gracia, soberbia, andinai eta nere buruaganaco naitasun eragabea menderatu, eta humiltasuna jarraituaz bacartasun eta menosprecioac maite ditzadan; eta zuc añ ascoan daucazun barrungo humiltasun eguiazcoaz, ceruco gloria merecitu dezadan. Amen.

Aita gurea, etc.

Jauna, damu det, etc.



ZORTZIGARREN ESTACIOA.

*Zortzigarren Estaeio onetan gogora zagun
nola Jesus onác Jerusalengo emacume
penaz beteac consolatu cituen.*

Pensa ezazu, cristaua, zuc bide
gueyagoz negar eguin bear cendu-
queala, Jesusec zugatic daramaz-
quien neque penacgatic ezecic, zu-
re pecatuacgatic ere, ceren oriec
eracarri diozcaten Jesus maiteari
orrelaingo oñace eta nequéac. Eta
onembeste pena icusita ¿nola ezta
biguñtzen zure biotz ori? Edolaric
Jesusec emacume ayei aguertzen

dien urricaltasuna icusita, ipiñi zazu Jaunagan cere uste eta confianza gucia, eta damuric bicienaz esan zayozu:

¡O nere salbatzalle maite maitagarria! ¿Nola deseguiten ezta nere biotza negarrez, nigatic daramazquitzun pena eta tormentu izugarriac icusita? Negarrac escatzen dizquitzut, nere Jauna, damu eta erruquizco negàrrac; beguietaco negarrac, eta biotzeco damuaz irichi dezadan emacume on oyei aguertu ciñien urricaltasuna. Ea bada, eguidazu arren mesede au, mundu onetan zuc erruquiz beguiratuta, irichi dezadan zu heriotzeco orduan ceruco glorian icustea. Amen.

Aita gurea, etc.

Jauna damu det, etc.



BEDERATZIGARREN ESTACIOA

*Bederatzigarren Estacio onetan gogora
zagun nola gure Jesus guciz otzarac,
indarrac aitu, eta gurutzeco arbo-
la pisuaren azpian irugarre-
nean lurra jo zuen.*

¡O ceñ miña gure Jesus maitea-
ren erori au izan zan! Beguira nolaco
arrabiaz otso amorratu ayec Jesus
Bildotz mansoari erasotzen dioten;
bada nola guciac bera gurutzean
icusteco egarriz baceuden, golpeca
eta burlaca lurretic jeiqui eraci zu-
ten.

¡O Jaungoicoaren Semea onela
 ipiñi zuen pecatu madaricatua! Cris-
 taua, ¿mereci otedu zugatic onela-
 co oñace eta tormentúac darama-
 tzien Jaungoico batec negar egui-
 tea? Esan guiozu bada:

¡Nere Jaungoico laztana, nere
 biotzeco Jauna! ¿Noc ezarri zaitu
 lurrera? ¡Ay ene! nere pecatuac lur-
 jotu zaituzte, alabaña nic pecatua
 pecatuari egotziaz, oñaceac oñace-
 en gañean zuri egotzi nizquitzun.
 Baña orañ nere utseguitea ezagutu-
 ta, zure óñetan auzpezturic, esca-
 tzen dizut barcacioa, eta gueyago
 peccaturic ez eguiteco asmo sendoaz,
 negarrez eta suspirioz diot milla
 bider: ez gueyago peccaturic, ene
 Jaungoicoa, ez gueyago. Amen.

Aita gurea, etc.

Jauna, damu det, etc,



AMARGARREN ESTACIOA.

*Amargarren Estacio onetan gogora zagun
nola gure Erosle Jesusi soñecoac quen-
du, eta edateco beazuna eman
cioten,*

Pensa ezazu, cristaua, nola bor-
rero odol-zale ayec Jesus maiteari
bere soñecoac quendu, eta aragui
minberatuai itsatsiac ceuden soñe-
coquin batera aragui eta odol-za-
tiac ere quendu ciozcaten, eta eda-
teco eman cioten beazunaz bere aoa
samindu cioten. Beguira nola ceru-
ac edertasunez jazten dituen zure
Erredimitzalleac, bere oñace porti-

tzaz gañera, aimeste jenderen aurrean bildotzic guelditzea sufritu zuen; bada urricaltasunic andienaz hitzeguiozu cere Erosleari era onetan.

¡Ene Jesus laztana! ¿cer da au? ¡Zu guci ori odoldu, zauritu, larrutu, eta oñacez lertzen; eta ni gucia atseguin, banidade eta atseguin-contentuz beteric! ¡Ay Jauna! ez noa bide zucenetico.

. Ondo daquit zu cerala eguiaren bidea; baña indazu biciera berri bat eguiteco gracia, eta mundu onetaco gauza gucienganaco alaingo gorrotoa, nun zure Pasio santuco neque oñaceac gogoan erabili-liaz, ceruco atseguin-contentuac merecituco ditudan. Amen.

Aita gurea. etc.

Jauna, damu det, etc.



AMAICAGARREN ESTACIOÁ.

*Amaicagarren Estacio onetan gogora zagun
nola judu odolzaleac Jesus ona gurut-
zean eratzan, eta Ama guciz san-
taren aurrean iltzeaz josi
zuten.*

Pensa ezazu, cristaua, oñace ceñ
biciac eramango cituen Jesus onac
bere escu-oñac iltze gogorraz jos-
tean, eta ¿nolacoa izango zan Ma-
riaren pena eta naigabea bere bio-
tzeco Semea era artan guztia zati-
tu eta puscatua icustean alatan,
non, arriac bérac ere cupitzen ci-
ran? ¿Eta nola zure biotz gogor ori

erdiratzen ezta aimbeste pena icu-
sita? Ed: laric aguer zazu cere nai-
gabea esanaz cere negarraquin:

¡Nere Jesus erruquitsu, nigatic
gurutzean josia! Josi zazu Jauna,
josi zazu nere biotza zure amorezco
eta beldurrezco iltzeaz; eta nere
pecatuac ciranez gueroz zure escu-
oñac josi cituzten iltze gogórrac,
egvizu arren zure beldur santu eta
nere pecatuen damuaz nere oitura
galgarriac azpiratu, eta zurequin
batera ceruco glorian bicitzeco gra-
cia nic iristea. Amen.


Aita gurea. etc.

Jauna, damu det. etc.



AMABIGARREN ESTACIOA.

*Amabigarren Estacio onetan gogora zangun
nola gure Jesus maitea gurutzeari josi
eta gora jaso, eta bere bicitza mai-
tagarria munduaren salbacioa-
gatic eman zuen.*



Bada, nere cristaua, beguíaac goratu eta beguira zayozu zure Jesus maiteari, nola dagoen airean iru iltzetatic isequirie beguira arpegui jaungoicozco ari hiltzeco zorian, bere zauri guciac berritu, eta escu-óñetan odolezco iru iturri lur-

reraño darizcala: adi zayozu nola barcatzen dien berá hill nai dute-
nai, nola aguintzen dion ceruco gloria lapur onari; nola bere Ama maitea San Juanen contura eta bere anima Aita Eternoaren escuetan utzi, eta gueroenean burua macurtu eta hiltzen dan. ¿Beraz hilda Jesus? ¿Eta zugatic gurutzean hil da? Eta zu peccataria ¿certan zaude? Ea, bada, eguizu bertatic, eta lecu sagradu onetatic irten baño len, Jaunagana biotz guciaz biurtzeco asmo sendo eraguillea. Eta cere Erosle maitearen gurutzeari onela laztandu, eta aian guiozu:

Ene erreumitzalle biotzecoa, ezagutzen eta aitortzen det, nere peccatu itsusiac izan cirala zuri bi-
cia quendu cizuten borreroen go-

gorrenac, eta charqueri añ guczicoaren barcacioric mereci eztedala, baña cere gaitzquilleai nola barcatzen diezun, zuri gurutze orretan aditzean, jó nola poztutzen dan nere biotza! Eta etsayai barcatzen eracusten diguzun ezquero, ona ni emen nere etsai guztiai biotz-biotzetic barcatzeco prest. Bai, ene Jaungoicoa, zuri dizudan amoreagatic guztiai barcatzen diet, eta opa diztet on guciac; onela mereci dezadan heriotzeco orduan zure aotic zorioneco hitz hura enzutea:

*Gaur nerequin izango cera Ceruan.
Amen.*

Aita gurea, etc.

Jauna damu det etc.



AMAIRUGARREN ESTACIOA.

*A mairugarren Estacio onetan gogora
zagun, nola Jesusen gorputz hilla
gurutzetic erachi, eta bere Ama
Mariaren besoetan ipiñi zuten.*

Pensa ezazu cristaua, nolacoa
izango zan Ama gajoaren biotza jo-
si zuen dolorezco ezpata zorrotza
bere Seme jaungoicozco hilla bere
besoetan artu zuenean. ¡Cer naiga-
be eta pena igaroco zuen, Espiritu
santuaren obraz bere errayetan
eguindaco gorputz eder hura, guz-
tia ubeldu, odoldu, eta buritic oñe-

tara zatitua icustean! Emen Maria-
ren pena eta naigabe guciac ber-
ritu ciran.

Baña zuc, gogoratzean zure pe-
catuac utzi zutela Mariaren Seme
maitea estadu errucarri artan, ne-
garrari eman, eta urra zazu cere
biotza, eta esan guiozu: ¡O Martirien
Erreguiña! ¡Nolaco pena eta naiga-
bezco itsaso ondogabea eguiñic
egongo zan zure biotza! Zure urri-
caltasunaz baliaturic, ezagüeraci
zaizquidatzu, ene Ama maitea, len-
go nere utseguiteac, oyen damu bi-
ci eraguillen batequin penac erama-
ten emen zuri lagundu, eta ceruan
betico atseguin contentuetan ere
lagun deguizudan. Amen.

Aita gurea, etc.

Jauna, damu det etc.



AMALAUGARREN ESTACIOA.

*Amalaugarren Estacio onetan gogora
zagun, nola Jesusen gorputz guciz
santua obian ipiñi zuten.*

Pensa ezazu cristaua, nolaco auri
eta negárrrac San Juanec, Magdale-
nac eta beste emacume eta Cristoren
jarraileac eguingo dituzten obia ichi
zutenean: baña cerezquiro pensa
ezazu, nolacoa izango zan Maria gu-
ciz santaren naigabe-pena, Seme ain-
gozo atseguña galdu, eta bere bu-
rua bacartasun artan icustean. Eta
zu, lotsa zaite, alaingo negar sami-
ñac icusita, Calbarioco bide santu

guci onetan sentimentu eta erruqui
añ guchi aguertzeaz. Ea, al gucia
eguizu azqueneco Estacio onetan,
eta obi santuaren arriari muñeguin,
eta erregu zayozu negar ugari miña-
quin cere Jaungoicoari esanaz:

¡Nere Jesus erruquitsua, nere
amorez nequezco bide guci onetan
ibilli izan nai cenduana! adoratzen
zaitut hilla, eta obi santuan sartua
zauden becela; baña nayago cindu-
quet nere biotzean gordeta iduqui,
onela zurequin batu, eta Calbario
santu onen ondoren biciera berri-
bat eguitera jaiqui, eta onean irau-
naz, mereci dezadan zure adisquide-
tasunean hiltzea. Indazu, bada, Cal-
barioco bide santu onetan gogoan
erabilli ditudan zure Pasio sagradua-
ren merecimentuácgatic, nere az-
quen-orduco janaritzat aldareco Sa-
cramentu gucziz santua, eta nere az-
queneco hitzac Jesus eta Mariaren

icen gozóac izatea, eta nere azquen
arnasa gurutzean zuc eman cendua-
narequin batutzea, onela fede bici,
esperanza sendo eta amore bero ba-
tequin zurequin hill, eta Zugatic; zu-
requin batean secula gucietan ceruan
bici nadin. Amen.

Aita gurea etc.

Jauna, damu det etc.



MARIA GUCIZ SANTAREN DOLOREEN

ZAZPIURRENA

*Gurutzearen señailea eguin, Nere
Jesucristo Jauna esan, eta eguin-
go da ondorengo*

OFRECIMENTUA

¡O Maria Doncella, dolorez bete-
taco Ama! munduco Ama gucien nai-
gabetuena; zure oñetan auzpeztu, eta
zure naigabe eta antsia larriacgatic
eta zure Seme guciz santu gurutzefi-
catuarenacgatic escatzen dizut, irichi-
zadzula nere pecatuen barcacioa,
berriz pecaturic ez eguiteco gracia
ugaria eta zure zazpi dolore andie-
naz erreverenciatuaz escatzen dizu-
dan mesedea.

LENENGO DOLOREA

Virgiña guciz santaren lenengo dolorea izan zan, bere Seme Jaungoicozcoa Temploan presentatu zuenecoa.

Jaungoicoa Templora eramán cenduenéan, asco martirizatu cinduen, ó Ama biotz beraa, bera eta zu, bioc igaro bear cinduzten ezpata Simeon santuac aldeaurrez aditzera eman cizunean.

Dolore añ portitz onegatic escatzen dizut, ene Ama laztana, gure biarteco izan zaiteala bicitzan eta heriotzean.

Aita gurea eta Ave Maria.

BIGARREN DOLOREA.

Virgiñaren bigarren dolorea izan, zan Herodes erreguearen igues bere Semearequin joan zanecoa.

Ecerezetic eguiten gaituen Jaungoicoa añ aur zala, hilla ez icustearren Maria eta José igues dijoaz Jesu-sequin basoac barrena. ¡ó cer pena!

Dolore añ portitz onegatic escatzen dizut, nere Ama maitea, izan zaiteala gure bitarteco bicitzan eta heriotzean.
Aita gurea eta Ave Maria.

IRUGARREN DOLOREA.

=

Virgiñaren irugarren dolorea izan zan, bere Semea galdu, eta onen billan ibilli zanecoa.

Ni nere Jesusgabe galdua nabill: ¿nun' cera bada, nere biotzeco cutuna? Iru egun oyetan bicitzagabe bici naiz; beraren billan nabill eta eztet arquitzen.

Dolore añ portitz onegatic escatzen dizut, Ama maitea, bicitzan eta heriotzean gure bitarteco izan zaiteala.

Aita gurea eta Ave Maria.

LAUGARREN DOLOREA.

Virgiñaren laugarren dolorea izan zan, gurutzea sorbaldan zuela, bere Semea icusi zuenecoa.

Amarguretaco calean nere Semea dacutsadanean, bicitza eta gozotasuna banaiz ere, dei nazate beazunez betea.

Dolore añ portitz onegatic escatzen dizut, ene Ama erruquitsua, gure bitarteco izan zaiteala bicitzan eta heriotzean.

Aita gurea eta Ave Maria.

BOSTGARREN DOLOREA

Virgiña guciz santaren bostgarren dolorea izan zan, bere Seme jaungoicozcoa gurutzeari hiltzez josia icusi zuenecoa.

Burni gogórrac martirizatzen dute

nerre Seme maitea, berac orretaraco bideric emangabe: baña ¡ay! eta iltze oriec ni ere josten naute.

Dolore añ portitz onegatic, escatzen dizut, Ama laztana, gure bitarteco izan zaiteala bicitzan eta heriozean.

Aita gurea eta Ave Maria.

SEIGARREN DOLOREA.

Virgiña guciz santaren seigarren dolorea izan zan, bere Seme jaungoicozcoa besoetan zuela guretzearen oñean egon zanecoa.

Egun sentiaren besoetan dago odei arguitsua illunduric, eguzquiric arguienaren heriotzaz negar eguin nai eta eciñ eguiñic egun sentia egonic.

Dolore añ portitz onegatic escatzen dizut, Ama naigabez betea, gure bitarteco izan zaiteala bicitzan eta heriotzean.

Aita gurea eta Ave Maria.

ZAZPIGARREN DOLOREA

Virgiña Maria santaren zazpigarren dolorea izan zan, bere Seme Jaungoicozcoa obian sartu zutenecoa.

Ichitzen badidazute nere Semearen obia, iduqui zazute neretzat beste obi bat idiquia.

Dolore añ portitz onegatic escatzen dizut, nere Amandre maitea, bicitzan eta heriotzean gure bitarteco izan zaiteala.

Aita gurea eta Ave Maria.

Esca beza emen bacoitzac on eta bear duena, eta ejercicio au azquenduco da esanaz ondorengo

ORACIOA.

Nere Ama Dolorez betea, zure Seme bacar maite Jesucristoren gurutzearen oñean cere semetzat san Juanen personac artu nai izan guinduzun ezquero, aguer zazu gure Ama

guciz amorezcoa cerala, eta lagun
zaguzu orañ eta beti, gure bicitzaco
puntu eta une gucietan eta heriotze-
co estura larri artan. Amen.

DOLOREETACO AMAREN SALVEA

Agur, Doncella dolorez betea,
agur martirien Erreguiña, Ama er-
ruquitsua, aranz arteco lirioa. Bici-
tza eta eztitasuna darizquitzu, negar
biguñ orietan, eta gure esperanzaren
prenda ematen diguzu negar-perla
eder orietan. Jaungoicoac salba zai-
tza; zuri deyez gaude, Evaren ume
zure seméoc, zure semeac Gurutzean
zu gure amatzat uzten zaituen ezque-
ro, Zugana naigabez josi orrengana,
etorri nai guenduque, zure Semeari
iltze, eta zure bularrari ezpata zor-
rotz izan citzaizquitzuten gure peca-
tuacgatic negar eguiñaz.

Gure bitarteco eguin cinduen Cal-
 barioan zure Seme erruquitsuac, itzul
 itzazu, bada, guganonz zure begui
 erruquitsu oríec, oríec dira gure gor-
 deletua. Eta emen lurrean ill zan aci
 edo ale zure frutu bedeincatu Jesus,
 Paradisoan bicitzaren arbol guretzat
 izatea, zuc eguizu arren, ¡oh Ama
 guci ori erruqui utsa! ¡O Ama guci
 ori biguntasun utsa! ¡O Ama guci ori
 dolore utsa! ¡O Maria Dolorezco itsa-
 soa! Zure urricaltasunac, ó Ama go-
 zoa, bigun dezala arren gure go-
 gortasuna, eta zure martirio parega-
 beac irichi dizaizquigula seculaco
 palma eta coroa. Amen.

AITA SAN JOSEREN

zazpi Dolore eta zazpi Gozoen
meditacioac béren ora-
cioaquin.

1.^a Nere Aita San Jose: oracio
au izan bedi, zure lenengo dolore eta
atseguñaren erreberencian. Araco
zere Esposa maitea aurdun icusi, eta
aren misterio ezcutatu hura ezagutu
baño len, išilca bera utzi, eta joateco
ibilli ciñanean, zure biotzac artu zu-
en doloreagatic; baita ere Encarna-
cioco miraria Aingueruac aguertu,
eta Espiritu Santuaren graciaz Virgi-
ña Amac Jaungoicoaren Semea bere
sabelean ceucala, eta jaiota, Salbat-
zalleari becela, Jesus icen eman ci-
ñiozula, aguindu cizunean artu cen-
duen atseguñ andiagatic. Nic zure
dolore eta atseguñ onetan nere bici-
tzan lagundu nai dizut; baita ere es-

catu, Ama Virgiñac eta zuc Jesus onari erregutzea, nere pecatu eta peligro gucietatic libra nazala eta nere Salbatzalle izan dedilla, heriotz on batequin Jesus ta Maria zurequin beti alaba ditzadan. Amen. *Aita gurea eta Ave Maria.*

Jose, Mariaren Esposo garbia, eta Jesusen Aita ustecoa, ceru-lurretan alabatua izan zaite; erregu zazu gurgatic orañ eta gure heriotzeco orduan. Amen.

Aita gurea eta Ave Maria.

2.^a Nere Aita San Jose: oracio au izan bedi, zure bigarren dolore eta atseguñaren erreberencian. Araco Jesus Jayota Belengo portalechoan eta abereen artean, alaco desamparo, on bear, otz eta neque andian, ceren arentzat ostaturic arquite etzenden. icusi, eta zure biotzac artu zuen orduco penagatic; baita ere

Ainguerúac Jaunari, gloria cantatzen, eta guri paquezco berri ónac ematen, eta arzáyac gucion salbatzaille Jesus adoratzén icusi, eta artu cenduen atseguñ andiagatic. Nic zure dolore eta atseguñ onetan nere bicitzan lagundu nai dizut; baita ere escatu Ama Virgiñac eta zuc Jesus onari erregutzea, biotzeco pobreza eta espirituco humiltasuna eman dizadala, bera nere biotz pobrean jayo dedin lurrean, eta ni aren biotzean jayo nadiñ ceruan. Amen.

Aita gurea eta Ave Maria eta gañeracoa lenengoan becela.

3.^a Nere Aita San Jose: oracio auzan bedi zure irugarren dolore eta atseguñaren erreberencian. Zortzi eguneco aurcho Jesus gozoa Circuncicioan bere odola, oñace eta negar andiaquin ematen, eta Jaungoicoaren Seme santua peccataria bazan becela-

co señaleaquin icusi cenduenean, zure biotzac artu zuen orduco penagatic; baita ere Jaungoicoác Aingueruaz gaztigatu cizun becela, Jesusen icen jaungoicozcoa eman ciñionean, jaquiñic mundua bere pecatuetatic salbatu bear zuela, artu cenduen atseguñ andiagatic. Nic zure dolore eta atseguñ onetan beti lagundu nai dizut; baita ere escatu, Ama Virgiñac eta zuc Jesus onari erregutzea, nere Salbatzalle izan dedilla, eta nere gura eta griña eragabéac ebaqui, eta pecatuetatic libratu, eta Jesusec ecarri cigun salbacioa betico mereci dezadala. Amen. *Aita gurea* etc.

4.^a Nere Aita San José: oracio au izan bedi zure laugarren dolore eta atseguñaren erreberencian. Berroqueigarren egunean Jesus bere Aitari Temploan presentatu, eta Simeon santuaren aotic aditu cenduenean,

Jesusec eramán bear cituen tormen-
tuac, eta zure Esposa maitearen ani-
ma dolozco canibetac josico zuela,
orduan zure biotza erdiratu zuen pe-
nazco ezpatagatic; baita ere Simeon
Santuac berac Jesus, Jaungoicoaren
Semea ezagutu, eta Ana alargun san-
tac arequin batean Jaunaren alaban-
zac eta gure erremedioa cantatzen
cituztela, aditu eta artu cenduen at-
seguin andiagatic. Nic zure dolore
eta atseguin onetan beti lagundu nai
dizut; baita ere escatu, Ama Virgi-
ñac eta zuec Jesus onari erregutzea,
bera nic beti ezagutu eta adoratzeco
arguia, eta nere Salbatzallea becela
amatzeco gracia didala, Jesusen amo-
rezco bicitza beticoa segurutzeco.
Amen. *Aita gurea* etc.

5.^a Nere Aita San Jose: oracio au-
izan bedi zure bostgarren dolore eta
atseguinaren erreberencian. Jesus


aurchoa eta bere Ama artu, eta Aingueruaren gaztiguaz Egiptora iguesi joan ciñanean, ceren Herodesec Jesus onari bicia quendu nai cion, neque andi onetan zure biotzac artu zuan penagatic; baita ere Jesus Egipton sartzean, ango Idoloac lurrera erori ciranean, Jaungoico eguiazcoac ayen jaungoico falsoac ondatzen ci-tuela, icusi eta zuc artu cenduen at-seguiñ andiagatic. Nic dolore eta at-seguiñ onetan beti lagundu nai dizut; eta escatu, Ama Virgiñac eta zuc Jesus onari erregutzea, nere et-sai demonio, mundu eta araguitic libra nazala; eta Jaunaren deya zuc becela aditu, eta beraren borondatea neque gucietan eguiñ, eta aren Magestadea beti adora dezadan. Amen.
Aita gurea etc.

6.^a Nere Aita san José: oracio au izan bedi zure seigarren dolore

eta atseguñaren erreberencian. Araco Aingueruác aguinduta, Egiptotic Israelco zure errira centocela. Herodosen semea Erregue zala jaquin, eta aitac becela Jesus maiteari biciaquendu naico cion beldurrez zure biotzac artu zuen penagatic; baita ere beldurori quentzeco Ainguerúac esan cizunean, Galilea aldera seguru igaro cindecela, artu cenduen atseguñ andiagatic; nic dolore eta atseguñ onetan beti lagundu nai dizut; eta escatu, Ama Virgiñac eta zuc Jesus onari erregutzea, munducoen beldurgabe nic Jaungoicoari beti jarraitzeco indarra didala, eta zuen amparoan ceruco bidean beti ibilli, eta nere Jaungoicoa beti zuequin alaba dezadan. Amen.
Aita gurea etc.

7.^a Nere Aita San Jose: oracio au izan bedi zure zazpigarren dolore eta atseguñaren erreberencian. Araco

Jesus amabi urtecoa zala, Jerusalemgo Temploan Jauna adonatu, eta eche-
rontzean ustecabe guelditu zanean;
eta Ama Virginiarequin aren billa iru
egunean ibilli ciñanean zure biotzat
artu zuen penagatic; baita ere iruga-
rren egunean Maisu jaquintsuen er-
dian eseriric, ceruco Maisua becela
lurrecoai eracusten guciac aurraren
jaquinde eta graciaz arrituric ceude-
la arquite cendueneco atseguin an-
diagatic. Nic zure dolore eta atseguin
onetan beti lagundu nai dizut; eta es-
catu, Ama Virginiac eta zuc Jesús
onari erregutzea, nic bera nere cul-
paz galdu eztezadan, eta nere bicia
lenago galdu; Jesus ofenditu baño,
zuen gracia ondo bici eta zuen amo-
rean ondo hiltzeco. Amen. *Aita gu-
rea etc.*



AITA SAN JOSE GLORIOSOARI

heriotzeco orduraco bere estalpe
eta amparoa escatuaz

ORACIOA.

=

Guizarraza guciaren bitar-
teco guciz poderosoa, pecata-
rien estalpea, animen gorde-
lecua, naigabetuen laguntza,
bici eta eraguillea, desampa-
ratuen consuelo atseguina; er-
remediogabe etorrico da nere
bicitzaren azqueneco puntu
estua, eta nere anima egongo
da antsia larri izugarrietan
bere agoniaco esturan nere

biciera gaizto eta aimbeste pe-
 catu icusita; guciz izugarria
 izan bear zat eternidadera
 pausoa; gucion etsai demoni-
 oac infernuc, indar guciaz
 erasoco dit, nic beticotasun
 guciraco Jaungoicoa galdu de-
 zadan; nere indárrac nolanai
 ere útsac izango dira eta mun-
 duan izango ez det lagun al
 dizadaqueanic. Orregatic bada
 bertatic orduraco deitzen di-
 zut; zure amparopean jartzen
 naiz; lagun zadazu arren es-
 tutazun triste artan, nic fede-
 an esperanzan eta caridadean
 utseguñ eztezadan. Zu hiltzen

ceundela, zure Seme ordeco
 eta nere Jaungoico Jesusec,
 eta zure Esposa eta nere
 Amandréac ayenatu cituzten
 demonioac zure animari eraso
 etzeguioten. Mesede oyecga-
 tic, eta bicitz onetan eguin ciz-
 quitzuten besteacgatic escat-
 zen dizut, zuc ere ayena dit-
 zatzula nigandic nere etsayac,
 nere azqueneco estutasunean,
 nere bicia paquean eman de-
 zadan, Jesus, Maria eta zu,
 Jose maitea, nere biotz guciaz
 maitatuaz. Amen. *Aita gurea*
Ave Maria eta Gloria.

Sevillaco Arzobispo Jaun Cardenal Cienfuegosec 100 eguneco indulgencia ematen die oracio au dobocioaz errezatzen dutenai: Valenciaco Arzobispo Jaun D. Simon Lopez-ec laroguei egunecoa; Segoviaco Obispo Jaun D. Fr. Joaquin Briz, eta Orihuelaco Obispo D. Felix Herrero Valverdec, bacoitzac berroqueina egunecoa.

ORACIOA.

SAN MIGUEL AINGUERU ANDIARI.

O San Miguel gloriotsu, Aingueruen buru, Elizaren zaitzalle eta animen gordetzallea; humiltasunic andienaz erregutzen dizugu, ampara gaitzatela zure erreguac, gorde gaitzala zure indarrac, eta indar gaitzala zure bertuteac, infernuco dragoyagandic eta bere lazoetatic zuc gordeta, bicitz onetatic irten gaitea-

nean Jaungoico gure Jaunaren Magestade andiaren aurrera pecatu gucitic garbi zure escuz eramana izan gaitean Amen.

SAN GABRIEL AINGUERUARI,


O San Gabriel gucziz gloriatsu, Jaungoicoaren sendotasun eta ceruco Aitaren Mandatari deitzen cerana, zuc, Jaungoicoaren Semea Maria Doncellaren errai gucziz garbietan guizon eguitearen guretzat zorioneco berria ecartzea mereci izan cenduñ orrec, erregu zayozu arren Jaun berari ni peccatari gaizto onegatic, beraren Erredencioco frutu ugariaz baliatu, eta betico zoriontasunaz gozatzea mereci dezadan. Amen.

GUARDACC AINGUERU SANTUARI,

=

Nere amaren errayetan bicia eman cidanetic Jaun andiac nere contua eman cizun Aingueru santua; nic, zure contucoa izatea mereci eztedan onec, ematen dizquitzut al nitzaquean esquérrac, batayoco ur osasungarriaz berriro sortua izan nitzaneraño niri bicia gordetzeco iduqui cenduen contu eta arretagatic. Esquerrac, aurtasunean eta gaztetan aimbeste galbidetatic gorde nazulaco, gogoratu dizquidatzun asmo eta gogo santuagatic, eta beti eguin didazun laguntasun atseguña-gatic. Zure contura, nere Gordetzallea, jartzen naiz berriro; alabaña, Jaunác zure contura utzi ninduen. Zure laguntza escatzen det, añ pro-gatua daucateta. Gorde nazazu agui-

rico eta ezcutuco nere etsayacgandic;
arguitu eta iracequi nazazu. Maita
zazu Jaungoicoa cere borondatearen
gogo santuaz, bera maitatu nai lu-
quean nere biotzarequin. Amen.



ARQUY-BIDEA

Hitz-aurrea	V
Aldareco Sacramentu chit santuari visitac	1
Sacramentu gucziz santuari eguiten zaizcan icusaldietaco bacoitzaren aurretic eguin bear dan oracioa	4
I. Bisita	7
Maria gucziz santari I. Bisita	11
Bisita bacoitzaren ondoren Maria gucziz santari eguin bear zayon oracioa	13
II. Bisita.	15
III. Bisita.	19
IV. Bisita.	23
V. Bisita.	27
VI. Bisita.	31
VII. Bisita.	36
VIII. Bisita	42
IX. Bisita.	47

X. Bisita.	51
XI. Bisita.	56
XII. Bisita.	61
XIII. Bisita	65
XIV. Bisita	70
XV. Bisita	75
XVI. Bisita	80
XVII. Bisita.	85
XVIII. Bisita.	89
XIX. Bisita	94
XX. Bisita	99
XXI. Bisita	105
XXII. Bisita.	110
XXIII Bisita	115
XXIV. Bisita.	120
XXV Bisita	125
XXVI. Bisita.	131
XXVII. Bisita	136
XXVIII. Bisita	141
XXIX. Bisita.	147
XXX. Bisita.	152
XXXI. Bisita.	158
Examiña eguiteco manera. . .	167

Examiñaren aurreco oracioa	168
Mandamentuen gañean examiña	171
Examiñaren ondoreraco oracioa	195
Confesioaren ondoraco oracioa	202
Comunio aurreraco oracioa	204
Comunio aurreraco consideracioa	206
Comulgatzeco deseoa	209
Maria guciz santari oracioa	212
Esquerren emaneraco actoa	214
Gogozco comunioa	217
Meza santua debocioaz enzuteco manera	219
Esquerren emanera	272
Gurutzeco bide edo calbario santua	274
Maria guciz santaren Doloreren zazpiurrena	306
Doloreetaco Amaren salvea	312

Aita san Joserén zazpi dolore eta zazpi gozoen meditacioac berén oracioaquin	314
Aita san José gloriosoari he- riotzeco orduraco bere estalpe eta amparoa escatuaz oracioa.	321
Oracioa san Miguel Aingueru andiari.	325
Oracioa san Gabriel Aingue- ruari	326
Oracioa Guardaco Aingueru, santuari	327









